# Sermons basques du XVIIIe siècle en pays de Cize Euskal-pheredikuak Garazin XVIII-garren mendean

Jean-Baptiste Orpustan

▶ **To cite this version:**

Jean-Baptiste Orpustan. Sermons basques du XVIIIe siècle en pays de Cize Euskal-pheredikuak Garazin XVIII-garren mendean. Lapurdum - Euskal Ikerketen Aldizkaria, Centre de recherche sur la langue et les textes basques, IKER - UMR 5478 (CNRS, Bordeaux 3

UPPA), 2006. <artxibo-00082379>

**HAL Id: artxibo-00082379**

**https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00082379**

Submitted on 27 Jun 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Sermons basques du XVIIIe siècle
# en pays de Cize
# *
# Euskal-pheredikuak Garazin
# XVIII-garren mendean

*

**Archives de la maison Iriberria de Bascassan**

*

Transcription littérale et notes de Jean-Baptiste ORPUSTAN

*Toutes les remarques et observations du transcripteur sont mises entre parenthèses et en italiques. Les parenthèses simples sans italiques portent des passages effacés et illisibles, en bout de lignes des feuilles manuscrites ou autrement, quand ils ont pu être reconstitués, et dans le cas contraire des points de suspension. Toutes les autres ponctuations sont celles des manuscrits, de même que les passages barrés, les majuscules, les alinéas, les entrées des paragraphes en lettres agrandies, les soulignements. Les numéros de texte et de pages en italiques sont du transcripteur.*

(*Sur une feuille volante pliée et détachée ayant servi de couverture:)*

Ce petit Cayer

Sermo De pœnitentia dilatâ usque ad mortem

# *I*

*(Sur feuilles pliées et reliées par une couture de fil blanc. Ecriture fine, penchée.)*

*(page 0)*

28 mars 1762

**Sur la confession**

*(page 1)*

Gouciec badaquigou Jaun and. Jaïncoac Establitu diela aldareco sacramendu sainduya gure arimen nourimendutçat.. Erraitendaucu esdugula bicitce eternala Içanen, nun esdugun Jesus cristoren haraguia et odola Jaten eta edaten communionian - beras necessarioda Jesus cristo errecivideçagun communionian nahibadugu ceruyan Sarthu, nisi manducaveritis carnem filii homini et biberitis ejus Sanguinem non habebitis vitam ~~eternam~~ in vobis Bainan nola esbaiteçaquecie Jesus cristoren gorputça eta odola dignoqui errecivi cien arimac bekhatuz liçunduyac badira, Jaincoac egun ene ahotic avertitcen cituste bekhatu gucietaric cien arimen garbitcias: Bainan nola garbi? - confessione hon baten moyenes. Bainan cer Eguin behar da confessione hon baten eguiteco? beharduçie çuen conciencia examinatu eta cien bekhatuyen gainian erreflexioniac eguin behartutçie bekhatuyaren quitatceco erresolucionia eta moyenac hartu.. ~~bekhatuyen quitatcera~~ ..

Badaquicie dudaric gave confessione hon baten Eguiteco conciencia examinatu behardela, eta bekhatuyac eçagutu ondoan heyen gainian erreflexione Egin beharduciela attencione eguiten baducie haur prodigoaren eta Madalenaren conduîtari eta confessioniac Içan behardien effectuyari, ~~eta~~ Seguratuyac Jçanenciete necessariodela concienciaren examinatcia, eta bekhatuyen gainian erreflexione Eguitia.

*(page 2)*

Cer Eguin cien bada haurprodigoac? eramaitencien bici Infame eta miserabliac confunditcendu ete bere baithan Sartcenda .. Erraitendu, cer arinis hemen, eta cer estatutan causitcen-nis? Banien aita bat hanits maitenindiena, eta harenganic Separatu (nis.) Certaco? neure natura corrompituyaren contentatceco, placeren eta axeguinen hartceco .. consideratuya ninçan Etcheco haurab(…) eta orai asquen Sehia nis, urden beiratcera obligatuya - ungui neurituya-ninçan, gauça guciac abondancian nitien, eta orai gossiac hilcen nu... Malurus-niçana, ce Eguinendut? - Itculico nis ene aitaren etcherat, Eta barkhamendu galdeguinen du(…) horra harc eguin-citien errefkexioniac ...

Cer Eguincien madalenac? Erreflexione Eguincien bere bici gaïstoaren gainian, eta Jesussen misericordiaren gainian oraino eçagutu-etcien gauçaren eçagutcen hassicen; oraino pensatu-etcien gaucen gainian erreflexione eguincien (…) Cer ari-his, norendaco passatcen-

his? hiri gucico escandala his: hire erreputacionia belstuyadun, hire Salvamenduya hiriscutandun? Salvaçaliac Iguriquitcenhau, gracia horres progotchatu behar his ....

Finian eguicie attencione confessioniac Içan behar dien effectuyari, eta Ikhussicoducie examen Serios bat eta erreflexione hanits Eguin beharduciela - nola? Ceren eta Errendatubeharden khundubat baïta: Eta khundu hori errendadaïteque articulu guciac examinatugave? Gaisqui eguin gucien aithorcebatda circonstanciequin, bere buruyaren contra Eman behardien Juyamendubat da, çoin hautsia Içanenbaïta *(page 3)* Esbada Justoqui emana. hortic Ikhustenducie esdaîtequeela Sobera precocione har trompatuya esIçaiteco..

Norc ere baîtu khundu handi bat errendatceco, haren examinatcen Seriosqui hastenda: orobat behartutcie ~~seriosqui~~ cien bekhatu guciac seriosqui examinatu, eta beharden dembora hartu action hndi eta Jmportant horren ungui eguiteco: ceren eta esbadutçie cien bekhatu guciac ungui Examinatcen, confessorraren absolucionia Jnutila Jçanenda, Sacrilegiobat Eguinenduçie Satan çienbaithean Sarthucoda ..

Bainan ceren gainean examinatuco guira et erreflexione eguin behardugu confessione hon baten eguiteco?

Beharciete Examinatu Jaincoaren manamenduyen gainiena eta nola manamendu hetan Jaincoac gauça batçu ordenatcen baititu, eta bertce gauça natçu defendatcen, articulu horien gainian beharciete examinatu .

Lehenbicicoric Jaincoa adoratu ~~baharducie~~ cerbitçatu, eta maithatu beharducie cien bihots gucias. Eguiten ducie? offritcendiotçacie cien pensamendu, eta cien actione guciac? haren gloria cherkhatcenducie cien actione gucietan? haren borondatiari Soumetituyac-ciete cien afflictionetan, nahigavetan? baducie harendaco Içan beharducien confidencia?

biguerrenecoric Jaincoac defendatcendautciete Juramenturic eguitia.. Esducie cien bicitassunetan, solacetan, tratuyetan Juramenturic Eguiten? Jaincoac ordenatçen dautciete Igande besten Sanctificatcias: Sanctificatcentutcie? *(page 4)* Egun Saindu hec Jaincoaren ohoratceco, eta laudatceco consecratuyac Içan arren, Escirete egun Saindu hetan placerari, axeguinari ossoqui Largatcen? esducie egun Saindu hetan berce egunetan  baino anhits guehiago Jaincoa offensatcen, Iduri egun Saindu hec axeguin hartceco egunac diela? ~~Etçaucie~~ Iduri meça bat Inçun ondoän divertimendu suerte gucien hartcia permis-çautcietela? trompatcen-ciete, Egun hec establituyac dira Jaincoaren adoratceco, es gure passionen contentatceco.

Lauguerrenecoric *(sic)* Jaincoac ordenatcendautciete aita amen errespetatcias,: esdioçute erespetuya galcen Esciete heyencontra alchatcen? esditutcie Jdorqui, gogorqui tratatcen?

bortx-guerrecoric defendatcendauciete Nehoren hilcia; herraric, exaigoaric nihorendaco Jçaitia, betceren faltes defautes, Jmperfectiones minçatcias; Esciete ardura bekhatu horietan erorten? esducie minçatceco placeranga(tic) cien laguna medisencias larrutcen?. Esducie cien bihotcetan Exaïgoä, herra neuritcen?

Defendatcendautciete oraino berceren ontasunaren hartcia eta atchiquitcia: Esducie hartcen edo atchiquitcen daquiciela? esducie Jnjusticiaric, tromperiaric, falsaqueriaric Eguiten?
Defendatcendautciete oraino Lohiqueria guciac: esducie behatce deshonestes, hits deshonestes, Hunquitce deshonestes manamendu hori hausten? divertimendu deshonest eta bilçarre lanyerosetan *(page 5)* Esducie cien bihotçac corrompitcen, cien Jspirituyac arintcen? ~~divertimendu heyen~~ ondoan esducie othotcen eguiteco gustuya galcen? cien spirituyac esdira~~guehi~~ divertimendues ceruco gauces baino guehiago occupatuyac? Helas! Maxima Jaincoä: madaricatuyac conbat arima Jesus cristoc bere odol preciatuyas Erosiac, esducie Jfernuya behera Jgortcen!
Çonbat bekhatu ô Ene Jaincoa materia horren gainian!
... Horien ondoän Examinatucociete eliçaco manamenduyen gaïnian çaspi bekhatu capitalen gaïnian, eta cien estatuci obligacionen gaïnian .. Ciec aïta amac goärdia handia bat Eguinbeharducie cien hauren gaïnian : nun Jbiltendiren, cer Eguitenduten, sacramenduyetarat hurbiltcendienes. naüsi Etcheco anderec artha bera Jçan behardute beren Sehies ~~gaïnian~~ .. horra ceren gaïnian beharducien cien conciencia Examinatu coinfessione hon baten Eguiteco eta Jesus cristoren dignequi Errecivitceco. ...
Esda asqui bekhatuyen Eçagoutcia, bainan oraino bekhatuyen gaïnian erreflexione Eguinbeharducie. !O! Ene Jaincoä nor orhoitcen otheda bekhatuyes, Eta norc Eguiten-othedu heyen gainian erreflexione? çure haurec bekhatuya bekhatuyaren gainian Eguitendute, eta esdira orhoitcen çuri Eguitendaïtçuten Jnyurioes eta Jnsolencies, çure belduric gave largoqui bicidira ..; Jainco handia cer dioçu bekhatuya eçagoutugave Laçoqui eta largoqui bicidirenes Eta bekhatuya Eçagoutu *(page 6)* Nahi Esdutenes? Barkhatucodiotçaçute Jonsolent *(sic)* heyec Eguitentusten bekhatuyac?
*(Les lignes suivantes entre barres sont barrées d'un grand X)* /Nahinuque Jaun and. neure bihots gucias barkhalitcacien: Baïnan cien faltas Bekhatuyac Eçagutugave confessatcen baciete, çien confessionne guciac gaistoäc sacrilegoac Jçanendira Satan cien baithan Sartucoda .../
Goärdia Jaun and. Jaincoa prestda bekhatoriari misericordia Eguitera, Bainan cer condicionetan?
Nahidut gracia eguin ene populuyari, bekhatores pietate Içanendut, barkhatucodiotet: Bainan huna cer Eguin behar duten: confessabitçate Eguintusten faltac orhoitbites eguin daïstaten Jinyurioes: eta Jauna esbadira orhoitcen berenfaltes edo esbaïtuste eçagutcen beren belhatuyac berconciencia es ungui Examinatus, edo çure ministroac es Sinhetxis, esdioçute beras barkhatuco? Es dio S.t augusti(…) Confessoraren absolucionia Jnujtila Jçanenda ....
Ene bekhatuyec aldegucietaric setiatuya naucate : buruyan bilo ondo becen bat badut: helas! Ces Eguinendut? Bihotçac escas eguitendaut, troubliac eta Jci-aldurac sesitunute .. esdut gauçabat baicic çoinec esperança emaïten baitaut, çure miseridordia ene Jaincoa: Jauna nitas pietate Jçançaçu; laguneçaçu ene bekhatuyec artiquinuten Leïcetic Jalguiten ...

Erraitendautciet Jaun and. Jaincoac misericordia Eguinenendiela bekhatoreï, baldin conciencia ungui examinaturic *(page 7)* Eta bekhatuyac Eçaguturic, harcen badute borondfate fermubat bekhatuyaren quitatceco, .... çoinda borondate fermu hura? huna adineçacie ...
Confessione hon baten Eguiteco borts gauça behardira
Lehen.$^{coa}$ concienciaren ungui Examinatcia: 2.$^{coa}$ Jaincoä ceren offensatu dugun damu baten Jçaitia: 3.$^{coa}$ bekhatu gucien humilqui confessatcia 4.$^{coa}$ bekhaturic guehiago es eguiteco chede fermu baten hartcia 5.$^{coa}$ Jaincoäri eta gure lagunari satisfatceco borondate eguiasco baten hartcia ....
Bekhatore batec penitenciaco Sacramendura hurbildu baïno lehenago, bere bekhatuyes eguiasco dolu bat Jçanbehardu dolu hura esbadu sacrilegiobat eguitendu .. helas! doluya ala raro baïhis! hainda raro nun Eliçaguiçon savant batec Erraiten baitcien anhits penîtent damnatcendela .. badia ungui examinatcendiernac, bainan gutida dolu hura dutenic. bisuitartean hainda necessario, non hura gave esbaiteçaqueguque *(sic)* bekhatuyen barkhamenduya Jçan .. Cer progotchudu penitent batec bekhatuyen confessatcia, esbaitu quitatcen, esda asqui quîtatcia, behardu oraino Jaincoari marcatu tristecia seindu bates bere Jnsolencias doludiela.
Bainan cer Eguin beharducie bekhatuyen dolu Jçaiteco? huna: dolu haren çien bihotcetan sor-arasteco capabledien motivoäc dira: lehenbicicoä Jaincoaren hontassuna eta haren miseridordia. Ene anayamaitia, Curetacoda Jaincoa hon *(page 8)* eta misericordiosoa, çuretaco hnaren misericordiac luçatudu çure galceco dembora; Lehenbicico bekhatu mortala eguin cinien mementoän damnatuyen heroncan Eçarri ahal cinitusqueelaric, tormentasco lekhu hartarat artiqui ahal cinitusqueelaric, louçatudu merechitucinien gastigu garatça. Certaco? Nahis conberticiniten .. esda ungui hona eta misericordiosa lurraren gaïnian usten eta soffritcen - citienas gueros punitugave hanibertce *(sic)* aldis hura ohhensatu duçun arren, hainbertce aldis haren contra alchatu ciren arren? hontassun horrec, misericordia horrec escintuquete ekharri behar çure bekhatuyes dolu eguiasco baten Içaitera? -
Ene ana *(sic)* maïtia, bekhatore malurusa, bihots obstinatya Lehenbicico bekhatu mortala eguincinienian hil bacine diela hilabethebatn, urte bat, bi urthe, hamar urthe, hogoï urthe, berrogoï urthe, nuncinitaque oraï? - memento huntan hil bacinite norat Joän othe cinitasque? helas! m. f. Jkharacited., transicite .. bada Jfernuyan milion bat guiristino biga edo hirur bekhatu mortal eguin ondoan hildorfenac .. -
Nescatcha gaste hura hilda borts edo Seï aldis guiçon gaste harequin desonesqui Eguinic, behatce deshonestac placer Eguinic, hunquitce deshonestac eguinic. guiçon gaste hura hilda pensa-mendu Infame bati consentituric .. berce hura hilda ohoingoä bat eguinic. bertce hura hilda hordiquerian behin eroriric .. eta çu miserablia certaco escitu Jaincoac *(page 9)* lehenbicico bekhatu mortalian hil? badu beharbada hamar urthe Esduçula confessione hon bat Eguin, eta tranquil-cira.

Cer Jguriquitcenduçu conduita berribaten hartceco? Jaincoac gastiga artinocoan Iguriquitcenduçu bekhatuyaren quitatceco? Erhocirena! esbaduçu orai sainditcen çure Erhoqueria, seinditucoduçu progotchuric Jçanen-esduçun dembotan .. goardia Eguiçu guiristino obstinatuya; Jaincoac guehiago Ecin Soportatus çure fanfaronqueriac Jdequicodu Jfernuya çure oinen aspian eta han sarthucocira seculan handic es Jalguiteco .. orduyan oihu eta marasca Eguinenduçu orai handirenec Eguitenduten - beçala bainan Jnutilqui ..
Helas! malurus niçana eta bethi malurus Jçanen-niçana Cer pensatcen-nien hainbertce avertimendu salva-garri Emaiten çaistatenian, hainbertce Exemplu hon beguien - aitcinian-nitienian, heinbertce Jnspiratione saindu cerutic Jçaiten-nitienian? cer pensatcen-nien ene conduita Laçoa eta gaistoa dela causa concienciac Erreprotchu saminic baicic Eguiten-esçautanian? Salvatceco bide guciac Jdequiac-nitien, eta nihaurec ceratuitut, Salva-naindequeen eta esnis Salvatu .... Errandautçut badiela beharbada hamar urthe esduçula confessione hon bat Eguin, eta Jaincoac sofritcencitu punitu gave ..
Ikhussaçu, miserablia, nolacoa Jçanbeharden cure doluya, Ceren Jaincobat hain hona, hain misericordiosoa, hain patienta ofensatu duçun çoina hainbertce dembora huntan oihus bautautçu *(sic)*,
*(page 10: variante de la page précédente)*
lehenbiciko bekhatu mortalian hil? hogoï-eta hamar urthe huntan baharbada bekhatu mortalian bici-cira et tranquilqui bici-cira.
Helas. ene anaya maitia Jfernuco penec escituste hunquitus Ikharatcen ceren esditutçun frogatcen: Jynenda dembora bat, çointan frogatuco baititutçu, baina prorogotchuric gave.
Pena heyen Seinditcen hastencienian hura Seculaco Jçanenda orduyan eranenduçu sinhex gogor bat, erhobat Jçan-niz trompatu nis
Jaincoac miraculubates çure aitcinian Jdec baleça Jfernuya, adicinitçaque çu beçala munduyan çonbait demboras Jbilidien guiristinoac oihus eta marascas madaricatcentustelaric bere aitac, bere amac, ~~bere adisquidiac ostalerac~~ ceren libertate sobera emandaëten *(sic)*, - madaricatcen hut hi ama munduyan eçarrinuna, madaricatcen hut hi adisquidia placerac Segui-araci daïsta-yana, madaricatcen hut hi ostalera hire Etchian divertimendu debecatuyen hartcen Soffritununa ..
Jainco handia esbadaüçu nahi Jfernuya Jdequi, bekhatorec eta sinhetx gaitcec hango tormentac Jkhasditçaten bederen Jainco hona arguitçaçu bekhatuya eta bekhatuco occasionea eçagut-deçaten, eta eçaguturic evitadetçaten .. Errandautçut badiela beharbada hogoi eta hamar urthe bekhatu mortalian bici-ciela, eta Jaincoäc oraino soffricen citu lurrarengainian punitu gave ...
Jkhussaçu bekhatore gaichoa, Jkhussaçu nolacöa Jçanberden *(sic)* çure dotuya ceren Jainco bat hain hona, hain misericordiosa hain pacienta offensatuduçun, çoinec hainbertce urtehuntan *(page 11)* Solicitatcen baitcitu pressatcenbaitcitu çure bekhatuyac Eçaguturic confessione hon baten Eguitera çoaçaen .. Cer Eguindautçut ô ene Jaincoa, cer Eguindautçut

hontassun horien misericordia horien paciencia horien Enetaco Jçaiteco, çoin esbaituçu Jçan berce anhitcendaco .. Salvaçale adoragarria favore hori gracia hori cure misericordiari çordiot: hainberce punituduçu Lehenbicico bekhatu mortalian, eta ni oraino soffritcen-nuçu Eta Jguriquitcen nuçu penitencia Eguindeçadan ..
Guiristino Jngrata, traidorea çure bihots gogorra Erhauts bilhacabedi dolus ceren, Ceren Jainco hon, Jainco miseridordios, Jainco pacient hura offensatu duçun ...
Biguerren motivöa çure bekhatuyes dolu Jçaiteco, da heyen Jtxousitassuna, eta heyen crudelitatia .. bekhatu mortala eguitenduçunian, Jesus cristo çure baithan kurutceficatsenduçu çure bekhatuyes çure Salvaçaliari eriotcia emaitenduçu bekhatu mortala Eguitian çure baithan causitcendira acotiac çure Salvaçaliaren acotatceco, elhorisco khoroa haren buruyan Sartceco, Jtciac, eta marteiluya Khurutciari haren Jtçatceco, lança haren Sahetsaren cilhatceco .- çure bekhatuyen effetu triste horiec consideraditçaqueçu eguiasco dolu bat hetças Jçan-gave, sainduqui tristatugave? Seguiçaçu San paul, çoin bere bekhatuyes ardura orhoitcen-baitcen dolu handiagobaten Jçaiteco ... gaistaguin bat Içan-nis *(page 12)* Jçan-nis, Erraitencien: bekhatoreric handiena ni-Jçan-nis: Jesus cristoren eta haren eliçaren contra alchatu Jçan-nis, eta Jaincoäc misericordia Eguindaut ...
Bainan Jaincoäc misericordia eguin-bacioyen, certaco bada bekhatuyes hain ardura mincatcencen? certaco? hetas-cien doluyaren bethi berritceco ...
Jaincoären graciac manera hortan bekhatorebat hunquitcen dienian, confessabedi apes aprobatubati bere bekhatu gucies desguisamenduric gave . diot desguisamenduric gave, ceren-eta anhits penitent baîta, çoinec, David Erreguiac dioyen beçala, beren bekhatuyen tipitceco erraiten baitute tentacione biolenbatec Eraguin-aracidiotela, bercec occasione emandiotela Eliçaco San gregorio aita bat pleinitcencen holaco penitentes, eta eçagutcencien perfeïtqui guiçonaren bihotçaren malignitatia Erraitencienian bekhatoren usaya ordinarioacela Segueretqui bekhatuyaren eguita *(sic)*, eta eguin ondoan estalcia edo oukhatcia eta guissa hortan emendatcia, nombriaren handitcia estalis edo oukhatus ..
Jaincoäc erreprotchatucien adam ceren haren defensaren contra Jan-cien frututic, eta harc humilqui agoatubehar bidian bere falta, evaren gaïn eguin sien, Erraitencielaric çuc emandautaçun emastiac fruïtu devecatutic Jan-araci daut ... horra, cer erraiten duten oraï-ere penitent batcuyec Confessorari coleratu-nis, bainan cherkhatu-nute, lohiquerian erori-nis bainan Emastequi harc bere Jrries, hits esties, Entrada ederras eroraraci-nu; divertimendu Eta bilçarre lanyeros hetarat *(page 13)* hartara Joaiteco gogoric Esnien, gaste lagunec Joän-araci-nute .. Beras esducu çuc bekhaturic Eguin, unguida tratatuya Jçanencira merechiduçun guissa, berciac Jçanendira absolvituyac eta es çu, bercec Jçanendute Sacramenduco gracia eta es çuc ... Çoas malurusa çure Jnocenciarequin Jaincoäs esda hola trufatubehar aithorçaçu coupable-ciela, aithorçaçu humilqui çure bekhatuya, eta orduyan errecibitucocitugu ..

Finitcendut Jaun and. Erraitendautcielaric bekhatuyen quitatceco eguiasco borondate bat Jçanbeharduciela Ecen cien borondatia esbada fermuya, cien confessione guciac Sacrilegoac dira: Nola? ceren eta cien bihotçac bekhatuyari estecatuyac baïtira ...
Bainan nola Jçan-deçaquecie borondate fermu hura Esbad*(...)* bekhatuya Eçagutcen? eta nola eçagutucoducie bakhatuya Jaincoaren ministroäc esbaitutcie Sinhesten ?
Jainco adoragarria, cer Içanenda çure haur gaichoës oraï nic çure partes errandaistedan gauçac esbaituste Sinhesten eta Seguitcen, utcicoitut bere Sinhex gogorrian eta egun bates eracoutsico diotet cerden nic establitu-nitien ministroen hitcen es Seguitcia ene partes minçocirenas gueros .. Ene anaya maitiac erequirit-cen-citustet Jesus cristoren partes gure hitcen Seguitcias, çoinec ciendaco odola Jchuribaitu, ciendaco *(page 14)* miseriac, provreciac, persecucioniac Soffritu Jnocent-celaric Jainco-celaric, çoinec handisqui maite baicituste; eta nahi du ciec ere bekhatoros-cietenas gueros bici mortificatu bat Eraman deçacien occasione lanyeros gucier Jhes Eguines Ceruyan egun bates harequin glorios Jçaiteco…

a

## *II*

*(Sans titre, feuilles plus grandes, à demi pliées, reliées de fil blanc; écriture grosse, penchée; les points de suspension en italiques et parenthèses représentent des passages effacés ou illisibles)*

*(au verso de la feuille de couverture, écrit en travers, premiers mots soulignés:)*

Ecce nunc tempus acceptabile ecce nunc dies salutis.

huna nun den dembora hautatuya; hun nun den salvamendusco eguna.

hala nola esbaita demboraric, ez egunic ez gauric bekhatu eguitia eta In *(...)* bekhatiac damnatione eternala merechiarasten dacona guerostic *(...)* J[n] maithatceco eta Gure salvamenduyaren eguiten travaillatceco guissa estenic, *(...)* Bainan halaric-ere ap. erraiten daucu egungo evangelioan, gariçomaco dembora dembora gucietaco hoberenadela norc bere Salvamenduyaren eguiten travaillatceco, ceren eta han baita gure bekhatuyaren barkhamenduyaren ardiexteco, justitia divinoaren satisfatceco, eta Gratia ontassun ispirituales bethetceco eta aberaxteco ordenatia eta emana beras huna non duen dembora hautatuya. ecce nunc tempus etc.

Dembora huntas ungui baliatcen esdenac jaquin ahal deçaque arriscutan et periletan *(...)* berris hortaco occasione baten esiçaiteco eta hunen faltas damnatione eternalaren *(...)* ducie beras bat bercearen int*(...)* eta progotchia orai sartug-- gariçomaco demboran *(...)* *(page 1)*
tunc ductus est in desertum a spiritu ut tentaretur a diabolo. -
Matt. Cap. 4

Orduyan Jesus guidatuya içancen Deserturat Jspirituas, tentatuya içaiteco han deabruyas. Matt. Ch.. 4.

Gure ordenarioada guretaco progotchos diren gaucen hastiatcia, eta gure ganic heyen urruncia; et guretaco caltecorr dien gaucen desiratcia, eta cherkhatcia. Hortic jitenda ecin soporta baititçaquegu khurutciac, tentationiac eta humiliacionia, hain progotchos eta necessariodielaric guretaco.. fediac eçagutarastendu horietan datçala gure hona, eta borondatia ekhar arasten horien desiratcera eta maithatcera horiec eguin behardutelacots gure seculaco hurustassuna; bainan gure natura corrompituyaren pendurec, inclinationec, eta passionec ekharasten *(sic)* guituste gure honari oposatcera. hits bates badaquigu certaric helduden gure hona, eta nahi dugu hura bera, bisquitartean contra eguitendugu. Nahiguinduque khurutcen merechimenduyac içan, bainan ecin determinaguitasque merechimendu heyen içaiteco penen soportatcera .. Helas! ala lachotasun hori communa baita guiristinoen artian eta galarasten baitio hanits malurusi ceruco primança handi hura eta seculaco malura Merechiarasten !

Eguicie attencione, eracutsico dautciet khurutcetaric, eta tentacionetaric heldudela gure hurustassuna: 1 P.. eta khurutciac es unxa errecevitus eta tentacionetan Eroris Jytençaucun malur handia 2 P. -

Adamec. Ja. esbalu desobeditu, fruitu defenditutic esbaluJan esguinien içanen khurutceric, ez miseriaric, es tentacioneric, mundu huntan bici esti eta tranquilbat eremanic, hilgave sartucoguinen ceruyan han na*(...)* hordituyac içaiteco bethi; bainan bere desobedien *(...)* usca*(...)* gucia. *(page 2)*

Bide estibatetic Joan behar bidian ceruco glorioara, bide gaistobatetan sartu behariçanda, çoin baita khurutcesco, eta tentacionesco bidia. eguiada beras bekhatuyaren ondoan cerurat guidatcenguitien bidia, bide gaitçadela, eta seculan esguiela bide gaits hartaric baicen cerurat arrivatuco. Jaincoac hola ordenatu du .... -

Munduco Jende guciac sortu dien mementotic soffritcera condenatuyac dira; aflictiones, khurutces, eta tentaciones ingouratuyacdira estatu gucietaco, conditione gucietaco, adin gucietaco Jendec khurutceco eta tentacioneco bide gaitça seguitubehardute ceruyan sartceco. Batcuyen khurutciac eta tentationiac handiagoac dira bertce batçuyenac baino.. J.c Indarren eta beharren aravera emaitentu guciei graciac eta langunçac *(sic)* emaitentu orobat khurutcen Jassaiteco eta tentacionen bencutceco; eta baldin erorten baguira, galcen baguira gure faltada, ceren eta J.n graciac asqui abondantac eta lagunçac asqui puchantac baitira gure pena eta difficultate gucien garaitceco. Obligatuguira bekhatu mortalen penan sinhestera gure khurutce eta tentacioniac esdiela gure Jndarrac baino Goragocoac ....

Diot tentacionia *(sic)* progotchos diela guretaco. ikhusten dugu hori liburu Sn. Job daquicien beçala tentuya içanda eta haren tentacionia biolentacen ... Guiçonac mundu huntan delivera

ditçaqueen gauça gucies goçatcencen; ontassun handiac citien, ossassun hon batcien, ohoratuyasen, familia charmant batcien, biciestibaten eta agreable baten eremaiteco behardien gauça guciac bacitien ... bainan bacien gauçabat horiec guciac inifinituqui estimagarriagoa *(sic)* justuacen eta Jn adisquidia Satanec galdeguitendio J$^{i}$. haren tentaceco permissionia içaitendu permissionia Eramaiten diotça egun bates ontassun guciac, aurtiquitcentu *(page 3)* haren Etchiac, hilarastentu haren haur guciac, inspiratcendu haren emastiari eta haren adisquidei haren insultatcia bere miserian, eremaitendio ossassuna çauri bates estalcen du haren gorputça.... guiçon saindu hura içancen ungarri meta baten gainian etçatera, han dupina hautsi pochi bates khencen citien bere çaurietaric materia eta harrac .. Ó estatu tristia eta tentacione terriblia! Satanec uste cien moyen horres desesperacionian Sarraracicociela, bainan trompatucen, malur handi horietan paciencia Miragarribat eracutsicien, Jn icen sainduya benedicatcen cien; bethi hari sumetituyacen, galducocen beharbada bere hurustassun handiaren erdian tentacione hori esbalu içan .... Eleazar handia eta Caspi anaya macabeac bere amarequin at *(sic)* irritatuyac içancien bortisqui Jn leguiari errenunciatceco. Erregue antiochussec prometitcencen *(sic)*, ontassuna, ohoriac, placerac, nahi baçuten hari obeditu/ Ikhussiric promes horiec inutilciela, Soffriaraciciosqueten suplicioric crudelenac, deusere escen capable heyen khambiarasteco: biciac emancitusten leguiaren sostengatceco. =

J. C. hiles gueros sainduyec cer estute soffritu haren leguiaren sostengatceco, lausengus eta mehatchus nahicioten J. C.$^{n}$ leguia quitaraci: bainan trufatcenciren gucies, Constancia eta fermutassun handibat eracutsi içandute bethi: Nahicitusten bere fermutassunetic urruntaraci ontassun handiac, ohoriac, khargu handiac, esconça ohorescoac oferitus. bainan Munduco charma hories cassuguti eguiten çuten Gauça horiec inutilciela icustençutenian emplegatcensitusten harma Çorotçac eta suya heyen tormentatceco soffriarascieten doloreric çorotcenac.

Batçu erriac icandira emequi emequi, bertce batçu segatuyac; batçuc içantuste gorputceco membro guciac pikhatuyac, bertce batçu larrutuyac içandira biciric ...........*(page 4)*

Berçalde Çombat guiristino perfeit eta garxu guiçonen eta emasten artian curayosqui hanits afflictione souerte soffritudutenac, barurac, desertuyac, beilac, othoitçac, travayluac, penitencia luciac eta gogorrac, tentatione biolentac; miseriac povreciac, hits bates bertutia praticatudute bere buruei bortcha eguines ....... Çombatec esdute J.C.$^{o}$ ontassunac, esconça avantailosac eta ohorescoac, bere osagarsuna eta bicia sacrificatu usteducie esdutela bere burieyi biolenciac handia eguin horietan gucietan? Jçanda jaun handiric bere ontassun handiac, carguyac quitaturic deserturat Joandenic, edo comentuyetan sartuiçandenic. Salvamenduyaren hobequi seguratceco.

J.C. eracoutsidiote bere salvamenduco etsayen hola bençutcen eta bere buruyen garaitcen. badaquicie salvaçale maite hura guidatuya içancela deserturat tentatuya içaiteco

han debruyas. hortic hassicien bere bici publicoa nahiçaucun eracutsi nola beharguinien defendatu Debruyac attaquatcenguitienian ...

Satanec proposatucien J.C.i, eguincecan miraculubat, harriac oguira conbertitus bere gorputçaren soleitceco, sofritcencien gossian berogoi *(sic)* egunes eta berogoi gaures *(sic)* deusere Jangave barur eguin ondoan: Guero satanec eremancien Jerusalemeco temploaren thinira; Errancioyen aurticceçan handic lurrerat bere buruya, aingueruyec sostengatuco çutela minic har esceçan, manera horres erreputacione handibat ardiexicociela. ereman cien oraino mendibaten thinira eta içancien ausartcia Jesusi erraiteco nahi bacien adoratu emainçascola handic ikustencitien lekhu guciac ...... - . -- . -- . _ ...

Horra J. and. hirur tentatione ordenarioac eta landerosenac coines deabruya cerbitçacen baita guiçonen galceco. Erran nahi da Gormandiça, haraguiaren placerac, ohoren amodioa eta lurreco ontassunen gutitia injustua, bainan *(page 5)* harma Jspirituales cerbitçatu beharda J.C. beçala deabruyaren ihesi igortceco. Coin dira harmahec? mortificationiada placeraren tentationiaren bençutceco. povreciaren amodioada ontassunen desir injustuaren bencutceco. harma hories cerbitçacen baguira, ihesi igorrico dugu deabruya.

Horra nola tentationec, sofricarioec, eta khurutcec alchatuitusten Sainduyac perfectionera, eta guero cerurat: beras tantationiac eta khurutciac progotchos dira guretaco, harma ispiritualac hartcen baitugu horien contra. doctor saindu batçuyen aravera, tentatione eta khurutciac salvamenduyaren marcabatçudira apoplexias halacatuyaden guicombati esdio bere gaitça seinditcen hilceco punduyan ere, bainan inharostenbadute bortisqui, eta erremedio emaiten badiotçate hassicodaseinditcen, eta pleinitcen :-

Orobat dira bekhatioriac, bere habituda criminelen tomban ehortciac beçala dira, passionec edequidiotçate sendimendu ispiritualac, esdute aditcen es ikhusten, eta bisquitartian heriotce eternalbaten borthetan dira, Erremedio bortitçac behardira heyen iraçar-arasteco. Coin dira erremedio bortits hec? Khurutciac, sofricarioac eta aflictioniac, bainan Malurusqui heyendaco erremedio salvagarri horiec ecin sofriditçaquete eta horiec ungui es hartus galcendira, ifernuyan sartcendira; helas! bekhatoria maithaitçaçu erremedio salvagarri horiec .. eguiçu Ji othoits hemen gastigatcitçan; hobeduçu mundu huntan soffritcia ifernuyanbaino, hemen sofrituric J.ª benedicatuco duçu Ceruyan, sainduyec orai benedicatcenduten beçala; Çoin khurutcec guidatu baitutuste cerurat ...........

Khurutcec ikharatcen guituste: bisquitartian Çombat bekhatore esdira Conbertitu eta sainduqui hil khurutcen medios ... Nun litasque orai J.º misericordiosac heyen placer infamiac esbalitu interrompitu afflictioniac igorris? Çombat eri gaicho hanits demboras sofrituric salvatu baitira çoin damnatuco baitciren osagarsun handibat içan balute. Çombat esda urte Crudel batçuyetan hanits lekhutan Miserias Gosses hil eta salvatu çoin galduco baitcien içanbalira abondancian - *(page 6)*

Orai eçagutcendute, J.ª erremeciatcendute, eta laudatcendute Guciec Ceren esditien aditu penetaric libratcias edo bederen arincias othoisten çutenian ... orai khantatcentuste hits charmant eta maythagarri hauc: ene arima escapatuda munduco langeretaric; haren hun falsuytaric placer troperetaric choria chederetaric beçala; sariac hautsidira eta gu escapatu gira .. ============ - . -
ikhus deçagun tentationen lanyerac eta guiçona tentationes garhaituya

2. P

Deus ere esda miragarriagoric, eta consolagarriagoric tentationen garaitcia, khurutcen kharayatcia eta aflictionen pacienqui soffritcia baino, ceren eta guiçona manera horres alchatuya baita ceruco glorias goçatcera. deus ere tristiagoric eta desolagarriagoric tentationes garhaituya içaitia, khurutces, eta aflictiones usaya gaistobaten eguitia baino; Ceren-eta manera horres bekhatuco statu icigarrian sartcen baita guiçona, eta seculaco malurrian erortcen. Cer diferencia tentacioniac garhaituitusten khurutces, eta aflictiones usaya honbat eguin duten, eta tentaciones garhaituyac içandiren khurutces eta aflictiones usaya hon bat eguin esduten guiçonen artian ... Batçu purificatuyac, eta garbituyac içandira bekhatuyaren tatcha gucietaric tentationen eta khurutcen medios, eta alchatuyac Ceruco gloriara; eta berciac confondituyac, hastiagarri errendatu dira, tentaciones Garhaituyac içanic khurutces eta aflictiones usaya gaistobat eguinic ..................
Estona-garrida çoin guti asqui den guiçona tentationes garhaituya içaiteco, Jandone Joanec eracoustendaucu hori manera hunquigarribates. Dio Jkhussiciela Dragoinbat bere bustanas içar hanits cerutic jalguitenciena: escen ahoas, es astapares hortacos cerbitçatcen, bustana choilqui emplegatcencien coin baitcen moyenic flacuyena .. Dragoin hori deabruyada çoinec ardura moyen flacuac emplegatcen baititu guiçonic prestuyenen, çuhurenen Garaitceco .... - . -

*(page 7)*

Deabruyac badaqui bere experiencia proprias çombat flacuyaden creatura; banitateco tentacione batec ifernurat aurtiquidienas gueros bera eta hala. moyen bortitcic esdu emplegatcen ardura guiçonen garhaitceco. badaqui tentatione tipiac, arinac ardura lanyerosago diela, ceren eta casu guti eguiten baitute guiçonec tentatione arines .........................................

Adam guiçonic perfeitena, eta Savantena Jnocenciasco estatuyan Creatuya, deliciosco lekhubatian plaçatuya, ataquatuya da tentationas bainan cer tentationes? tentatione chimple bates. emastiac presentatcen daco J^c^ defendiatuduyen fruitubatetic: Complesencia arinbates ekharastendu Jaincoaren manuyaren haustera, jaten du fruitu hartaric, eçagutcencielaric seguida terrible batçu frogatucocitiela. esda hori estonagarri ......... -

Sanson Guiçon indarxuhura çoinec astobaten macelheçurras hilbaitcitien bi mila guiçon ungui harmatuyac, çoinec hirietaco portaliac bere goncetaric atheraric eremaiten baitcitien mendietarat - garhaituyada es etsayesco armadabates, esetare bere indarren pareco guiçonbates, bainan emastebaten charma flacuyes .. Dalilarendaco cien amodio cikhinac Erranarastendio buruco biloetan diela bere indarra. emastequi harc trahitcendio *(sic)*, pikhatcen diote biloa eta galcendu indar handi hura, hartcendute, beguiac lehertcendiotçate pressondeguian Ceratcendute, hartas trufatcendira, irrieguitendute, eta guehiago baita J-s abandonatuyada. Ô amodio Caltecorra! ................
Erregue David eta Salomon haren semia tentatione arimbatec iduris aurtiquicitien estatu triste, eta terrible batera. esçuten Deusen escassic, bisquitartian passione brutal baten seguitceco, sacrificatuçuten bere erreputationia eta bere conciencia. David prophetacelaric, Jn adisquidia celaric adulterobat, guiçon hilçalebat eta traidorebat bilhakhatcenda. Salomon guiçonetan cen çuhurrena erortenda statu mespreçagarribatera bere lohiqueries eta idolatrias ....................................... *(page 8)*
judas apostoluyen nombrian cen. J.en compagnian hirur urtes bici Jçancen. avariciosco tentationebatec hatacatcendu garhaituyada .. actioneric lachoena eta icigarriena eguitendu J.C. bere nausi hona salcendu hogoi eta hamar diru pecendaco.

Cerc eroracicien *(sic)* Jandone petri apostoluric curayossena aportoluyen princia, Garxuyena? Nescatobaten hits batec. Ô guiçonaren flaqueça ala handia baihis! _________
Cerc erroracitu *(sic)* hainbertce guicon handi jaquintassunes bethiac çoinen erroricoac iracourtcen baititugu historio eclesiasticoan - cerc Garhaituitu dembora luces sainduqui bici içandien solitario hec mendietan, desertuyan? Cerc galcentu oraino orai hainbertce presona prestu, devot, arguitu Çoinen bicia conduita edificagarria baitcen, cerc galceintu eta aurtiquitcentu ifernurat hainbertce guiristino, adin gucietaric eta conditione gucietaric?

= Helas jaun and. lohiqueriaco tentationebatec, mundu huntaco ontassunendaco estecamendubatec, Jn graciaren mespreciobatec, presomptionebatec, Jn inspirationei erresistentiabatec, amodio propiac, negligenciac, laçaqueriac, epeltasunac: falta arinetaric erortendira emequi emequi falta handitan çoinec guidatcen baiqtitu *(sic)* seculaco malurera........

Consideratcen baitugu gure eroricoac Conbenitucogira gauça arinec, esdeusqueriabatçuyec guidatuguitustela malur handietara, Jn gracien galcera. Çombat aldis esguira colera icigarribatian ustegaves edo deus piçatugave erranicaco hits bat dela causa? Çombat aldis intres tipi bat dela causa ahaidiac, adisquidiac esdira nahasi? esditugu malurus batçu ikhusten bere buruac deabruyei emaiten, juramentu eguiten, bourhueguiten blasfemio eguiten sosbaten balioaren gainian? Çombat aldis propositione edo combitu arin batec, edo araileriabatec

esguituste guidatu jocora, debauchera, hordiqueriara -? Çombat guiristino esdira lohiqueriaric handienian erori, behatce arin bat dela causa, pentsamendu choil bat dela causa ? ........ *(page 9)* Cerdela causa içan dira Colpeca hec, heriotce hec ? ordenarioqui gauça arinbat dela causa, tentatione arinbat dela causa; disputabat dela causa, hitsbat dela causa ................

I. Cer eguin beharda holaco maluretan es erorteco? J$^{n}$ presencian bici beharda. bada guiristinoric bere J$^{n}$ presencian bekhatu eguinen dienic? orhoitcen bada bekhatuyac ifernuco bortac idequitentiela, Ja haren punitceco fudre gucies harmatuyadela instantian hildiçaquete eta ifernuco sugarren erdira aurticdeçaquela, ausartadaiteque tentationiaren seguitcera? Orhoitcenbada, tentationia cassatcenbadu, khoronatuya içanendela, victoria bere passionen contra eremandielacots; Cer curaya esduhartuco tentatione gucien bençutceco? orhoitguiten J$^{a}$ guri behadagoela, eta prestdela ungui eguitenbadugu gure errecompensatcera eta gaisquieguiten-badugu gure punitcera, esguira ausartatuco bekhatu eguitera ....
II. Bigarren moyena tentationiaren cassatceco gure buruyes mesfidatceco, eta J$^{n}$ baitan confidencia ossobaten emaitia. hor-ere bere buruyari fidatus causitcenbaita okhasionetan, han eroricoda miserablequi. beras urrundu beharda okhasionetaric .. eta tentationiac Jytendienian imitatu behar dira apostoluyac, Çoinec tempesta handi bates surprenituyac içancienian, oihu eguinbaitçuten Ji jauna salvaguitçaçu galcera goaci. guc ere oihu eguin behardiogu Jauna beriraneçaçu tentationian Erortetic, beriratucoguitu, baldin ungui galdeguiten badiogu _____

hirurgarren Moyena tentationen Cassatceco, pronqui heyei Eresistencia eguitiada; pensamendu gaistotic ispirituyaren aldaratcia eta pensamendu honetan aplicatcia ... bada Gic tentationia seguitucodienic, bekhatuya eguinendienic, heriotcias seriosqui ardura orhoitcen bada. munduco bicia laburada, desplaceres, chagrines, ~~tenta~~tristecias, miseries bethiada, bici labur hunen ondoan Jc jujatu beharnu, tentatione gaisto hau seguitcen badut, *(page 10)* Bequatuyan erortenbanis, ceruco primança charmant hura galcendut ifernuco pena içigariac merchitcentut, lurra ere oinen aspian idec daiteque, ifernuyan seculacots sartceco, Ja ene aitada ni handisqui maiteniena, determinanaiteque haren offensatcera? Es ene Ja, ene salvatceco khurutcian hilciena, Çure odolas ene arima garbitu duçuna, esdautçut ene epeltasunas, conduita laçoas eta bekhatuyas desplacerac eguin nahi, nahiagodut ene aita maitea mila aldis bicia galdu çu ofensatu baino .....

J.P.S Seguratcenguitu, seriosqui gauça hories orhoitcen-bagira, esdugula bekhaturic eguinen ...

Laurgarren moyena tentacionian es erorteco, okhasionetaric arrunciada. Badira tentationebatçu bençu esdaistequenac ordinariosqui okhasionetaric urrundus baicic: hec dira colera, mendequioa, lohiqueria .... aithordeçagun Jaun-and. erohequeria *(sic)* handibat dela,

gure laçaqueries epeltasunes? Gorputçaren placerbatengatic, untassun pochibatengatic, khearen pareden ohorebatengatic gure seculaco maluraren eguitia ..................

hardeçagun beras eresolucionia, tentatione gucien Contra curayosqui batailatceco, orhoitcenguielaric apostoluyen erranas. Nor-ere ungui batailatucobaita, hura içanenda khoronatuya

- Sofriditçagun pacienqui J[c] igortcen daiscun gaitçac, aflictioniac, Cer progotchudugu khchatcia, khechatus guehiago sofritcendugu, eta gure sofricariac inutilac içanendira Cerucots, eta baharbada criminelac. kharreaditçagun khurutciac guiristino hon guissa, eta Jan. Discipulu Guissa_______________________ *(page 11)*

Eguindeçagun Galvarioco mendian baciela hirur khurutcian Jtçatuyac: bat inocentcen eta huracen salvaçalia, bercebat penitentcen eta huracen ohoin hona, hirurgarrena gaistaguinbatcen eta huracen ohoin gaistoa: badira orobat guiristinoen artian hirur presuna souerte soffritcendutenac bainan dispositione diferentequin. batçuc J.c. beçala sofritcendute inocenciasco estatuyan, bertcebatçuc ohoin honac beçala penitenciasco estatuyan, bainan bada nombre handi bat sofritcenbaitute, murmuratus, pleinitus, coleratus, J[n] icen Sa blasphematus ohoin gaistoac beçala Çoin khurutcian salvaçaliaren saheitsian *(sic)* desesperationian hilbaitcen ...

Jc bere misericordia emandeçagula berce Chortebat ohoin honari beçala, Çoini eranbaitcien egun içanencira enequin

Parabisçuyan Desiratcendauciet

Ec *(voir le texte latin en tête du cahier)*

## *III*

*(Ce cahier relié de fil blanc comme les précédents contient 4 textes différents d'une écriture moins soignée et moins régulière, numérotés par le transcripteur. Il manque au moins une citation avant le début du premier en tête de la page 1. Dialecte plus bas-navarrais.)*

### *1*

*(page 1)*

J.C. hemendic Erran nahi deraucu lurreco on[az] baicic pretentioneric Esduten Jendiac, çuhurquiago manayatcendiela, eta artha GU.·[ho] dutela beren on...·[nez] Ecinez ceruya baicic cherkhatu behar esduten G.c, beren salv.az, Ecic baldin Gc. eguitenbalute Salvatceco ambitiosec Cargu handien irabasten erreguen eta princen aitcinian eguitendutena, segurda ceruyan saindu handibatçu liatequela, Cer pressa eta lehia esdute Mundutarrec beren Eguitecoric Mend.[n] Eguiteco, Esdute menmento *(sic)* bat hura Eguin artian Galtcen, bethi hartaz minço dira eta hartan occupatcendira, nolaco Confusionia eta deshore *(sic)* handia

Guiristinoendaco, daquitelaric ere beren Sal.$^{at}$ dutela Eguitecoric importantena eta hartan travaillatceco sorthuyac direla, hambat ephel eta lacho dira bainan ezdute eguin nahi hartacotz eguin behardutena, hain lachoac eta Ezdeusac dira, non Ezbaitute hartu nahi dremenden pena, Ez cherkhatu beren S.$^{n}$ Eguiteco moyena hura da G*(...)* justuya par*(...)*i Errenunciatcia eta hartaz ukhatcia . -

Laudavit Dominus.

facite vobis amicos demamona iniquitatis *(...)*...

Dudaric Ezda J.c p.$^{a}$ huntan exortatu guituyela probez artha ukhaitera, hargatic Elicaco A.·$^{a}$ Gu.$^{c}$ Scrip..S.quin Convenitcendira J.$^{n}$ amorecatic Eguitenden A.$^{c}$ barkhatcenguituyela bek.$^{u}$ G.$^{c}$ Elemosina+ *(sic)* J. p. S·$^{c}$ dio Cuh.$^{n}$ ahotic, beiratcenguituyela bercaines éguinguinçaq$^{n}$ Bek.$^{n}$ Elemosina Resistet peccatis. Ceren harc ardiexten baitaicu G.$^{a}$ occasioner ihes eguiteco, eta bek.$^{n}$ aurtiquaras Guinçaqueten tent.$^{n}$ g...$^{a}$ hanitz. Jendec asqui on.$^{n}$ Erreb.$^{en}$..te bicitceco eta beharrer parte Eguiteco, bisqui.$^{n}$ bere avaritio G.$^{c}$ esdituste usten bi Eguinbide horien complitcera. berec Jaten eta Ed.$^{n}$tena sobera çaye. dolu eguiten deraye, prob.$^{c}$ ere Soff.$^{a}$ ustentuste ontrassunequin Jossiac Daude ................-.............-

Bada S. Christo.$^{c}$ dio Avariciosa, Ezdela Guiçonbat, ez bestiabat, baicic bietaric moldatu monstrobat, bicidadin ere merechi ezduiena, beren Entretemanduco *(sic)* J$^{n}$ eta Eda.$^{n}$a sob.$^{a}$ Caiconas Guerostic.

Beirautçuye, Gc, Çuyec hala içan, Cerbitçaciteste çuyen on.$^{z}$ Jc. ordenatu bi exempluyetaco, errannahi dut çuyen bici M.$^{ez}$ conservatceco eta çuyen amoinez bicitce Etern.$^{n}$ *(...)* baldin Jende o.$^{c}$L...$^{n}$ bai.$^{n}$ Je. Gloriasco bicia EM.$^{n}$ Derau *(...)* imuyez *(page 2)* Eguiçuye orai cihaurec, Menturas heyec Çuyec hil ondoan Eguin Ezteçaquetena, Lauda J.P S.$^{c}$ emaiten derautçuyen Conseilluya, ante Mortem benefac, Amico tuo et secundum vires tuas da P$^{n}$

Experiencias asco Exemplu ikhustenda Contrarioric bada hanitz primu Elicer eta obra onetaco utciez plenitcendenic norc bere Ar$^{c}$ eta K·$^{c}$ bici delaric da Eguitia h$^{a}$ eta seg$^{a}$ halacoendaco Jc preiparaturic Daucin Ceruco G$^{a}$ Eternala Ceina desiratcen *(...)*

(*page 3)*

**2**

Exiit quis seminat seminare semen suum. Luce Cap. 6.

Egungo Evangelioan iracurtcendugu Gure salvaçalia egun batez itssasoaren heguian Jarria Çangolaric *(sic)* Jende tropa handibat hurbildu Çangola eta hec ikhussicituyenian chalant batian sarthuric parabola hau Errancerayela.

Laboraribat Joanda haciaren Eguitera *(sic)* eta hacia barreyatcen eta erortenden lekhuyaren aravera ekhartendu fruituya; haci hartaric partebat erortenda bide handiaren Gainera, eta hura oinen aspiratcendute passantec, eta Jaten choriec, berce partebat erortenda harrien Gainera, eta ecin sordaiteque, ceren harriec haren uciarasteco humiditateric ezbaitute, berce partebat

erortenda elhorrien ~~Gainera~~ artera, eta batçutan hau sortcenda, bainan Elhorriec ithotcen eta aspiratcendute, finian haci hartaric parte erortenda lur onera, eta hura ongui sortcenda eta ekhartcen fruituya et abondancia .... horra + ..........

Dum seminaret aliud cecidit secus viam

= Laborariac ereguin hacitic parte eroricen bidiaren gainera eta passantec oinen aspiraric choriec Jan çuten

Gure bihotza da, Gc, J.C. bere haci divinoa ereguin eta sor araci nahiduyen landa, eta baldin idequia bada passanter erran nahidut munduco Curiositater, banitater, pensamendu, desir-Gaistoer, eta munduco placerer, baldin Gure bihotsetaco landa idequia bada passant heyer Gucier, ezdeçagun esperançaric ukhan fruitu onic bilduco dugula gure ustan + eta beldur beharguira gossez hilac egonen Guirela eternitate gucian. Cerraditçegun beraz gure bihotcetaco borthac munduco ontassun passatcendirener eta passantian J.$^{n}$ hits eta haci sainduya oinen aspiraric gure salvam.$^{n}$ Exajari bortha idequiten, eta Gure usta onaz Gabetcen Guitusten affectione Gaistoer. *(page 4)*

Ezdutuste badela G$^{c}$ Jn hitz S$^{n}$ aditciaz, eta errecebitcia placer ezduyena, eta hura aditcian berthutiaren praticatcera eta bekhatuyaren quittatcera deliberatcen ezduyenic, bainan malhurada ceren mundu Enganagarriari, eta haren maxima Gaistoer bihotcac utciz idequiac gutien ustian Joaitenbaitçaye Deabruya sendimendu on hayen desir onen Galaraztera. Ô ene arima içan hadi baratce cerratubat beçala baldin conservatu nahibaduc J$^{n}$ hitz S.$^{n}$ haci divinoa eta cerraçac Deabruyari bortha Jin ezdaquian haci Saindu haren Ebastera.

/ <u>aliud cecidit super petram et natum aruit</u>

/ <u>quia non habebat numorem</u>

Laborariaren hacitic berce partebat harriaren gainera eroricen eta sortucen, bainan berehala eihartucen ceren +

= Bere habituda Gaistoetan obstinaturic eta Gogorturic dagon bekhatoriac ikustendu hemen bere figura ecic harrien gainera erortenden hacia lurreco Goçoaren faltas Sorthudeneti fite Eihartcenden beçala, bekhatoria ere J.$^{n}$ hitz sendituia-gatic; bere erreflexione onac eguin faltas ezda perfeitqui Convertitcen, demendren occasionian Erortenda. Othoitz deçagun beras Ja Gure bihotz Gogorrac Guriditçala eta Salv.$^{n}$ eguiteco Desir Eguiascobana eman DeCela ===

Experienciac erakustera emaitendaucu Bekhatorec J.$^{n}$ hitz S.$^{c}$ probotchu Guti atheratcendutela, Ceren haren aditce choilas Conten baitira, enseatugabe hartas baliatcera, eta obra onen eguitera, Badaquite Bek.$^{z}$ quittatu behardutela, harc Damnatucoituyela, badaquite oraino berthutea praticatu behardutela, harc salvatucoitiela Bain *(… ...)*taque bi obligatione heyen Complitceco, Cere *(… ...)*en Ekhartcera. _____________ *(page 5)*

Consideradeçagun beras J.$^{n}$ hitz S.$^{n}$ Excellencia eta Baliostassuna Gure meditacionez eta erreflexione sainduyes Ecic hurada Erregue P$^{c}$ dioen beçala su divinobat Gure Ispirituya arguitcen eta bihotzca *(sic)* berotcenduyena ignitu etoqui~~e~~um lucem harc khambiatucodu Gure bihotza bai eta Maitharacico lehen hastioçuyena eta hastiaracico lehen Maite Çuyena -----

aliud Cecidit inter spinas --------

Laborariaren hacitic parte elhorrien Gainera Eroricen eta Elhorriec azpiratuçuten ......

______________________________

Bada oraino hirurGarren Gauçabat J.$^{n}$ hitzaren haci ona Gure bihotcetan emendatcera usten ezduyena eta hura da sortcen diren bihien belharra azpiratcen duten elhorrien atheratceco Negligentia;

Asco, Gc, Errecebitcendute J.$^{n}$ hitz S.$^{a}$ Çoinec pizten eta sorarazten baititu hec baithan salvatceco Desirac eta çombat onbra on eraguiten hartacosçat, bainan sendimendu on heyequin Nahaste Conservatus munduraco affectioniac, J.$^{a}$ G.$^{c}$ urruncenda arima, eta Juntatcen munduyarequila, Ezdu lurreco ontassunez baicic khonduric Eguiten, eta handic helduda heyen obra ona azpiratcera eta J.$^{n}$ hitz S.$^{c}$ Ethorri beharlituqueyen fruituyac Galaraztentuzten Elhorriac ..______________________________

Et aliud cecidit in terram bonam

*(page6)*

*(page7)*

***3***

Dominica 2$^{a}$ post pascha

Ego Sum pastor bonus, bonus pastor Dat animam Suam pro ovibus Suis . -

Ni niz Cuyen artcain ona, arcain *(sic)* onac bere ardiendaco Sacrificatcen *(...)* bere bicia, dio Gure Salvacaliac. -

Egungo Evangelioan J C.$^{o}$ aguertu nahi içanda artcain on baten itchuran edo forman, Ecic nola artcain on fidel batec maithatcen pazcatcen eta oxoaren ahotic beiratcen baititu ardiac, J.c ere maithatcen pazcatcen eta Exayen escuyetaric beiratcencituyen Guiçonac, maithatcen cituyen eta arimaren Salvatceco praticatu beharcitusten bertute gucien exempluyac Emaiten Ceraizten, maithatcencituyen, eta bere gratian, eta amodio Sainduyan heyen Conservatceco Sacramenduyac ordenatu eta EstablituCituyen, maithatcen Cituyen, eta heyen salvatciagatic khurutce batian hil nahi içan cen.

Bonus pastor etc --------------------------------

Guciec badaquigu Eguia handi bat dela, G fc, Gure aita Adamec bekhatu Eguinez Gueros ardi erebelatu Galdu batçu beçala Guinela eta baldin J.$^{n}$ semia Gure ganaco amorios Jin içan ezbaliz Cerutic lurrera gure bilcera eta gure Çaincera ezguinitasquela Secula Cerura ala beras

obligatione handia baitugu harengana, Jin nahi içandenas Guerostic Gure cherkha, eta baldin ukhan ezbalu Gureçat kharitate hura, Eternitate Gucian deabruyen pazca içan beharguinen ifernuyan ...

Eguiasco artçain kharitatos divino haren ganic ikhassibehardugu cuyec eta nic Cer Estimu eguin bahardugun Gure arimez, hecberac Direnaz Guerostic J.$^{c}$ bere odol preciatuyas Erossiac, Çuyen intrez propria da heyen Conservatcia eta Salvamenducobidian heyen eduquitia, Ene obligatione partic*(...)* ra halaber heyen parcatcia *(...)* baldin Errebelatuyac eta bide*(... ...)*uiac badira heyen bilcia eta bide onian *(... ...)* handia *(p. 8)*

Bainan Carga pisçuya Grandis honor

J.C. Cargatcen nu Çuyen arimez artha hartcera, heyen instruitcera, eta heyen Conversionian travaillatcera, ohore handia berriz ere, bainan cargu delicatuya eta perilosa non baldin Neure faltaz uzten banu Solament arimabat Galcera, J.$^{n}$ aitcinian hartaz Khondu eman beharbainuque, Eta nihar *(sic)* Damna bainindaiteque, animam pro animâ J.C.$^{n}$ Eguinbidia beras ceruco bidia çuyer Erakhustia eta çuyen obligatione particulara halaber heyen Ganic ikhastia eta ongui probotchatcia baldin lachaqueries, ahalgues, beldures edo bertce Çombait Considerationes Correitu gabe uzten balituste Çuyen Vicioac eta Erreprehenditcen Ez balituste çuyen bekhatuyac eta occasione Gaistoac trahileçaquete bere ministerioa çoinec obligatcen baititu ~~Coinec oblig~~ Çuyen arimen conservatcera eta heyen salvamenduyas munduco ontassun ohore placer Gucier baino Estimu Guehiago Eguitera, J.c placerequin emandienas Guerosti bere bicia heyendaco Gracia merecitceco, eta hec Ceruco Gloriarat alchatceco. Noiz-ere beras arico baitiran Çuyen ispirituco ilhumben arguitcen, J.$^{n}$ hitz sainduyas Çuyen Pazcatsen eta Çuyen arimetan Çaurien eta plaga mortalen sendotcen ausarqui Errandeçaquete Çuyen artçain onac direla ------------------------

Cognosco oves meas et cognoscunt me mee.

Eçagutcentut nic neure ardiac eta ene ardiec ere ni Eçagutcen nute.

= Gure S.$^{c}$ hitz hautaric aditcera Eman nahi ukhan deraucu hala nola Eternitate Gucian harc Eçagutubaiquitu, eta Eçaguturic amodio Eternalbatez maithatu, Enseyatu beharguira Gu ere haren Eçagutcera eta Gure bihots Guciaz haren ma*(... ...)* Gure amorioas haren amorioaren pagatcera Ecic *(... ...)*nacione eta Jende souerte bere bordaz ca*(... ...)*o hautatu baiguitu eta bere Gloriarat guidatu nahi ukhan baguitu *(page 9)*

Ezguireya guere obligatu munduco Creatura Gucien Gainetic haren botçaren seguitcera eta harc bere exemplu bertutotes *(sic)* paratu deraucun bidian ibiltcera? - -

Nolaco Dohaxutassuna dio S$^{t}$ aug.$^{c}$ quanta Fellicitant esse Gregem dei - nolaco Dohaxutassuna Guiristinoendacotçat Daquitenian J.$^{c}$ Eliça Gucico artçain divino harc bere arditçat Eçagutcentuyela, eta Eternitate Gucian harc berac Eguinenduyela heyen Gloria, nolaco Dohaxutassuna berris-ere diot haren bordaco ardi içaitia Quanta felicitas est etc ... adideçagun nola exhortatcen guituyen Erregue prop.$^{c}$ Çatoste adoradeçagun J.$^{a}$ Erorguiten haren oinetan eta Jarguiten nigarretan haren majestate handiaren aitcinian. Venite adoremus

et procidamus et ploremus qui fecit nos. harc creatuguitu bere amorioas hura da Gure arimen artçaina, iffernuco monstroaren ahotic Deabruyaren aztaparretaric Erretiratuguituyen salvaçalia, herc neurritcen eta haztenguitu Ez solament scriptura S.$^{n}$ Janhariaz bainan oraino bere sustancia propias, bere gorputçaz, eta odol preciatuyaz, Combat obligatione Ez dugu beras haren adoratceco eta hari Gure Eçagutçaren marcatceco?

= Nahiduçueya beras, G.$^{c,}$ Nahiducueya heya haren bordaco ardiac ciretenez ikhusaçuye heya hura eçagutcen eta maithatcen duçuyenez, Grado hura ukhanen duçuye baldin haren botça placerequin seguitcen baduçuye eta onian beçala Gaitcian ere hura ~~segui~~obeditcen baduçuye nor içanenda beraz bere buruyarendaco hain Exai handia, non ezbaita artcain Divino harengana Erremetituco eta bere pensamenduyetan, hitzetan eta occasione Gucietan haren borondatia Ezbaitu seguituco ... -

Artçaina bere ardiac harturic abiatcendenian, ardiac badohatci harc nahi duyen lekhura arranguratugabe, bide onetic apartatu direnian eta artçainac bide onerat *(...)*i nahituyenian obeditcen Dute. *(page 10)*

Bada Gui$^{c}$ S.$^{c}$ nahidu Gauça bera Eguindeçagun Guc ere nahidu obedideçagun arranguratu gabe, nahidu Joanguiten harc nahiduyen lekhura gure egunen eta orenen passatcera; Nahidu Gure Eguinbidetaric apartatcenGuirenian Eta Guiristino on baten bidian Ezguiennian, Erremetiguiten lehen avertimenduyan, Çombait Eritassun eta afflictione igortcen deraucunia

n nahidu Jaquindeçagun Gure artçain on beçala bide onerat erakharteco visitatcen eta lehertcen guituela ==

= Finian Gure S$^{c}$ nahi du ardiac artcainarendaco obedient diren beçala, obedient içancitezten çuyec ere haren Manamenduyetara, eta harc Eliçan bere lekhutan utcituyen artçainec haren partez Eguinen derautçuyeten avertimendu Gucietara. bainan norc seguitcen othedu bide hura beldurniz bakhandiren. Eliçaco artçainec presentatcen Derayen Janhari divinoa ongui Errecebitcen Eta hartan probotchatcen diren ardiac, J.$^{en}$ borda huntan adituric ere Jaincobat adoratu, maithatu eta Cerbitçatu behardela, hartacotçat Goician ohetic Jaiquieta lehen lana JaincoaGanat Ispirituya eta bihotça alchatu behardirela hari Gomendatu behardela Gau hartan eman Errepauses hari Esquerac Errendatu Eta Cerbitçu S$^{n}$ Egunaren passatceco Graciac hari Galdatu behardira. Arraxian Guissa berian Esquerrac hari errendatu behardiela, heriotce subitutic beiraditçan eta amorio S$^{n}$ Conservaditcan hura othoistu behardela.

Çombat aldis Ezcirete oherat Joan hari çor deracoçuyen adoracionas Eta Çuyen Salvamenduyaz conduric Eguin Gabe, Jc Eguin ontassun eta particularqui Egun hartacoez Esquerrac eman *(...)* concienciac ongui Examinatu Gabe Çuyen bek*(... ...)*du Galdeguin Gabe eta Gauaren ungui passatcias *(... ...)*xutassun h$^{da}$ arraçoinequin J.$^{c}$ erranendauçuye no*(...)* retela haren bordaco ardiac baici ife *(...)* *(page 11)*

Goizetan Guissa berian Çombat aldis Ezçarete Etchias Camporat Joan Ja adoratu Gabe; Gau hartaco ontassunes ErremeciatuGabe,
Eta J.$^{n}$ Cerbitçu Sn Egunaren passatceco Gracia Galdeguin Gabe, Munduco Eguitecoac bethi Gogoan çuyen izpiritu Gucia nahassia eta lurrerat barrayatuya, edo Çombait oracione apal Eranic ere, Distractionez eta hostassunez bethiac J$^{n}$ alderat Ezcirete Ciec berrizere diot J.$^{en}$ bordaco ardi fidelac non sut *(...)*
etc... Hunat beras G$^{c}$; khambiaciteste eta amens hemendic harat J$^{n}$ eta haren Mi-$^{n}$ manamendu eta avertimenduer Jarraiquiciteste, moyen hortas ardi onen eguinbidia eguinen duçuye, eta J.co artçain Gucien artcain divino harc bere bordaco arditçat Eçagutucocituste hemendic harat. Cognoscooves eta baldin obeditcen eta seguitcen baduçuye, Mundu penatu huntaco miserietaric Ceruco parca-lekhu guicenetarat guidatuco cituzte, eta han emanen bere gloria Eternaletan Parte - D. A. - Ai_$^{n}$_

*(page 12)*

***4***

D. 8$^{a}$ P.

homo quidam erat dives qui habebat vilicum. Luc..

Egungo Evangelioan iracourtcendugu Gure S.$^{c}$ discipuluyer parabola hau Errancayela - Guiçon aberatx batec baçuyen Econome bat edo Conductorbat, eta adituric haren ontassun Guciac chahutu cituyela, deithuçuyela eta bere aitcineraeta Erranceraucola, cer berri aditudut çutas, khondu Errenda dieçadacu neure ontassunaz, Ezcira Guehiago hon ere ontassunen Gobernatceco. Cond.$^{c}$ dio bere baithan, cer Eguinendut orai naussiac cargutic khencennuyenian, Ez niz hon travaillatceco, - ahalgue niz esque Joaiteco, badaquit cer Eguinendudan, bilarastentu bere naussiaren Çordunac, eta Galdeguitendu lehenic bati cer Çorderacoçu ene naussiari? Ehun barrica olio ihardesten deraco centum cados olei, Jarcite eta isquiriba berrogoi eta hamar Çor duçula scribe quinquaginta. cer Corduçu Çuc Galdeguiten deraco berceari, ehun onga *(sic)* ogui ihardestendu, centum coros tritici. Eguiçu billeta lauretan hogoi Çorduçula scribe octoginta Naussiac bere conductor infidela laudatu çuyen ceren prudentqui eguin baitçuyen, Ecic mundutarrac ohartuagoac dira lurreco beren Eguitecoetan ezcinez J.$^{n}$ haurrac ceruco ceruco Eguinbidetan. bada nic Erraiten derautçujet emplegaitçaçuyela Çuyen urriac eta Cilharrac adisquiden eguiteco, amorecatic faltatcera Jiten bacetenian, errecebilitçaten heyen J.$^{n}$ Etchian.. huna egugo *(sic)* Ev.$^{n}$ S.n *(page 13)*

homo quidam erat dives, qui habebat villicum

J.C- parabola huntas aditcera emaitenderaucu Guiristino Gucier hura bera dela evangelioco Guiçon aberaxa, eta Gu haren economac edo harc eman onthassunen conductorac, haren ganic errecebitu ditugula gure Escuyetan ditugun ontassunac, haren ohoretan eta Gure arimen Salvamendutan hetaz cerbitçatceco eta baliatceco bada cer

içanenda Gutas baldin harc ordenatu obretan emplegatu behar bidian dissipatcen eta destruicen baitugu Gormandiçan, Jocoan eta munduco Gure placeretan, cer deshore eta ahalguetan ~~esguira~~ içanenguira haren aitcinian presentatcenguirenian, orai hetaz eguitendugun abusa J.[c] ikhustendu, deus erran gabe soffritcendu; eta gure erreflexionen eguiteco dembora emaiten-Deraucu, eta hala haren tribunalian comparitu baino lehen preparatu beharguira harc eman ontassunez ongui baliatcera eta khondu justo baten errendatcera dio S.[t] G.[c] qui etc Bercenaz beldurbeharguira ediquico *(sic)* daraizcula eta Garrasqui punituco Guituyela ...........................

J[c] Emanac ditugu gure escuyetan ditugun ontassunac eta nahiduyenian edecditçaquegu Guciac Guri injusticiaric Eguingabe; S[t] aug.[c] dio Guiçon aberaxa J.[n] ontassunen dispensaçale edo Gobernari choilbat dela, eta ezcacola permis hetaz nahiduyenaren Eguitia bere fantesiaren aravera, bainan emplegatubeharduyela kharitatez obligatuyaden beçala bere Guiristino lagunen favoretan, Dohatxuyacdire J.[a]Ganic hanitz ontassun errecebitudutenac eta beren Entremenduco *(sic)* behardutela beiraturic, berce Gaineracoac kharitatosqui partitcentustenac; Guissa hartan ezdira accusatuyac eta punituyac içanen J.[n] tribunalian baicen ere errecompensatuyac ... Estimatu bahartugu gure buruyac dio S[t] aug.[c] ez gure ontassunen naussiçat, baicic pressuna beharren tresoriercat. Ego sum qui divitem et pauperem feci et prærogatorente constitui in bonis meis, fac misericordiam quia nihil perdes. Vocavit illum et ait illi quid hoc audio de te redde rationem villicationis tuæ, jam enim non poteris villicare.

Naussiac deithu Çuyen bere Conductora bere aitcinera, eta erran cer berri aditcendut Çutas Errenda deçadaçu khondu ontassunaz ez cira Guehiago hon ene ontassunen Gobernatceco - *(page 14)*

Cer pena handitan ez cen behar Conductor hura içan, G.c bere N. Condu Galdeguin ceraconian, eta particularqui erran ceraconian ez cela hon guehiago haren ontassunaren gobernatceco; Nolaco sentencia ikh.[a] miserable harentzat N.[c] bere Escuco ontassunez Gabetcendu, eta Guero ukhaiteco ere Esperançaric Gabe ustendu.

Estatu hartan berian içanendira bek.[c] bere heriotceco orenian, ecen hambat ontassun tep.[c] eta sp.[c] J[n] G[c] errecebituten ondoan segurda examinatuyac içanen direla, eta koandu errendatu beharco dutela lurreco demboras, ontassunez J.[en] Gratias, Sacramenduyez, eta beren Erreligioneco socorric Redde etc.; eta phrogatcen ceyenian Gaisqui emplegatuitustela, Jc. condu Galdeguinen daucula ez solament camporat aguertuitugun action bainan oraino barnecoez, Gure isp.[o] pensamenduyez, eta bihotceco desirez, eta movimenduric segueretenez, nola ahal gausque ikhara eta trubleric handienian Jarrigabe; Consideracen dugunian obligatuco guituyela khondu errendatcera J.c deithu eta alchatuguituyen Saindutassuneco estatuyas, eta ongui bicitcen harc eman ontassun, eta Gracia particulares, Erregue P.c av..[u] placerequin errecibiditçagula, bainan beldur beharguirela Ezditçagun eguin behar beçalaco empleguyac; Servite D.[o] etc erraiten baileraucu beçala placera eta beldurra

Elgarri juntaditçagula placer behardugula Jc emaiten deraicun ontassunez eta beldur beharguirela hetaz eguitentugun emplegu Gaistoez ... quid faciam quia dominus meus aufert a me villicationem f(...) non valeo Emendicare erubesco.
Cer Eguinendut orai N.[c] cargutic khentcen nuyenian - Ez niz hon travaillatceco eta ahalgue niz Esque Joaiteco. *(page 15)*

Egungo EV[o] Cd.[n] Exempluya ez liçateque Guiçonen artian ongui Errecebituya, Eci cein naussic soffrileçaque, tromperiaz bere ontassun propia harleçon eta bere propitic pagamenduya Eguin leçona, moyen injustobat liçate hura, bainan ezda hala J.[n] alderacotz, J[a] berada Ev.[a] minçoden Guiçon aberaxa, nahidu harc eman ontassunetaric eguinenditugun amoinez pagaditçagun haren justiciari gure - bek.[u] Gucietaric Garbituyac

Evangelioco Conductora arthahand.q.[n] preparatucen N[i] bere ontassunez khondu errendatcera, ezdeux ahatci hartacotçat, ezcituyen Gupida bere arthac, penac, eta adressac N.[n] Satisfatceco, eta haren aitcinian Gaisqui accusatuyacela Erakhustera emaiteco.

Bada jaquin eçaçuye probebat borthara JitenÇautçuyenian Amoina Galdeguintera, Jc berac haren ahoz Galdeguiten derautçula eta harc nahiduyela errenda-deçaçuyen Çorderacoçuyena, baldin orainocoan emplegatu baituçuye Jc eman ontassunac despendio alferretan eta ez bacirete orai amoina Eguiteco Estatutan, Enseyacitete çuyen industrias eta adrecias cerbaiten irabaztera, edo amenz Çuyençat necessario duçuyenetic cerbait prober emaitera, Guti bada guti J.[a] Content içanenda Errecebituco du placerequila eta Çuyer eguinen bere Eçagutça, prober emaiten duçuyena bethi çuyena içanenda, J.P. S.[c] dio intresian eçartcen duçuyela prober emaiten duçuyen ontassuna, eta Jc errendaturen dauçuyela proben pressunetan hari prestatu duçuyena . Veneratur d[o] qui miseretur pauperis Et vicissitudinem reddet ei

## *IV*

*(Cahier de même format de 17cm/22,5cm, même reliure, même écriture que les deux cahiers précédents, plié comme eux en trois dans le sens de la longueur, usé et parfois déchiré aux pliures)*
*(page 1)*

Amen Amen dico vobis quia plorabitis et flebitis vos, Mundus autem gaudebit. J. Cap. 16 - Eguias; eguias erraiten dauciet, nigar Eguinenduciela; eta tristecian içanencietela, Bainan munduya allegeratucoda ........................ Jean. Cap. 16 .................................

Munduya hanitz maneras hartcenda. munduya deitcendugu Jc bere puchantcia infinituyas esdeustaric eguintien gauça guciac ... Ceruya munduya da, lurra munduya da, munduyas nic hemen aditcendut gure artian dien gaistaguin guciac eta ifernuyan orai ceratuyac dien, eta egun bates ceratuyac içanendien erreprobatu gucien bildumabat. bilduma horri opposatcendut orai Ceruyandien, eta egun bates ceruyan Jçanendien sainduyen bilduma. Gaistaguinec lucifer dute bere aitcin guidaria, eta sinduyec Jaincoa. Gaistaguinac allegeratcen dira

demborabates eta Guero erortendira seculaco tristecian. Sainduyec nigar eguitendute, tristeciandira bici huntaco demboran, bainan heyen nigarrac eta tristecia khambiatcendira seculaco allegrancian ...... Nahinautcie minçatu mundu gaistaguinas, Çoinec guerla eguiten baitu Ji. eta sainduyei

................. 1... P.... Nahinautcie minçatu mundu sainduyaz Çoinen tristecia khambiatuco baita alegueranciara mundu Gaistaguinaren gainian bictoria eremanic ... 2... P._ ._

Jaincoac aingueruyac eta guiçonac ~~creatu~~ eguincitienian frogatucien dembora laburric barnian etxaibatçu eguincitiela .... Lucifer aingueruyac deliberatucien guerla eguin beharciela Jaincoari, *(page 2)* Alchatucien bandera, eta emancen Gaistaguin orduyancienen, eta içan beharcienen aitcinian. Liburu S. dio Gombat handi bat eguincela Ceruyan . Dragoina ilhumbetaco aingueru hura, Gombatatcen-cen bere lagunequin: eta noren contra? bere $J^n$ contra; esdeusetaric eguindienaren contra; Seculacots hurus errendatu nahicienaren contra. Ô esquergabetassun~~aren~~ terriblia! o malecia ecin Concebituscoa. esda contentatcen bere erreguiaren, eta bere Jaunaren contra Declaratcias, deitcendu oraino bereganat aingueruyetaric nombre handibat; parte eguitendiote bere Conspiracionias, eta errevoltatcendira bere nausiaren, bere Creaçaliaren contra? Ispiritu madaricatu hec, aingeru errevel hec Jn Contra dira bethi guerostic.. beren indar guciac emplegatcentuste haren erresomaren destrutceco Çombat effort esdute eguiten, Çombat conseilu beren artian esdute hartcen haren tronoaren aurtiquitceco, eta haren fidel gucien Desertarasteco? ...... ___
Esdira choilqui aingueru gaistoac $J^n$ contra errevoltatu, guiçonaere partidaco içanda, errevoltaduda. norc pensaceçaquen lurretic formatuya içanden miserable batec içanenciela ausartcia Jn soumissionetic Jalquitceco? ............
hori eguinçayen bisquitartian adamec. Bethi hurus içaiteco Creatuya Jçancen, bainan bere desobediencias malurus errendatusen ifernuya merecitu içancien? eta nol*(...)* eta haren ondocoec bat eguin behar baitçuten, gure borondatiac harenarequin juntatuyac içan behar baitçuten, guc ere haren Çorte malurosa içandugu, Jn obedient içanbalis hurus içanencen bethi, bai eta guere, bainan ceren J.$^i$ esdent *(sic)* obedient içan malurus içanda ... Mundu huntan gu-ere malurus guira. manera hortas gure aita adamen bekhatuya gutarat passatuda primança madaricatu bat beçala, *(page 3)* Concupiscencian edo bercela desir dereglatuyac, çoin baita Bekhatuyaren seguida necessariobat, gure arimaren substancia gucia pocoinstatudio, eta nola bekhatuyan Concevituyac içan baiguira, gure natura corrompituyada, miseries eta bekhatus bethiada. hortic helduda gaistaqueriarendaco dugun pendura miserable hura, unguiaren eguiteco dugun uscurdura, edo naguidura hau; hortic helduda bertutiaren praticatceco gure baithan sinditcen dugun pena hura; hortic helduda gauça gaistoendaco dugun pendura bortits hura : =

Horra cerc engayatudien guiçonen parteric handiena deabruyarequin juntatcera Ji Guerla eguiteco. Ceruya içanda lehenbicico guerlaren lekhuya: orai lurrada Guerla crudel haren seguiden landa çavala Cer gauça triste esdu Guerla harc equararaci munduyaren hastetic J. C^o^ mundura Jinartio ..... Guiçonen bicia dembora hartan icigarriacen; Corruptcionia hain handiacen hedatuyacen, nun Ja infinituqui misericordios delaric, bortchatuya içan baitcen dolutcera ceren eguincien Guiçona. Cercen hastiagarriagoric Sodoma hiri handi hartaco habitanten conduita baino? heyen actioniac heyen Crimac hain ahalquegarriac cien, nun liburu sacratuya hequien aipatcera ecin ausartcen baitaiteque Jenden beharri garbiac liçun beldurres? Cerda insolentagoric Egyptoco Jenden eta pharaon heyen erreguiaren Conduita baino? Miraculuric estonagarrienac ikustencitusten J^n^ escu puchantac bere baithan sartcera bortchatcencitien haren gastiguyaren aspian lehertuaccien, eta esciren Conbertitcen; nahiagoçuten peritu Ji sumetitu baino. Dembora hetan eguitencien lohiqueriac, heriotciac ete bertce Crimac horribliaccien. munduyanden Gaistaguinenac orai iracurtcen balitu orduyan eguitencitusten crimac estonalaiteque ____________________- *(page 4)*
J.C. mundura jindenian, cer esdu soffritu juduen partetic. populu hautatu hura, populu maite hura, munduyari salvacaliaren emaiteco destinatuya cen populu hura, infidel errendatcenda; traidore, cruel, ingrat bilhacatcenda, deabruyarequin juntatcenda, actioneric horriblenaren, belcenaren eguiteco; J.c. cerutic lurrerat jauxicena baquiaren ekhartceco, populu barbaro harc khurutceficatudu, hildu, Crimaric latsgarriena. J^n^ populu hura orcirale saindus calvariaco mendian coupable Errendatucen ............... -

Erran behar da, J.^n^ and. guiçonaren malecia handiadela. J.C. jytenda mundura guiçonen eta Jn artian baque perfet baten eguiteco, bisquitartian mesprechatuyada, insultatuyada, persecutatuyada, açotatuyada, khurutcebati itces jossiada, lançabates haren sayetsa cilhatuyada.
= Norc sinhetsleçaque tratamendu crudel horren ondoan bere aitarendaco sien amodioa bethi Conservatuciela?.. bai, J^n^ and., populu barbarohura bethi maite içandu; bicia galdu ondoan ustentu dicipuluyac baque haren eguiteco, bainan mundu gaistaquinac hec ere hilceintu: eliçaren Contra alchatcenda Cer massacre, Cer supplicio, Çombat heriotce Suerte . =

Horiec guciac berrituco dira munduyaren akhabançan Antecrist guiçon gaisto hura mundura Jynendenian Cer massacre esdute eguinen asquen dembora hetan guiristino fidel Gainian? orduyan Jduricodu J^c^ esdiela Guehiago içanen defendiatceco. iduricodu mundu gaistaguina Gucien Guehiencera dohala, Ceruya eta lurra funditu behartiela, ilhumbec *(page 5)* arguiaren plaça hartu behardutela, heresia hedatucoda Mundu gucian, enganioac atchiquicodu eguia captivo; libertinqueria içanenda errecompensatuya, eta Çuhurtcia erran-nahida, prestutassuna bardines estecatuya: erreligionia desterratuya banituya eta impietatia gaistaqueria alchatuya;

gaistoac ontassunes bethiac placeren erdian; eta sainduyac tormentatuyac lurraren bihotcian sartuyac. Eliçac aurtiquiac, khurutciac milla Cathi eguinac, liburu sainduyac erriac, legue sainduya mesprechatuya, Garbitassunaren bortac hautsiac, actioneric ahalquegarriena laudatuya eta bertutesco actioniac punituyac ... Horra J. and., munduco gaistaguinac deabruyarequin juntatuyac Ji eta haren sainduyei eguinendien guerlaren fina ....................
Eguiada beras J$^{n}$ eta haren adisquiden etsayadela. gauça orotan hari opposatuyada. J$^{c}$ manatcenbadu gauçabat, mundu gaistaguinac esdu eguinen; Jc defendiatcen badu gauçabat, mundu gaistaguinac hura eguinendu. Consideraditçagun J$^{n}$ maximac, haren manamenduyac, Justuen bicia eta comparaditçagun horiec guciac mundu gaistaguinaren actionequin eta conduitarequin; ikhussicodugu horietan hotçaren eta beroaren artian den beçain differencia handia =

= Cerdio J.$^{c}$ maithatu behardela povrecia; aberatsac povre içan behardiela bihotces: Cerdio mundanoac? ontassunec hurus errendatcen dutela guiçona, hanits bildu behardela, artificio guciac emplegatu behardiela heyen bilceco: cerdio Jc humil içan behardela, etsaiari barquatu behardela, oraino guehiago hura maithatu behardela, eta mundanoac? mendecatu behardela. Cerdio Jc? Sincero içan behardela iduri ederra aitcinetic eguin ondoan esdela guiveletic trahitu behar. eta mundanoac bere bihotçaren moimenduya, bere gustuya seguitu nahidiela finecias bethia içan behardela.___________ *(page 6)*
Cerdio J$^{c}$ Soffritu behardela, khurutcia kharreyatu behardela ? eta mundanoac? axeguin hartu behardela. Cerdio Jc? garbi içan behardela, eta mundanoac passioniac seguiti behardiela. hitz bates, J$^{c}$. dio perfeit içan behardugula; eta perfeit içaiteco gudu eguin behardugula gure inclinatione gaistoei, eta mundanoac gure pendurac seguitu behartugula -.

Consideradeçagun alderdibatetic justuen bicia, eta berce alderditic mundanoen manerac. justuac tristeciandira, eta mundanoac alegueranciandira; justuec soffritcendute; eta mundanoec bere desirac seguitcentuste; justuac mortificatcendira eta mundanoec bete placerac hartcentuste; justua *(sic)* J$^{n}$ gaucetan kharrez bethiac dire *(sic)* eta mundanoac ~~superbio~~ laçodira: justuac humil dira, eta mundanoac superbios; justuac bere hitcetan Sobre dira; eta mundanoec hanits hits erraitendute. justuac soffricentu pleinitugave Mesprecioac, affrontuyac, eta gogortassunac, mundanoa contrarat impatient da mendequiosda, medisentda.

Jujadeçagun J$^{n}$ and. horietaric justuen herroncaco ala gaistoen herroncaco guiren; çorigaitz gure muundanoen herroncaco baguira; Ceren eta asqueneco apalduco baiquira eta J$^{c}$ eta justuec eremaneduten bictoria completa ossoa içanen baita justuen tristecia khambiatuda beraz allegr*(...)*ura ------------------------------

§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§2 e. P.§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§§

Mundu gaistaquinac atacatcendu J[a], eta haren sainduyac bainan bethi bencutuya içanenda J[c] ausarciarequin *(page 5)* attaquatcen duten malurus heyec, esdaquite esdeusetaric eguintien beçala, esdeusetarat bilhacaditçaquela? esdaquite ceruya eta lurra aingueruyac, eta guiçonac haren obra diela eta guciac harc colpebates fundi ditçaquela? Errandautciet Mundu Gaistaguinac J[a] eta haren sainduyac atacatuiela *(sic)* ... adiçacie orai M. Ga, nola içanden bençutuya ............

Lucifer bere lagunequin J[n] contra alchatucen mementoan, Jandone mikaelec berce aingueru fidelequin hatacatucien bortisqui Jspiritu urgulus hura, bençutucien Confondítucien eta J[n] pas harmatuya celaric sartucien lurraren bihotcian bere tropa guciarequin, eta memento berian Jc han formatucien Susco leicebat çoina deitcen baitutgu ifernuya. Hora lucifer bençutuya. ..............

Adam lehenbicico guiçonac berritcendu guerla deliciosco baratcearten erdian Çointan Jc eçarri baitcien bethi hurus içaiteco eta dembora berian cassatuya içansen handic ahalquerequin, bestien larrus bere gorputça estali behariçancien, miseriasco bici baten eremaitera eta guero biciaren galcera Condenatuya içancen = haren ondocoec *(...)* beçala hatacatcendute. J[a] eta uurholdebat *(sic)* Jynic han ithociren cortci presonas bertce guciac. Sodomaco habitanten liçunqueriac, abominacioniac alchatucien ceruraino; eta handic Jauxi *(...)* subat, çoinac Erhausten-baitcitien Guciac eta lekhu hetan formatcen çelaric erdien Ur ussaindubat. Egyptoco erreguec persequitcen *(...)* J[n] populuya Itsasoaren heguiraino; eta moisec populu haren aitcinguidariac Jocien Itsaso *(.......)*haroas bidebaten eguiteco, itsasoa separatucen bi aldetarat eta bidia eguin içansen eta passatu. egyptoco Erreguia sartucen bidehartan bere tropequin eta Itsasoa bi aldetaric juntaturic han peritucien Guciac. ---------------------

Juduyec hilarastendute J.c eta madaricatuac dira, mundugucian hastiatuyac dira: Antechrist Gucien guehien içanenda çombait urthez ______ *(page 8)* Massacre handiac eguinentu Guiristinoetan, bainan asqueneco Jc funditucodu *(sic)* gaixtaguin hura, Norc Consideraditçaque Jc bere etsayei ifernuyan soffriarastentien tormentac lastugave? funditucitusquen malurus hec guciac instanbates nahi içanbalu bainan esdu nahi içan nahidu biciditen bethi soffritceco Su garren erdian, bethi eta seculan. Jo handia considera baguinça Gaistaguinendaco preparatcentuçun Gastigu terribliac, ausarta guinitasque Çure offensatcera? esguinitasque Jkhara hain punicione handiaren eta justuaren bistan? helas eternitate Gucian Erratcera condemnatuyac, gaits souerte guciac causitcendien leice ilhun hartan seculacots Cerratuyac, esda hori ikhara-garri? Horra bisquitartean Guiristinobaten Çorte tristia bekhatu

Mortal bakhar batequin hilcendenian. esda arras ero içaiteia, esda bere buruyaren etsai içaitia bekhatuyari largatcenden pundutic. ... ---

Ikusdeçagun nola Jc bençutcen dien mundu g.a cer harmes cerbitçatcenden haoern bençutceco ..... -

Nabucodonosor Erreguiac adorarastendu bere buruya? J.obat beçala; buruyan emaitendu mundu guciaren nausi içan behardiela, eta hartaco bilcendu armada handi bat, armada haren manamenduya holoferne General habil bati emaitendu badoha Betulia hiri thypitobaten setiatcera, bainan Jc emastequi baten bessoas funditcendu armada handi hura Gucia.

.... -. Jn p. sartu nahidu palestinan bainan hango habitantec estute sartcera utci Nahi Jerico hiria bortistendute hartuya.içandadin obra berribatçuyes, bainan inutilqui Jc manatcen du Josueri hiri hartarat hurbilcia, erraitendio esdela Necessario Guerlaco instrumentic içandeçan hiri haren hartceco; Jkhusicodiela laster gauça miragarriric. ordenatcendio hiri haren inguruya egunian behin Caspi egunes eguitia trompeta soinus ..

- Josuec obeditusien exactoqui, manuya seguitucien punduren pundu; eta caspigarren egunian hiri hartaco murail lodi eta bortis hec eroricien instanbates? + + + aingueru baten moyenes hilcentu gaubates ehun eta laurhogoy milla soldado . Cerliçate foudriac lançabalitça cerutic Jtsasoari manabaleça bere furian Sartcias, esleçaque lehenago becala mundu gucia periaras ......

Çombat

*(Tous les textes qui suivent semblent de la même écriture: fine, régulière et soignée)*

***V***

*(Cahier relié d'un seul point large de fil blanc, dernier feuillet détaché. Les dernières pages sont blanches et laissent voir en filigrane trois petits cercles verticaux, le plus élevé contenant une croix et surmonté d'une autre ornée; de part et d'autre du dessin en haut deux figures et en bas deux inscriptions, celle de droite est le chiffre 1762 correspondant sans doute à la date de fabrication. Les textes sont donc postérieurs. Feuille de 35 cm/24 pliée.)*
*(page O comportant le titre:)*

Exhortation pour la 1ere
Communion des Enfants

*(page 1)*

+

Sinite parvulos venire ad me Et nolite vetare Eos.

+

utx quitçuje haurrac Eneganat jitera Eta Esdiçatçujela debecca dio gure SalvaÇaliac San luquen hemeçorxigarren Capituluyan.

+

Esdeja Çujençat Consolatione handia, Ene haur maitiac, berris Ere esdea Çujençat Consolatione handia thermino hotan Çuien Salvaçale onaren mintçatcen aditcia? Çujen alde alchatcen eta Çujen favore declaratcen Çaucu manatcen guitujelaric has*(...)*ta Citçastegun harat ganat *(sic)* joaitera Eguin gabe den mendren debeccuja.
Cer chede uste duçuye or*(...)* dujela guc hula m*(...)*n? es dudaric gabe berceric Çujen bessarca*(...)*, lehenbicico Communionian Çujequin juntatcoa eta Çujequin bat Eguitecoa baicic. horra Cerc choilqui ekharatasten dujen gure manatcera utx Citçastequen haren ganat joaiten. Eta escitçastegula debecca. <u>Sinite parvulos venire ad me Et nolite vetare Eos.</u>
Esbedi nehor içan estonatuya Egun artino Esbalin badugu Complitu manu hau Çujen Errespetu*(...)* orai artinocoan bici içan Cirete *(.......)* ilhunben Erdian orai artinocoan EsduÇuje içan aski jujiamendu, eçagutça Eta jaquitate Egun eguitera Çoasten actione importantaren ConCebitceco eta horiec direla Causa esdiçan gute phartetic orai artino jesuchristoren manuja Çujen Errespetura Complitu*(...)* Bainan orai ikussicie haurtassunetic athera Ciretela, Çujen aitamec, Errientec Eta hec Eman deraitÇujen instructiones baliatu Cirete Eta *(...)*ren eta gaixarenen Eçagutceco asqui jujamendu baduçuyela, soummissionerequin Errecibitcen dugu gure nagussi divinoaren manuja. Eta placerequin utcico Citustegu mahai saindurat hurbiltcera Eta han Çujen SalvaÇaliarequilaco juntaÇarre dohaxuaren Eguitera.
Bai, Salvaçale amolsuja, Egun Çure desira denas gueros utx ditÇagun haur gaicho hoc Çure gana hurbilcera, Eta Çure chedia denas gueros hojen bessarcatcia Eta hojen lehenbicio Communian hojequila bat Eguitia / esta nehor içan - hoc hortaric debeccatuco Eta urrunduco

lujenic, actione seindu, actione important horren ongui Eguitera Exhortatuco, animatuco Eta poussatuco lujenic baicic.
Çuhaurec, ô Ene jainco *(… …)*aÇuje hojen beren desira, *(page 2)* Esda Egundaino içan Ez *(sic)* orenic, ez berce animaleric beroac arras fatticatu ondoan, ithurburu fresco batera arribatCia Eta han Edatia hala desiratu dujenic, nola hojec desiratu Eta desiratcen baitute Çure mahai Seindura arribatcia Eta aldare Seindujan ÇurenÇat *(sic)* preparatuya dauCaÇun Errepas pare gabe horen *(sic)* Eguitia. Es Çaje segurqui nahi becen fite arribatu Egungo Eguna.
Bainan oraino Ere, Ene haur maitiac, ComprenitCen otheÇuje behar den beçala Ser desiratCen duÇuyen; Ceren Eguitera Çoasten, Eta nola Eguin behar duÇujen! argui beguiac, Erna ispiritujac eta Erreberri Çujen attentioniac hirur phondu hojen gainian oraino Ere instructione laburtto baten Emaitera nihoatÇuje.

1° Çujec desiratcen duÇujena da hurbilcia jainco Soberano, Creaçale divino baten ganat, Ceina debrujaren Esclavotassunetic Çujen atheratCeco Eta bere aira Eternalarequin, Çujen ErreConCiliatCeco Cerutic lurrera jauxiric Çujec beçala haur Eguin nahi içan baitu, hanitx pena, dolore Eta tormenta Soffrituric Khurutce batian bere biciaren sacrificatcecotçat: Ceina hil Eta phixtu ondoan Cerurat ber aitaren EsCuineco alderat igan aatic Eta han loriosqui Egon agatic, orobat baitago aldareco Sacramendu Seindujan Çujen arimen janhari Eta edari içaitiagatic; Ceina baita choila Çujen Contentamenduja Eta dohaxutassuna Eguin deçaquejena. ah Ene haur maitiac, ala beras Çujen desira, desir laudagarria baita, desiratcen duÇujenian hulaco objet batenganat hurbilcia? içan EçaÇuje beras hunenganat hurbilceco libro bidia Eta Escitastela nehorc debecca. <u>Sinite parvulos venire ad me Et nolite vetare Eos!</u>

2° Çujec Eguitera Çoastena Errepassetan den precuiatujena Eta banquetetan den handiena da. mundujan Erreguebatec berac Eman ahal deÇaqueÇujen Errepassic preciatujena Eta banquetic handiena Estaiteque berces Composatuja içan, baicic Ere oguiric, haraguiric, frutaric, arnoric, liqurric Eta gostuja guehien laussengatCen duten gauces baicic; Bainan aldareco Sacramendu Seindujan Çujen Salvaçale onac esderautÇuje Emaiten holacoric; bai ordujan bere gorphutÇa, bere haragui preciatuja jatera, ~~eta~~ bere odol SaCratuja Edatera Eta bere arima Eta jaincotassuna ErrecibitCera; ÇujenÇat *(page 3)* guiçon eguin den jainco hura bera; ÇujenÇat khurutCean hil den Salvaçale hura bera da Çujec Egun aldareco SaCramendu Seindujan Errecebituco duÇujena ô banquet handia, banquet seinduja Eta banquet Salvatuja jesuschristo errecibitcen den banqueta. <u>ô Sacrum Convivium in quo christus Sumitur.</u>
Balin Çujen Erreguec gomita balinitçaste, Ene haur maitiac, bere mahajan Eta bere Compainian Errepas handi baten Eguitera, nahis EsteÇaÇujen Eman bere içaitetic deusican ete, ohoretan den handiena Errecibi CineÇaquete. ah Cer ohoria Eta Cer abantailla Estuçuje beras Egun Errecibitcen, Erregue gucien Erreguiac Ceruco eta lurreco jaun Soberanoac

gomitatcen Citustenian bere mahaian jatera Eta Edatera, Es munduco janhari Eta Edari denborac gastara Ekharcen tujen hetaric; bainan bai bere gorputÇa, bere arima, bere odola Eta bere jaincotassuna Seculan Es Corrompi, Ez *(sic)* Consummi Esditaquejenas.

3° bainan goardia nola Eta Cer dispositionerequin Çoasten banquet paregabe horren Eguitera: balin ongui disposatujac Ciretelaric Eguiten baduÇuje, Çujen dohaxutassuna Eguinen duÇuje, Ceren Eta bicia adiexico *(sic)*: bainan Contrariosqui dispositione gaistoetan Eguiten baduÇuje, Çujer malur handia Eguinen duÇuje, Ceren Eta Erio Colpuja Emanen baiterauÇuje: Ecic banquet Sacratu hau, Çenbat Ere bere baithan Seinduya den, bicia da onenÇat Eta Eriokia gaistoenÇat, ongui dioen beçala San thomassec. <u>mors Est malis, vita bonis</u>. halaberas examina ongui Çujen ConsCienCiac.
Erran derautÇujegu, Ene haur maitiac, behin baino guehiagotan Gorphutx Seindujaren Sacramendujaren Errecibitceco behar duÇujela içan bekhaturic gabe; Erran nahi dut Edo bathajoco innocenciasco Estatujan, Edo bederen Eguiasco penitent batÇujenian; bathajoco innocenciasco Estatujan, bathejatus *(sic)* gueros bekhaturic Eguin gabe; Edo Eguiasco penitentenian, bathejatus gueros Eguin tuçuyen bekhatujac dolurequin Coffessaturic, bekhatu mortaletic beiratceco eta bekhatu benialic Ere Çujen nahitara guehiago Es Eguiteco Erresolutionian.
beiratu duÇujeia ordian bathajoco innocentia hura, arropa churi Eta lili charmant hura? hori hala balin bada, hurbil Citeste aussarqui mahai Seindura Eta urusa içanen da Çujen chortia, Ceren Eta holacoec Eguiten baitute aita eternalaren ComplaCentia, jesuchristoren tronuja Eta ispiritu Seindujaren templuja Eta Egon lekhuja. hori hala balin bada, Enxeja Citeste Çujen Eguin *(page 4)* ahal gucies hil arterainocoan Estatu innocent hortan biCitCera, Eta ECin estimatuja içanen da Çujec Cerujan ukhanen duÇujen Erreconpensa
içan baduÇuje hala hala innocentia haren galceco malurra, beldurra içaiteco den beçala, nigar EÇuje Çujen faltes, Ceren Eta arras EsbaituÇuje behin Ere Erreparatuco Çujen malurra: bainan hargatic balin bekhatuja quitaturic Eguiasqui Convertitu bacirete, Çuien jaincoarenganat, halaco guisas non nahiago baitxinuquete hil Ere, Ecin Es guehiago Eguin bekhatu mortal bat, Sendimendu horietan EguintuqueÇujen Coffessione medios jarri Cirete berris jaincoaren gratian Eta hala CommuniatCen duÇujelaric jesuchristorequin bat Eguinen Cirete, gratias betheco Cituste Eta biCitCe Eternalaren bahia *(sic)* Emanen derautÇuje.
non EsCireten Estatu hotaric batian edo bercian; bainan bai Contrariosqui bekhatu mortalesCo Estatujan Egun Çujen lehenbicico Communionia Eguitian trahituCo duÇuje Çujen SalvaCale ona judassec Eguin Çujen beçala, thu bissajan Eguinen deraCoÇuje, ~~Eta~~ ÇapartaCos bethecoduÇuje, açote colpes porrocatuco duçuje Eta berris khurutcefiCatuCo duçuje, judu gaistoec Eguin Çuten beçala, <u>Rursuit Crucifigentes in Semet ipsis filium dei.</u>
bekhatu mortaleco Estatuyan CommuniatCen baduÇuje, debruja Çujen arimen possessionetan Sarcera utCiCo duÇuje Eta harc ifernuco lece icigarrirat guidatuco Cituste. ah

Cer affrontuja Eguin Cinoquetena beras Çujen SalvaÇaliari Eta Cer malurra Çujen buruier Estatu malurus hortan mahai Seindurat hurbil Eta Communia baCineÇate.
possible otheliçateque, Ene haur maitiac, idiren neÇaquejen bat Solament Çujen artian, hamabi apostoluien artian judas bat idiren Cen beçala, bere Conscientia bekhatus Cargaturic Edo Cenbait bekhatu mortal bere Coffessionian gorderic CommuniatCen presentatCen denic! gure Salvaçaliac judas traidoriari Erran Cioen beçala, adisquidia Certara heldu Cira huna Erran niçoque nic Ere, Ene haurra Certara jiten Cira mahai Seindu huntara? amice ad quid venisti! Cer! nic Çuri bicia Eman nahi, Eta Çu, EriotCiaren cherkha heldu Ciraja? Cer, hunen bece *(sic)* denbora huntan ni Çure instruitcen Eta disposatcen ari Communione Seindu baten Çuri Eguin arasteCoÇat, Eta Çuc lehenbicico aldian Sacramendujetan Seindujena profanatuco Eta Sacrilegioetan icigarriena Eguinen duÇuja? Cer phenxa ahal decaquet *(page 5)* Çuc hemendic harat Ere Eguinen dituÇun Communione hetas?
uste balin banu badela Çujen artian halacoric, mananeçaque Erretira dadila berehala bere ConCienCiari berce ordreric Emaitera Eta bere faltes nigar Eguitera, Ceren Eta a*(...)*Çutan bailiçateque, berce ordus oza allienciasco arkha *(...)*huines hunqui Çujelacoan Eriotce soupitujas jaincoac punitu Çujen beçala, Estatu Cikhin hortan Communiatus, leku Seindu huntaric athera gabe Eror dadin hil goorra.
Bainan Estut uste badela Çujen artian hain sensu gaberic, bekhatu mortaletan Communiatcera presenta laitequejenic.
Sobera instruitujac Cirete holaco aussarcia baten harceco, Sobera Erakhustera Eman derauÇuje guthicia Çujen lehenbicico Communione hunen Eguiteco, gaisco Eguin nahuÇujela beldurCunderic Ere içaiteco. Es neure haur maitiac, Es Estut dudatCen Ere EsCirela behar den dispositionetan Egun Eguitera Çoasten actione importantaren ongui Eguiteco: balin jaincoac idireten balu Escassiaric, banoha meÇaCo Sacrificio huntan haren beraren othoistera eman ditÇaÇujen behar tuÇujen gratia, lagunca, soccorri guciac Egun Çujen lehenbicico Communioniaren ongui Eguiteco, amoreCatic Eta ongui Eguin ditÇaÇujen orobat Egundic harat Eguinen tuÇujenac Eta moyan *(sic)* hortas içan Citesten bethiere mundu huntan haren amodioaren Eta berce mundujan haren loria seinduyan? Halabis

Communioniaren aitCinian

Huna non heldu niçan, Ene haur maitiac, Çujen Eta Ene SalvaÇalia neure baithan recibituric, berac nahi dujela, idirentujen Ene baithan behar diren dispositioniac arima bekhatujaren tatcha gucietaric garbituja Eta bihotÇa bekhaturaco affectione guciac quitatuja *(sic)*. hurbiltCen ari da ÇujenÇat Ere Salvaçale beraren Errecibitceco muga dohaxuja: bainan hura Errecibitu baino lehen behar tuÇuje Eguin bi gauça.
1° bathajoco promessen Erreberrimenduja. bathajoco SaCramenduja Errecibitu Cinutenian Çuien goaça aita, goaça amec prometatu Çuten Çujen pphartes *(sic)* escinutela Çujen jaincoa

offensaturen; baina Çujer Eguin ahal guCias maithaturen Eta CerbitÇaturen: hitx Eman Çuten Çujen phartes Ere *(...)* *(page 6)* Çutela debrujari Eta honen obren mand*(...)*i Eta haren pomperi haraguiari Eta haren plaCerer. promes horien aspian içan Cirete bathejatujac, bekhatu originaletic garbitujac, jaincoaren Eta Eliçaren haur Eguinac.

Beiratu otheiÇuje, haur gaichoac, botu solemnel horiec *(...)* Es othe Cirete berris ere debrujaren esclavotassunian jarri Eta jaincoaren *(...)*co ohoretic jalgui? ah sobera dira debruja artificios *(...)*, munduj*(...)*ios Eta jendia flaccassas bethiac, Sinhesteco EsduÇujela liçundu bathaj*(...)* in *(...)*tienco arropa churi Eta garbi preciatu hura. nahi bada bai; bainan Ez lotsa lehenbicico Communionia Egun ÇujenÇat bigarren bathajobat içanen da, Çujen aho propis Erreberritcen tuÇujelaric Çujen goaça aita, goaÇamac Çujen bathajoan Çujen phartes Eman Citusten promessac.

goardia beras, neure haur maitiac, Ceren galdeguitera nohatÇujen! Eta ihardetx deÇadaÇuje batere gueÇurric gabe clarqui Eta Eguiasqui mihis eta bihotses! Esdeja Eguia içan duÇujela malurra bathajoco botuien hauxteco Eta Çujen jainco onaren offentsatceco! bay jauna.

Balinba dolu Eta urriqui handi duÇuje Egundaino EguintuÇujen bekhatu gucies? bay jauna.

ordian Çujen jaincoari gucies barkhamendu Eta misericordia galdatCen diosuje? bay jauna.

ErrenonCiatCen dioÇujeja berri berritan Eta Seculacots debrujari eta haren obrer, mundujari Eta haren pomper, haraguiari Eta haren plaCer *(sic)*. bay jauna.

prometatcen dioÇujeja Çuien jaincoari, hemendic harat ongui maithatuco, adoratuco, Eta CerbiÇatuCo duÇujela? bay jauna.

Bay beras, Ene jaincoa, bay, emeÇu, othoy haur gaicho hojer beren bakhatujen barkhamenduja, khurutCian hirur itxes jossia Cinaudelaric Çure aita Cerucoari *(...)*es Cinaunden barkha CiÇoten Çure Exajer; Ecic Esçaquitela Cer ari Ciren. pater igarosce illis; non Enim SCiunt quid faciunt. gauça bera Erraiten derautÇut nic Ere haur hotas. offensatu Cituste Eguia da, Bainan EsÇaquiten Cer ari Ciren. barkhamendu Eta misericordia galdatCen derau*(... ...)*, ikhussiric dolu handitan direla Ceren ofensatu *(page 7)* Citusten, bai Etare Erresoluionetan hemendic harat bere Eguin ahal gucias bekhatutic beiraturic Çure gogoaraco Eta bere obligationen araveraco bicitce banaren Eramaiteco.

2° Çuiec Eguin behar duÇujen bigarren gauça Çujen aita, ame Etaburhassoen Errespeturacoa da. EçagutCen duÇuje apparantias jaincoas landan EsduÇujela nehori hainberce obligatione, nola hejer. hejec Çujen hasteco hartu Eta hartcen ditusten penac Estira ttipiac; hejec Çujen instruitCeco Eta instruiarasteco duten arta laudagarria da. Çuien jende pherestu atherarasteco Eta jaincoaren bide Seindujan ibil arasteco handisqui presumitCen dira. Eta Çujec, haur gaichoac Ces EÇagutÇa içan duÇuje orainocoan hejen alderat? Ez othe tuçuje ingratassunes pagatu Eta Çuien Esquergabetassunes, desobedienties, arrapostu gaistoes Eta Errespetu Escasses hanitx aldis offensatu?

Beras orai behar desaeÇuje Erreparatione publico bat Eguin Eta gucien aitCinian barkhamendu galdatu.

aithorcen duÇuje beras, Ene haur maitiac, Çuien guehienac offensatu dituÇujela Eta hejen alderat ingratassunian Erori Ciretela? bay jauna.
Balinba dolu duÇuje Eta barkhamendu galdatCen dioÇuje? bay jauna.
ordian prometatCen duÇujelaric hemendic harat hejen gogara *(...)* Eta ahalden Errespetujaren Ekharceco? bay jauna.
Curaje beras, Ene haur maitiac, Curaje Çuien aita/amec Eta b*(...)* Çujen CorrigitCeCo Cenbait idortassun Erakhuxiagatic Ere, Çujen alderat Sobera dute amodio, Cujer orainoco hutxac Ezbarcatceco. horra non Cireten beras Çujen jaincoarequin Eta Çujen aitCindariequin ErreConCiliatujac. EsderautÇujet berceric Errecommendatcen, baicic Ere Egun hemen jaincoari Eta guri Emaiten deraisquiÇujegun promesses ardura orhoitcia Eta Çujen Eguin ahal horien Complitcia. Sendimendu horietan Ciretelacoan banoha orai desiratCen duÇujen Communioniaren Emaitera

Confiteor

## *VI*

*(Saint Julien d'Antioche, dont le texte qui suit porte le "second point du panégyrique", est le dédicataire de l'église d'Ahaxe et de deux maisons nobles médiévales du lieu. A ce texte a été ajouté un fragment du "panégyrique de saint Fructueux" annoncé dans la dernière ligne du précédent. Les deux sont donc incomplets. Le filigrane du papier laisse voir un nom en majuscules qui semble être GRIVET et une cloche apparemment ailée et surmontée d'une fleur de lys. L'écriture a des traits nouveaux: disparition de la plupart des majuscules internes aux mots, alinéas en début de paragraphe, z régulier au lieu de s pour la sifflante dorso-alvéolaire).*

### *1*

*(page 0)*

Second point du panegyrique de St ~~Jiul~~ Julien

*(page 1)*

+

bi gauça dira particularqui necessario Eguiazco martir içaiteco. 1° Soffritu beharda Eriotce panatuia pacientqui eta bolondresqui defendatu gabe tiranoen contra Jesucristoren exemplura. 2° Soffritu beharda Eriotce hura fediaren edo cenbait berce berthuteren edo obra onen sostengutan Jaincoaren amorecati, guissa hortan martirioa soffritcen duiena graciazco Estatuian Jarten da, ~~martis~~ martirioac borratceintu haren bekhatuiac, gracia emaiten, eta arima santificatcen, tertulianec dio bekhatuiac oro barkhatcen direla obra handi hartan, erran nahi du martirioan, omnia huic operi id est martirio peccata donantur, cum damnamur a judicibus, a deo absolvimur, ecic balin bathajoco, eta penitenciaco sacramenduiec badute

indar eta berthute hura hain onxa martirioac iduquiten duienaz gueroztic heien plaça, eta denaz gueroztic hec ere baino privilegiatuiagoa.

principio hortaric Erraiz da conclusionia atheratceco, eta ikustea S.$^{t}$ Julien çuien patroin handiac goraqui eta arraçoin justuz posseditu duiela martir dignitatia perfeitqui conplituituienaz gueroztic Eguiazco martir içaiteco necessario diren condicioniac. lehenbicicoa da soffritu behar dela Eriotce penatuia. bada içan daja *(sic)* Egundaino Eriotceric S.$^{t}$ Julienena baino penatuiagoric ez cruelagoric harc soffritu doloriac içan dira hain borthitzac non impossible baitcen guiçon choil batec hanbat soffriceçan miraculuz Campoan, haren martirioaren circunstanciac sarri ikhus eta ondoan aithorturendugu haren Eriotcia içan dela Eriotce gucioetaco penatuiena.

Çuiec ongui daquiçuien gauçabat da guiristinoac, dioclecian eta maximian Emperadore cruelen denboran S.$^{t}$ Julien cela guiçon gazte Seindubat aita ama noble aberax eta Jeincoaren beldurra çutenetaric antiokhiaco hirian sorthuia, Jesuchristoren religione seinduco mysterioetan haur haurretic instruituia, Espiritu *(sic)* seinduiaren dohainez gantçutuia, eta munduco placerer, eta vanagloria gucier guibelaz itçulia, badaquiçuie oraino virginitatiaren beiratceco botuia gazteric Eguin çuiela, eta *(page 2)* halere bere aita-amer obeditceco hemeçortci urthetan ceruco inspiracionez Ezcondu cela basilissa çaritçon emacume noble perfeit batequila, eta ezconçaco obretan khotxatu gabe anaja arreba batçu beçala garbiqui bici içan cirela, eta hobequiago Jeincoaren cerbitatceco beren aita amer utci onthassun handiac prober emanic bata alde baterat, bercia bercerat Joan cirela paganoen instruitcera, eta Jesuchristoren leguian arguitcera halaco guissaz non heien ondotic abiatu baitcen quasic mundu gucia. norc khonda ezelitçaque *(sic)* heiec Eliçan Eguin dituzten frutuiac eta effectu miragarriac? metaphrastes autor handiac heien bician erraiten deraucun beçala argui handi batçu ican dira Eliçan ez choilqui Exempluz baina oraino doctrinaz, moysesec Jeincoaren populuia Egiptotic athera eta ondoan berrogoy urthez desertuiac gaindi lur prometatura guidatu çuien beçala çuien seinduaiac ere bere Exhortacione ederrez antiokhiaco Jendiac ceruraco bidian arguitcen eta guidatcen cituien, bay eta Eguiazco Jeincoa baithaco fedian eta amorio seinduian entrentenitcen *(sic)* halaco guissaz non erran baitecaquegu S.$^{t}$ *(sic)* gure salvaçaliaz beçala S.$^{t}$ Julien aguertu baino lehen itçalic eta ilhumberic baicic ikusten ez ~~çuiela~~ cuien populuia argui divinoz bethe çuiela gucia, populus qui sedebat in tenebris vidit lucem magnam

Sobera geloscoa çuien Exay iffernalac haren inocentiaz eta harc bere Jeincoari beiratcen ceracon fidelitate handiaz, begui gaiztoz ikhusten çuien haren fermutassuna, eta jesuchristoren intressen sostengatceco curaje handia, ikusten çuien Egunetic Egunera asco miraculu eta conversione Eguiten çuiela, quod perirat requiram, paganismoco apeçac bentçutcen eta confunditcen cituiela, haren erressuma galduia çohala; haren templuiac, aldariac, eta idolac erhauxten eta destrutcen cituiela, cer Eguiten du persecucione cruelbat altcharaztendu, dioclecian eta maximian denbora hartaco emperadorec ordenatcen dute

guiristinotassuna mundutic cassatu behar cela supersticionebat beçala, eta hartacotçat S[t] chrisostomorequin mintca nadin cenbat cruelitate, cenbat guerla, eta tempesta ezçuten altchatu Eliçaren contra, quot exercitus instructi, quot avena mota, quot afflictionis, et vindictœ genus Excogitavunt? *(page 3)* bainan Eliça ezçaiteien destrutuia içan persecutione hartan ceren colonaric edo tepossic borthitzenaz sostengatuia baitcen, iffernuiaren furiec, eta tempestec Eliçaco barca ecin fundi ceçaqueten, ceren piloturic segurena berequin baitçuien, Eliçaco haurrac Espiritualqui ecin hil citçaqueten, ceren espiritu Seinduaic animatcen çuien guiconic seinduienaz conseilatuiac, eta guidatuiac baitciten, lehenago mathatiasec bere haurrac Eriotceracoan leguiaren sostengatcera exortatcen, eta animatcen cituien beçala, S.[t] Julianec *(sic)* ere antiokhiaco fidelac fedian fermu Egoitera eta eta *(sic)* jeincoaren ohoretan bicien galtcera curajostatcen cituien, eta israeleco haurrac Egiptoan pharaonen persecucionian beçala cenbatenaz ere guehiago persecutatcen, eta tormentatcen baitcituzten, hanbatenaz guehiago emendatcen eta borthitzten ciren, quantoque opprimebat eos tanto magis multiplicabantur.

Nola çuien seinduiac baitçaquien marcian antiokhiaco gobernadore cruelaren ordenança ceinec ekharten baitçuien hirico etche gucietan iduquiren çutela idola edo jeinco falxu bana, eta hec adoraturen cituztela, badohaco lasterca aitcinera curaje handirequin erraitera cruel bat dela, gaizqui dabilala, khambia dadila, eta Jeinco falxuiac utciric Jesus Salvaçalia Eguiazco Jeincotzat adora: asqui cen hura, presso hararaztendu eta igorten cachotera, handic ~~erkhar~~ Erakharten laburqui bere aitcinera, eta deliberatcendu cerbait ere guissaz bentçutu eta beretu beharduiela, hartacotçat hasten çaco lausenguz eta balacaz, bainan ecin deux irabaz deçaque haren gainian, ikhusiric denbora galtcen çuiela khambiatcen du lausenguia mehatchura, manatcen du gogortassun handirequila haren Jeincoer sacrifica deçala, beinan ez da probotchu, haren manamenduiaz trufatcenda, ihardextendu goraqui Eguiazco Jeincobat baicic ezdela, hari choilqui bere sacrificioac offritcen darizcola, eta hura choilqui harc eta haren lagunec adoratcendutela, hanbatequin tirano miserable hura desesperacionian jartenda tormentaraztendu julien handia ecin erran daitequen beçala, ikhusaçuie çuien seinduia burrego cruelez inguratuia *(page 4)* haren gorputz gucia açote colpuz çathicatuia, haren çain guciac odol huxtuiac, eta haraguiac elgarganic partituiac, akhabatuia da, eta bere itchuran mudatuia, eta ustez khambiaraciren duien igorten du burregoac ondotic hiri gucian passayatcera, han derabilate carricaz carrica burdin khadenez Estecatuia.

gucien gatic ezcen probotchu porroca ahal ceçaqueten, bainan garhait ez hil ahal ceçaqueten bainan khambia ez, haren gorputzeco indarrac Emequi emequi flacatcen hassi ciren doloren portchaz, bainan bere martirioco instrumentec gueroago guehiago curajostatcen çuten, heran Espirituia fedia, eta Jeincoarenganaco amorioa gueroago guehiago borthitzten, fincatcen, eta Seguratcen ciren, tormenta gucien artian ez cen batere mobitcen ez impacient errendatcen, baicic borondate onez guciac errecibitcen, pacientqui soffritcen, eta bere

alegranciaric handiena hetaz Eguiten. Errepausian içaiteco hitz baten Erraitia asqui çuien ezçuiela Jesuchristo Eguiazco Jeincotçat eçagutcen, hanbatequin quito içanen cen, bainan nahiago cituien pensa ahal gaitçac soffritu, ecinez bere nagussiaren intressac trahitu eta bere fidelitatia hari faltatu

Nolaco Errabiadura marcianendaco ikhusten çuienian trufatuia cela eta celse haren semia ere Julienequin Juntatu cela, eta harenganic Ecin partiaraz ceçaquela, desesperacionian su handibat pitzaraztendu Eta hogoy eta hameca bertz handi, edo cobrezco preparaturic, eta olioz eta arrochinaz betheric, eta Sutan ceraquitelaric Egotz arazten du Julien handia hetan barna berelagunequila, bacen han oihuric eta marrascaric asqui orduian, cruelitate hari ~~baca~~ beha çauden guiristino guciac suspiraz era nigarrez hasten dira, ah gure nagussi maitia, adio seculacotz Jesus-christoren legue seinduiaren sostengaçale fidela, adio gure protectora eta Eliçaten defensa, adio dulcetassunaren, eta pacienciaren mirail ederra, horra bera çure azquen urhaxa suiaren erdira olio eraquitura, gauça estonagarria, guiristinoac, miraculuiaren handia, badaude guciac han cenbait denboraz Jeincoari othoitzetan

hemen ikharatcen niz gucia, Ecic nola suiac baitaduca Element gucien artian lehen plaça, segur da halaber hartan dela guiçonac soffri ahal deçaquen tormentaric borthitzena, eta dolore minena, hargatic *(page 5)* bekhatore guciac Justicia divinaz Condenatuiac dira iffernuco Sura. Suia da Elementbat hain bicia eta indarxuia non ordinariozqui instant batez gorputzaren nagussi errendatcen baita, doloreric handienac bicier soffriarazten, eta hilen heçurrac berac Erhauxten. açotiac, elhorriac, burdinac, khurutciac, estirac, gorputzen mailucatciac, laurdengatciac, lapidatciac, ~~eta~~ biciric larrutciac, eta berce gaineraco eriotce suertiac deus guti dira suiaren indarrarequin, eta harc soffirarazten dituen dolorequin comparatceco. bada hartan ere Jeincoac porogatu nahi içandu St. Julien handiaren berthutia, tanquam aurum in fornace probavit illum dominus.

ah seindu ederra burdinaz eta altceiruz cena çure gorputza, cobrez edo cenbait berce metale~~z~~ suertez Eguina cinena, galdu cinuiena sendimenduia, edo soffritcetic libro cinena, ez dudaric gabe seinditcen cinituien Suz eraquitcen Eta çure gorputzaren fritcen ari ciren olioaren, eta arrochina cikhinaren indarrac, eta effectu guciac, bainan bacinuien hanbat amorio Jesu christo çure nagussiarendaco, non tormenta hec oro placer handi batçu baitciren çuretaco, Emaiten cinuien Erakhustera cure consolacione gucia cela Jeincoaren ohoretan, eta haren intressen Sostengutan Soffritcia, consolabitur me lectulus meus.

Nolaco desesparacionia *(sic)* marcianendaco bere beguiez ikhustia suian purificatcen, eta arrafinatcen den urhia baino purago eta fermujago olio Eraquitutic Jalguiten dela Julien handia bere lagun guciequila, eta beguiac altchaturic cerura Jeincoari Esquerren Emaiten aridirela, miserable hura hanbat nahassia eta ikharatuia da non ezbaitaqui non den, cer ariden, ez cer Eguin beharduien, igorten du çuien seinduia oraino ere pressundeguira, eta han convertitcen deraco marceolina *(sic)* bere Emaztia, han ciren guiristinoac, ~~han ciren guiristinoac~~ han ciren tiranoaren azquen desesperacioniac, biharamuna Jin daja bay burutic

larruaraztendu, burdin cihite batez beguiac atherarazten, eta guero bestia cruel gosse minthu ~~bat~~ batçuien aitcinian paratcen, halaric ere ezderacote dainuric batere Eguiten, baicic bere çauriac milicatcen. *(page 6)*

bainan azquenecotz S.t Julienen Egunac, orenac, eta tormenta guciac behardira, iganaraztendu chafotera, eta picarazten lepoa, huna çuien patroin handiaren eriotcia. balin beraz S.t Julienec pacientqui eta ~~constant~~ bolondresqui soffritu badu hanbat tormenta, eta eriotceric cruelena Jesuchristoren ohoretan, eta haren fediaren sostengutan, convenitu behar guira goraqui eta arraçoin iustuz posseditu duiela martir dignitatia, eta bere penec altchatu dutela gloriaco gradoric gorena *(sic)* discurs hunen lehen punduiaren akhabantçan eman daritçuiedan arraçoinen Conformera

ala gauça ona baita, eta ossoqui abantailosa & on trouvera la morale dans le panegirique de S.t fructueux .

*2*

*(Fin du panégyrique de saint Fructueux, reste d'un petit cahier relié de fil noir constitué de feuilles pliées en quatre, pages de 17,5 cm sur 12,4. On remarquera que l'actuel "Murthuts" dérivé de "Fructuosus" était encore sans nasalisation "Burthus" en Cize à la fin du XVIIIe siècle.)*

*(page 1)*

ariciren, bainan handic beretic lurrabaino apalago jarten cen, hau cen Cataloniaco ta aragoaco apostoluia, catholicoen arguia, eta hereticoen ikhara, bainan halere deus ezbat~~cen~~ çaducan bere buruia; predicatcen çuien penitencia, ~~bainan bekhatuiaren seminariobat deitcen du bere buruia~~ eta bera cen gucia penitencia instruitcen cituien apezpicuiac Eta Eliçaco berce aitcindariac, bainan bere Jaquintassun guciequila munduguciaren oinen azpico cerbitçatu nahi da atacatcen eta bentçutcen cituien hereticoac, bainan Eliçaco membro inutilbat beçala Estimatcen du bere buruia, predicatcençuien Jesuchristoren morala garbia, ah ez niz on deusetaco, bere buruiagatic dio ezdut deus balio ez Eliçaco ez munduco, huna Jondone burthusen bihotzeco seindimenduiac, huna nola mespretchatcen cituien munduiac Emaiten ciotçan ohoriac Eta laudorioac; huna nola mundu huntan Seguitu nahi içan dituien bere nagussiaren urhaxac, eta imitatu haren berthuteric ederrenac, huna nondic içan den Jesuchristoren dicipulu Eguiazcoa, qui mihi ministrat me sequatur

Bainan ezta han gelditu, gorago nahi içandu bere merechimenduia altchatu, Jondone *(page 2)* pauloc dio guiristino berthutos perfeiten bihotzac Eta Espirituiac Egon behardirela guretaco hil den Jeinco crucificatuiaren baithan fincatuiac, aspicientes in autorem fidei Et consummatoren *(sic)* Jesum, bada gure seinduiac punduren pundu seguitu du Jondone pauloren auiSuia, hunen bihotza eta Espirituia Jesus baithan fincatuiac Egon dira, hari Jarraiquida, harendaco soffritu du Eriotce cruela, aspiciens in autorem fidei & populu gucia bere Exempluiaz animatu, Eta bere doctrinaz arguitu eta ondoan, nola baitçaquien tiranoac

haren cherkha çabiltçala, badohaye aitcinera, eta diotxe, Çatozte burregoac Ezterautçuiet Ihessic Eguinen, paratuia niz, tormenta gucien soffritcera, Eta mila aldiz hiltcera, çato Emiliano tristia, balin Ecin Ederex badeçaqueçu ene bicia ordenadaçu Erio colpuia, hura da nic galdatcen derautçudan gracia, bide hartaz Ene arima ceruian Juntatu beharda bere nagussiarerequila, eztu faltatcen, su handibat pitzaraztendu, Eta condenatcen Erretcera Jesuschristoren victima Jnocenta, han chipiltcen Eta Jesuschristorendaco hiltcenda gure patroin gloriosa - *(page 3)*

Ala gaizqui seguituia baita Seinduiaren Exempluia nonda hunen castitatia imitatcen duiena? beldur niz original sacratu hunec Copiaric ezduien, libertinqueriac gaindi Eguindu, oray ezda pensamendu desonestic, Eta concupicenciaren desordreric baicic, cenbat liçunqueriaco habituda, cenbat escandala aguertcenda. nonda Jondone burthusen temperancia Edo Sobrecia imitatcen duiena? non da sabelari bere placerac Errefusatcen, Eta bere apetituiac mortificatcen dituien guiristinoa, oray ezta deboizqueriaric, hordiqueriaric, Eta gormandiçaric baicic.

Nonda finian Jondone burthusen humilitatia imitatcen duiena, norda bere ezdeustassuna Eçagutcen Eta aithortcenduiena, non bere hitzetan, obretan eta pensamenduietan humiliatcendena, Eta munduiaren aldetic, lausengarietaric Errecibitceintuien ohoriac Eta laudorioac mespretchatceintuiena, bada oray urguluric, Eta presumpcioneric ikhustendugu ambicioneric, handitassunic eta banitateric baicic, huna certara Erori den *(page 4)* Evengelioa *(sic)*, huna certara paratu den Jondone burthusen Exempluia. ah seindu handia asco devot Eta dicipulu duçu itchuraz, guti obraz.

Bizkhitartian guciec desiratcen guinuquen gauçabat da Egungo patroin handiaren ondotic cerurat Joaitia, bada Erranenderautçuiet Impossible Jçanen dela non ezguiren bicitcez khabiatcen *(sic)* bekhatuia quitatcen, gure passioniac mortificatcen eta Jondone burthusen berthutiac Imitatcen, Jondone burthusec bere berthute guciequila soffritu bahar içandu martirioa, Eriotce cruela cerurat Joaiteco, Eguia da, bainan ezda hura Jeincoac guri galdatcen deraucuna, S.t augustinen terminoez cerbitça nadin, gure passioner guerla Eguitia, Eta berthutiaren praticatcia da Jeincoac gureganic Jruriquitenduien Eçagutça, Eta harendaco soffrideçagun ,ahi duien martirioa, pars magna martiri est, balin hala Eguitenbadugu Jeincoaren borondatia seguituco dugu munduhuntan Eta guero ondoan Errecompensatuiac Jçanen ceruian haren gloria handian

halabiz.

## *VII*

*(Cahier relié de fil brun, papier plié de même format et apparemment de moins bonne qualité, portant en filigrane une main d'un côté et deux lettres majuscules qui semblent être OB de l'autre. L'écriture semble de la même main que les textes précédents malgré quelques*

*variantes graphiques. Le lexique basque est plus riche mais les calques romans plus nombreux.)*

*(page 0)*

Sermon pour le jour de noel

*(page 1)*

______________________________ +

__________________Natus est uobis hodie Saluator math 11°

Egun Sorthu da Çuiec Saluatu beharcituzten haurra

mundujan ezta jçan Sortceric Egungo bethlehemeco haurrarena becen misteriosic eta hain instruccione handitacoric; goacin beraz espirituz guciac Hara gure malhuren Erreparatcera heldu den haur divino haren ikhustera, han ikhussico dugu aingueruiac Jauxten direla ceruticlurrera haren laudorioen publicatzera, han ikhussico dugu artçainec beren tropac quitatcen dituztela haren adoratceco, bay Eta Erregue magoec beren thronuiac beren nagussi haren Ezagutceco. han ikhussico dugu Judea gucia trublatuia herodes ikharatuia, Jeinco falxuiac confundituiac, Eta debru guciac haren presencian mututuiac, goacin beraz berriz ere bethlehemeco Establiara hango misterio handiaren admiratcera, videamus hoc verbum quod factum est

Emaztebatenganic haur bat han sortcen da, bainan Emazte hura virgina da, Jeincobat Etçanada Establia hartan, bainan Jaquiada *(sic)* ceruian, bestia batçuien Conpainian da bainan espiritu dohaxuiec publicatcen Eta celebratcen dute haren Sor eguna, hunenbat guissaz humiliaturic dagon haurra, Eguiazco Jeinco Salvacalia*(...)* cerutic heldu çaucu present aberax hura, amorio divinoac Jauxaraztendu handic guregana guretçat bere aitari offritcenda han bere minyateran, bere sacrificioco lehen aldarian beçala. finian han ukhussico ditugun gaucec Estonatuco guituzte bere berritassunez, Consolatuco beren fau*(...)* handiez, Eta instruituco beren Exemplu Ederrez. badaja gauçaric, badaja gauçaric guiçonbat Jeincoaren pare Eta haren bardin sortcia becen instruccione handitacoric, bizkitartian hoc guciac Egun bethlehemen arrinatcen dira, Jeincoa guicon Eguinda, verbum caro factum est.

Badaquit, guiristino fidelac, deusere eztela Ene Eguinahala, cuier Egungo misterio handiaren ongi Explicatceco, halere mintçaturen nitçautçuie indigneric, Eta Errepresentaturen imperfeitqui bederen gure naturaz beztitu den Jeincoac guregana ukhan duien amorioa, Errepresentaturen deraujtçuiet guissa berian batbederac haregana behardugun Eçagutça, Eta bihurtçarrena, Jesuchristoc Egungo bere Estatu apalian guretçat ukhan duien amorioac Eguinendu Ene lehen punduja, harc berac han Eguiten Eta Emaiten derarizcun Exemplu berthutossen imitacioniac Eguinendu bigarren punduia Eta Çuien attencione onaren Sujeta Espiritu Seinduiari galdatu ondoan bere Socorriac Eçarriric ararteco bere Espossa Jesusen ama, Erraiten deracogularic ainguеruiarequin aue maria

aue maria.

*(page 2)*

Egundaino munduyan aguertu, Eta ceruyac lurrari eman dion berri Dohatsuyena Eta charmantena Egun içan da ainguerubatec abisatu Çituyenian artçainac berriqui sorthu çayela Saluaçalebat, Euangeliso uobis gaudium magnum, quia natus est hodie Salvator. dudaric gabe guiristinoac Egun ukhan du munduyac berrietan den abaltailatuyena, ceren aguertu baita gure miserien Eta bekhatuyaren Erremedioa, dembora batez ceintan debruyac baitceduzcan *(...)*uric nacione guciac, ceintan oraino guiçonec itxuqui adoratcen baitçuten creaçalearen lekhutan creatura, Eta preferencia criminelbatez maitatcen, seruierunt potius creatura quam creatori. Demborabatez Ceintan ez solament Jende comunac, baina oraino çuhurrec Eta handiec ez baitçuten guidatçat arraçoin flacubat baicin *(sic)*, leguetçat ambicione gaixtobat, Eta Exemplutçat asco tromperia, dembora batez ceintan Jeincoac urricalduric guiçona igorri baiteraucu bere seme bacoitcha, ceinec behar baitçuyen destrutu bekhatuya, Eta gracia Establitu Eta altchatu ondoan munduya Saluatu.

*(en marge:)* corrupta est terra coram deo repleta est iniquitate

Orduhartarano Ez cen munduyan Corrupcioneric, Eta iniquitateric baicen, idolatrez Eta paganoz gaindi Eguin *(...)* gucia, Ez cituqueyen seculan Jesuses bercec Eri hec sendotu, guiçon Errebel hec bide chuchenera guidatu, Eta bekhatuyac itxutu hec arguitu eta lehenbiciric espirituyaren Eta naturaren chuchentaSsunac, ceren khambiatcen baitçuten Eguia gueçurrera Eta maithatcen vanitatea, commutauerunt ueritatem in mandacium ez eta ciencia Ederren estudioec, guiçonic abilanac Eta Sauantenac beren pensamendu Ederretan galtcen ciren; Ez Eta orano leguearen Eçagutçac, Ceren ~~Ecag~~ erakusten baitçayen gaitça bainan ez sendatcen

Goacen Bethleemerat han causiturendugu Jesus baithan gaitz gucien Erremedioa, han causituco dugu Jeincobat gure naturaren Esposatzera Eta aberaxtera Ethorria, han Edirenen dugu Jeinco misericordios bat mundura Jena *(sic)* bere anaya hautatuyer biciaren Emaitera, Eta infernuco pena justuetaric libraturic heyen cerurat Eremaitera. han ikhussico dugu gure Erreguea iguzquiac bere arrayoes ~~cet~~ ceruya beçala, mundu gucia arguitcen Eta alegueratcen duyela.

possible daya bada, cioyen berçorduz Salomon çuhurrac, nahi duyen *(page 3)* Jeincoac lurrian habitatu, Eta guiçonarequin Compainiatu, norc Sinhexi çayen gure gana çuyen amorioac obligaceçaqueyela hain beheratcera, Eta ezeztatcera, bizkhitartian hauda Egungo misterio handian arribatcen dena, gloriaco Erreguea Eta ceruco Eta lurreco Jauna guiçonaren bardin Eta higoal Eguinda Et verbum caro factum est.

O gure eguiazco Jeincoa ala obligacione herxiac batititugu çuregana probe guinen bainan aberaxtu guituçu. Esclavo guinen, bainan libratu guituçu. bekhatore Eta Jeincoaren Etxay guinen, bainan libratu guituçu Erreconciliatu Eta Salvatu. Cer guinen gu çure amorioa merechitceco, Eta çureganic hambat fauore Errecebitceco. baina oraino gure obligacionian guehiago Emendatcen dituyena da, gurj bere graciac hobequi procuratceco, Eta

communicatceco hautatuduyen moyena Eta bidea. nahi içan da lehenic gure infirmitate Eta bekhatuco Estatuyaren idurira Sumetitu Jesuchristo gure salbaçaleac, Jondone pauloren arauera bere populuyaren bekhatuyac purgatceco, Eta guregana çuyen amorioa ~~Eta~~ norarano hedatcencen erakhustera Emaiteco behar içandu bere anayer higoalatu, debuit per omnia fratribus similari, ut misericors fieret Et propitiaret deluta p*(...)*uli

Ukhandeçaçuyen amorecatic Egungo misterioaren Gainian Eçagutça ttipibat Suposatu behar dugu Ecin Errepara Çaiteyela guiçona Satisfaccioneric gabe, Eta Satisfaccione harc içaitcotz ossoa bi gauça galdatcen cituyela. lehenbiciric cenbat ere baitcen urgulu bekhatuyan, beharcen hambat humilitate haren Satisfacalia baithan, bigarrenian Cenbatere gaitz Eta malhur Eguin baitcieyen adamen inobedienciac, hambat moyen behar çuyen cherkhatu Jesuchristoren obedienciac hetara bera sumetitceco. noiz ere beraz nahi içan baita guiçona bere urguluz Jeincoarequin comparatu, gauçaric bachoena nahi içanda gorenaren contra altchatu, beraz urgulu haren destrutceco gauçaric gorena behar içanda beherenera humiliatu Eta apaldu. hartacotçat trinitateco hirur preSonetaric bata ezeztatu behariçanda, oportuit ut tanta esset ~~presumptio~~ humiliatio in Expiatione quant fuerat prœsumptio in prœvaricatione. berçalde noizere guiçonac hedatu baitçuyen Escuya fruitu deuecatura, halaco guissaz Eguin çuyen *(page 4)* bekhatu, non haren gaztigutan condenatu içan baitcen dolorera Eta Eriotcera, beraz berme Sarthu dena behariçanda Sumetitu adamec bere ondocoequin merechicituyen penetara.

Egun Bethleemeco Establian hoc oro complitcen dira. maiteguinuyen gloria Eta libertatia, bainan Jeincoa guiçon Eta esclauo Eguinda. maiteguinuyen abundancia Eta placera, bainan Jeincoac hautatu ditu veretçat probecia Eta doloria. gure natura condenatuya cen Eriotcera, Eta harequin nahi içanda Jeincobat Juntatu ~~debuit per omnia fratribus similari. bekhatuyez Eta ignoranciaz campoan bere anayer berdindu Eta higoalatu nahi içandu~~. natura estrager bati Juntatceco deSseinian harceçaqueyen aingueruyena, ~~bita~~ guehiago proporcione Ere içanen cen Espiritu dohaxu heyen Eta haren artian, bainan Jondone pauloc dio, ainguerúyac han utcidituyela hartciagatic abrahamen arraça; Semen abrahœ apprehendit. bainan ezta hori asqui nahi cenaz gueroztic natura humanoari Juntatu formaceçaqueyen bekhatuyaren thatcharic gabeco gorpuzbat, bainan Euangelisten arauera gure natura bekhatuyaz ~~com~~ corrompitu hura hartu nahi içandu, Eta bekhatuyaz Eta ignoranciaz campoan ere berce gucietan ~~guer~~ gurequin berdindu Eta higoalatu. debuit per omnia fratribus similari.

Escritura Seinduyan Juyen hamalaugarren capituluyan Jracurten dugu Samson Egun batez Joan cela Ramatha daritçon lekhu batera, Eta han ikhussiçuyen philistinabat hambat agradatu çangola, non legue gucien contra bere aitari Ezcontzaz galdatu baitçuyen, hanc mihi accipe quia placuit oculis meis, Eguin çuqueyen aliencia Ederagobat *(sic)*, baieta Causituren Emazte fidelagobat, Esposatu içan balu infidel harçaz bercebat, Ezcen içanen ondoan hola desohoratuya, Eta bere Etxayer libratuya, bainan maite baçuyen ber asqui cen; hura nahi ukhan çuyen, placuit oculis meis ceren Jeincoac hautatu Ere çuyen philistinoer guerla

Eguiteco Eta haren populuyaren libratceco infidel heyen Escuyetaric, arraçoinic asqui çangon heyen lurrerat Jauxteco, Eta han alianciabaten Eguiteco,

Jesus gure Salbaçalea, Eta Samson bano infinituqui borthitzagoa, Eta çuhuragoa, bacinaquien cenbat gosta behar çauntçun *(page 5)* gure naturarequin Eguiten cinuyen aliencia, Eçagutcen cinituyen haren bachotaSsuna, Eta haren infidelitatia, ikhusten cinituyen harequilaco unioniac Ekharri beharçaritçun penac Eta humiliacioneac, Bainan gure gana cinuyen amorioac, Eta gure libratceco desseinac garhaitu dituzte Consideracione hec guciac, den beçalacoa agradatu çautçu gure natura, Jautxi nahi içan çira gure gana haren esposatcera hautxi dituçu Ezcontça hartaric guibelatcen cinitusten legue guciac,

hunenbat humiliaturic dagon Salbaçaleac, guiristinoac, aita Eternalaren bardin da Egundanodanic, natura bera da, bothere bera, Eta independencia bera, haren escu ttipittoa oihalbatçuz dira estecatuyac *(sic)*, bainan bere erhiric ttipienaz kharrayatcen du mundu gucia, minyatera batian datça, bainan postura hartan ezta *(en marge:* Dio S.[t]leon*)* indar escas bat, baicic misericordiazco humiltaSsun bat, inclinatio miserationis est, non defectio potestatis. Eçagutdeçagun beraz ttiptaSsun *(sic)* hartan haren handitaSsuna, apaltaSsun hartan, haren majestatia, flacaça hartan haren indarra, Ezguiten ahalgue içan haren Establian Sartcera den proberic Jaincoaren Etchea da, Eta guiristinotaSsuneco lehen templuya.

Cerentçat ustuduçuye *(sic)* haur çuhur harc hautatu dituyen beretçat gauçaric gogorrenac Eta gaitzenac, nola baitira hain probecia handian, halaco gau hotcian, Eta lekhu Satxuyan Sortcea, ez berce arraçoinez, guiristinoac, baicin munduco çuhurren çuhurtcia, eta prudenten prudencia confunditceco, Eta Jaquin deçaten amorecatic munduyac mespretchatcen dituyen gauçac direla Eguiazco onac Eta onthaSsunac. auariciosac! ikhusaçuye nola bere probeciaz condenatcen dituyen çuyen ontaSsunetaraco estecamenduyac, urguluxuyac guardiaçaçuye nola bere humilitatiaz Confunditcen duyen çuyen uanitatia, ber eztitasunaz çuyen bihotz gogorrac, bere chahutaSSunaz çuyen satxuqueriac, bere sobretaSsunaz çuyen gormandiçac, Eta bere membroetaco hotçaz Eta ikharaz Çuyen delicatotaSsunac Eta placerac, ceruco Eta lurreco Jauna da bainan nahidu ceSarren Suieten artian confundituya içan, hobequiago Eçagutarazteco bere dependencia permetitcen du Joan daquion bere ama nazaretetic bethlemerat bere icenaren Emaitera ~~Edit~~ ceSarrec Eman çuyen Editaren arauera, bide luciac akhabatuyac arriuatcen Dira *(page 6)* bainan ezta Judea gucian ostaturic heyentçat, hetaz berce guciec causitcen dute lekhu Erretiratceco, bainan heyen aldicotçat oro faltatcen dira, alferretan dabila Etchez Etche Joseph Justuya guciec Errefusatcen dute.

badoaci beraz hambat penaren ondoan gau ilhunaren passatcera animaleric baicin ostatatcen ez cen borda liçun batera. han da Jesuchristoc beretçat hautatu sorlekhuya, Eta certaco ah cereneta guiçona Eçagutu faltaz bere creacionian Jeincoac Eman ceracon dignitatea, bestia batçuyen pare Errendatu baitcen bere bekhatuyaren causaz, heyequin behar çuyen bici Eta Conversatu, beraz nahidioyenaz gueroztic Jesusec altchatu guiçona bere

leheneco dignitate hartara Establia batian beharDu hura cherkhatu, Eta nehi deraionaz gueroztic Eman jatera bere gorputça, minyatera batian Jarribeharda belharraren plaçan, Contempla deçagun han goiceco içarrec laudatcen duten Jeincoa, Kherubinac Eta Seraphinac bano gorago dagon Jeincoa nola dagon lekhu herxi hartan lasto puzca baten gainian hedatuya, cerugucia alegueratcen duyena, Eta hango espiritu dohaxuyec adoratcen dutena dago nigarrez, Eta hotcez ikharan bi animaleren artian.

Bainan Cerda hura estatu triste hartan daducana? ez berceric gure bekhatuya baicic, haren destrutceco guiçon Eguin da, ezteçagun berce arraçoinic galda harc munduyan soffritu Dituyen pena dolorez, uerbum caro factum eSt. patituco du Establia batian sasoinetaco rigorosena Eta borthitzena, circuncisioneco nabalac Eguinendu haren gorputz garbian Çauri doloros bat, gosse handi ukhanen du deSertuyan, Eta Soffritu ondoan pretorioan açote garratça, khurutcebatian hilenda gucia massacratuya. huna cer gostaren çacon gure amorecatic guiçon Eguitia, doloriac miseriac, Eta Erioac ikhanen dute haren gainian bothere gucia, huna cer Erakhusten deraucun Egungo haren Sortceco misterioac, deusere ezta hura baithan oihuz eztagonic, dio S.t Bernartec, haren haurtaSsuna oihuztago, haren establia Eta haren chatharrac oihuz daude, Bainan cer diote oihu tristeheyec Aita Eternala Çuregana adreçatcen dira berehala, çurj Erraiteco *(page 7)* guiçon Egujnic Çure Seme bacoitcha gure miseriez Cargatu Dela, amorecatic gure contra cinuyen colera handia descargadadin haren gainera, haren çainac oraino ttipieguiac dira abundosqui odol issurteco, bainan demborarequin handituren Eta betherendira, flacuyegui da oraino haren buruya Elhorrizco khorona baten Ekharteco, bainan Emequi Emequi borthisturenda, Eta Soffrituren haren punta çorrotçac, tendreguida oraino haren gorputça khurutce piçu batez içaiteco cargatuya, bainan cenbait urtheren buruyan Eramanendu carga gogor hura mendi bat gora;

guristino *(sic)* Delicatu Eta placeretan çaudetanac, Çuyenganat adreçatcen dira guero ondoan bethlehemeco haurraren nigarrac, çuyer Erraiteco balin bekhatura Sujet ezcen Jeincobat hain generosquj cuyen amorecatic Sumetitu bada hainbat penatara ingrat içaitia liçateyela hetan parteric Ez nahia ukhaitia; ciretenaz gueroztic gucien ithurburuya, Eta balin Çuyen bermea hain rigorosqui tratatuya bada, injusticia handi bat liçateyela hambat gosta çarizcon placeren maithatcia. gure gana Çuyen amorioac, Eta gure Saluatceco Çuyen deSseinac obligatu dute beraz gure Saluamenduyaren Eguinbeharrian haur diuino hari higoalatu behar guira, Eta hure bere Exemplu berthutosetan imitatu, hau içanen da bigarren puduyan Erakhutxiren derautçuyedana.

## Bigarren punduya

Seint augustinec Eguiten duyen Erreflexione Ederrada, gure naturaz beztituz gueroztic Jeincoaren semea, gug *(sic)* ahalduquegun dignitateric handiena dela haren Espirituaz gure beztitcea, Eta harequin higoalatcea; hura sorthu bano lehen ikhusten guinituyen guiçonac,

ceinen Exemplu gaixtoen imitatcia baitcen guri deffendatuya, Eta halaber cerbitçatu, Eta imitatu beharguinuyen Jeincoa guregana gordea - bere borondatez Erreuelatu guiçona Ecin itçul çaiteyen berce guiçonen laguntçaz bide onera, guiçon Jeincoac behariçandu guidatu Eta lagundu *(page 8)*

prometatuya Cen gure aitcinecoer moisen Eta propheten Jeinco *(en marge de gauche:* ecce ueniet et non tardabit*)* hura, bainan guti çaucu Eman, Errana çuten Ethorriren cela, Ez çuyela beranduco, bainan auertituyac guira arriuatu dela, *(en marge de droite:* apparuit benignitas Et humanitas sauatoris *(sic)* nri Dei.*)* ikhussidituzte urrundanic figurac, Eta consolatu dira, bainan guc Errecebitu dugu Egun instruitcen guituyen Egiua;

Cer finez uste duçuye guiristinoac ukhan dugun hambat gracia, Eta Certan Eman deraucun Jeincoac bere seme guiçon Eguindena, ez berce arraçoinez baicin considera Eta admira ditçagun haren misterio Sacratuyac, hetan Erakhusten duyenaz gueroztic bere indarra eta bothere handia, ezeztatuz bere perfeccione infinituyac, Jeincoac Eman deraucu bethlehemeco Establian bere semea, Dio S.t augustinec, amorecati Cerbitça daquigun haren sortce corporala gure Sortce Espiritualaren Erreguelatçat, amorecatic haren seindimendu beretan sarthuric, maitha deçagun harc maithatuduyena, Eta halaber mespretcha harc mespretchatu duyena, beraz Jeincoac beretçat indigne, Eta gurj ~~Exemp~~ Eman nahi ukhan deraucun Exempluyari contrarioac Juyatuz gueroz ohoriac onthassunac, Eta placerac, behartugu mortificatu hetaraco amorioac Eta inclinacioneac *(sic)*, Eta halaber cherkhatu Eta bessarcatu harc beretçat hautatu humiliacioneac, Etaberthuteac,

hitz gutiz Erraiteco Jaquin bahardruçuye Jesuchristoc mundura Jen *(sic)* becen Sarri Eguin dituyela hirur gauça, describitu dariscu *(sic)* berthute gucien proprietatiac Eta Eguiazco marcac, hauda lehena, Establitu du heyen necessitatia Eta beharra, hauda bigarrena, Consecratu du Eta Sanctificatu, heyen ussaya Eta pratica, Eta hau da hirurgarrena; Jaquin nahi baduçuye beraz Cein diren Eguiazco humilitatiaren proprietatiac, Eta Certan Consistitcenden berthute Eder hura, Considera deçagun JeSuchristoc bere bicitce hastian hautatu Duyen estatuya, Eta ikhussico dugu barneco humilitatebat, humilitate uolondres bat, Eta humilitate universal bat, bihotcez ezti Eta humil içaitera gu manatu bano lehen, nahi ukhandu lehenic berac pratican Eçarri hain importancia handitaco *(page 9)* Leccione bat, handic descubritu darizcu gure amorio propiaren illusione Edo tromperien Eçagutceco Eta preuenitceco marcac Eta moyenac, handic Erakhutxi deraucu heyen beharra, Eta marcatu heyenganaco Eguinbidea, ~~humilitate~~

humilitate hura gabe ukhanic Ere berce berthute guciac, inutil Edo fruituric gabe lirate, hura da Dio S.t Bernartec heyen fundamenta Eta Sostenguya, harc formatcen ditu Eta guidatcen beren perfeccioneric handienera, hitz batez Erraiteco hura da Jesuchristoren humilitatia, humilitas uirtus christi, Esseya guiten beraz haren deSseiner ihardextera, maitha deçagun uerthute excellent hura, içanguiten humil gure pensamenduyetan, gure Solasetan, gure accionetan, Eta gure conduitan içanguiten humil espirituz Jeincoaren alderat, gure

guiristino lagunaren alderat, Eta gure alderat; Jesuchristoc guregatic maithatu dituyenaz gueroztic bere humiliacioniac, maitha ditçagun guq Ere haregatic gureac,

Bainan Batbederac hura baithan imita deçaqueguna Ezta choiqui haren humilitatia, huna oraino certan hura imita, Jeincoac erakhutsi deraucu, Dominus ostendit nobis, Eta Cer estatutan, lehenere Erranderautçuyet, Dolorezco estatu batian, Soffritceco helduda mundura, hartçaz berce gucietan causidaite Cenbait Errepaux Edo Soleamendu pusca, bainan haren bicitce gucia persecucionez Eta khurutcez bethia da, Condicione gogor hetan Jennahi da, Erioac finitcen ditu gure Egunac, Dio Seint augustinec, bainan Erioa da haren Egunen hatxarrena, hil nahi ezbalu, ezluque nahi sorthu, Dies nostri clauduntur a morte, christi dies ordinantur ad mortem, Si mori nollet, nec nasci uellet,

Legue çaharrian Eguiten ciren sacrificioen plaçan bera offritcenda, ikhussiric munduyan guiçonec offri ditçaqueten uictima gucia bano guehiago ~~agrada~~ bere aitari agradaturen cela, hargatic haren gainera Erori dira gure iniquitate guciac, bera bolondresqui offrituiçanda, oblatis est quia ipse noluit, ez beraz estona ceren dagon hain pacienqui estatu *(page 10)* triste hartan, Bildox innocent harc libratcen du generosqui bekhatuyarentçat bere arima Complidadin amorecatic haren presunan aitaren borondatea, Ezta Contentatu bercer Erakhusteaz bide herxia, bera lehenic han passatu nahi içanda, bere membroetan grauatu du legue penossa, Eta Euengelioco mortificacionia, amorecatic Eçagut ditçagun haren auantailac Eta beharra,

haren Exemplu Eta maxima Ederrec obligatu çuten Jondone petiri munduyaren quitatcera, Ecce nos reliquimus omnia, heyec obligatu çuten Jondone paulo munduco onthaSsun eta handitaSsun gucien mespretchatcera, Eta istil pusca batçuyequin heyen comparatcera, omnia arbitratus sum tamquam stercora, heyec Erakharri Dituzte anhitz Erregue Eta Erreguina beren palacioen Eta khoronen abandonatcera; ~~Eta finian haren morala Ederra~~ haren morala Ederrac obligatcen ditu Eliçaco aitac munduco onthaSsunen ohoren Eta placeren mespretchiaren predicatcera, Eta batbederari Jesuchristoren humiliacionen Eta mortificacionen imitaraztera, eta finian heyer Emaiten diote Jondone paulori Sentencia garratz hunen pronunciatceco çucena, si quis non amat dominum nostrum J.C. anathema Sit balin bada nehor Jesuchristo gure Jauna bere infirmitate Eta flacaça hetan maithatcen Eta SEguitcen eztuyenic, Jçan bedi madaricatuya,

Nahi ezbacirete Errendatu Cuhurtcia Diuino huni, Errendacitezte hunen beharrari, Eta considera aita Eternalac Erakhusten derautçuyelaric ~~Bel~~ haur diuino hura, Euengelioco hotz hoc Erraitendaritcuyela, hic est filius meus dilectus, in quo mihi bene complacui ipsum audire huna Ene Seme maitia, hunen baithan dira Ene placerac Eta Complacenciac guciac, hura beharduçuye aditu, inspice Et fac Secundum Exemplar quod tibi in monte monstratum est, Consjdera caçuye Exemplu Eder hura, Eta beguirautçuye balin balin *(sic)* ezbacirete haur ttipitto hari higoalatcen Eta harequin bardintcen, ezcirete seculan ceruyan Sarthuren, nisi efficiamini Sicut paruulus iste, non intrabitis in regnum cœlorum. *(page 11)* pobreac Eta

aueraxac, ttipiac Eta handiac, affliccionetan Eta *(...)* çaudetenac, adiçaçuye, ipsum audite, adiçaçuye probeac lasto *(...)* baten gainian gogorqui Etçana dagon Jeincoa, probotcha citezte han Eguiten daritçuyen leccionez, Ez cirete arranguratceco Çuyen Estatuyaz, ikusien duçuyen demboran çuyec bano probeago Eta buluciago çuyen Jeincoa Dohaxu estimatu beharcirete Çuyen pobrecian hura denaz gueroztic Jeincobatec beretçat hautatu estatuya, ipsum audite.

Aberaxac aditçaçuye ororen nagussi içanagatic bere baithan oroz bulucia Eta gabetuya munduyan bicitcera helduden Jeincoa, Eman onthaSsuna, balin ~~conseruatu be~~ permetitu baderautçuye heyen conseruuatceco, Ezterautçuyela permetitu hetaraco estecamendu itxuya, bihotz Eta affeccionez bedere heyer Errenunciatu behar duçuyela, ipsum audite,

Estimuric Eta icenic gabe munduyan ciretenac adiçaçuye mundutarrec Eçagutcen eztuten Jeinco hura, Segurtatzen cituzte Euengelioco humilitateac guehiago ohoratcen duyela Jeincoa Ecinez munduco gloria guciac, Eta guiçonen beguietan apaltcen guituyen harc berac altchatu guituyela Jeincoa baithan ipsum &.

Çuyen sortcetic Estimuz Eta ohorez betheac Consideraçaçuye bere baitharic hain handi ceruyan, Eta ~~hain~~ lurrean hain ttipi den Jeincoa, Ezterautçuye erraiten berceric, baicin Çuyen estimu Eta pomperia guciac direla apparencia Eta ~~iteu~~ itchurapen falxu Eta funs gabe batçu, Jeincoac condenatcen duyela, munduyac ohoratcen Eta Errespetatcen duyena, eztela Ere Eguiazco handitassunic berthutian fundatuya eztenic, ipsum audite.

______affliccione eta penetan çaudetenac adiçaçuye bere gorputz flacuyarequin sassoinetan den rigorossenari Exposatuya den Jeincoa, oihu dautçuye guiristinoentçat dohaxu içaitea dela Jeincoaren amorecatic Soffritcea, Ceren hura bera baita moyen hartçaz bere glorian Sarthu, Eta bide beraz guidatcen cerurat bere hautatuyac, ipsum audite. *(page 12)*

*(... ...)*guinian Eta placerian Çuyen dembora paSsatcen *(...)*thiere danic bere aitaren Compainian Dohaxu delaric *(...)* bicitce gogor baten Eramaitera heldu den Jeincoa, huna *(...)*ez emaitenderautçuyen Dea, Segurtatcen cituzte Edo *(...)* huntan Edo bercian Soffritu behardela, Eta arraçoin berez *(...)*rian Eta ikharan bici beharciretela, ussaye onbat Eguiten *(...)*elaric lurrian Errecebitu abantaliez. ipsum audite.

*(...)*finian guiristino fidelac, adi deçagun guciec Eta bilduric haur diuino haren Elhe guciac, Consideratu ondoan haren urhaxac *(...)*a guiten haren imitatcera, balin hartacotçat necessario baçarizcu haren graciac ezçarizcu faltaco, gure Salbaçale den beçala Eman darizcu guciac,

O gure Jeinco misericordiosa Iguçu erakhutxi darizcuçun Berthuten onxa Emplegatceco gracia, Eman guituçu bide chuchenian Eman diçaguçu halaber han ibiltceco indarra, gure Salbaçale ciren beçala içan cite Ere gure guida, Seindimendu hotan Sarturic offritcen daritçugu gure bihotçac Sinagoga ingrat haren errefusian, ala içanen baita guretçat Consolamendu handia, balin hetara Jauxten bacira, celebratuco dugu aingueruyequin Çure Sor Eguna, Errendatuco daritçugu ~~aingueruyequin~~ artçainequin gure ohore Errespetuyac, Erregue magoequin offrituco gure othoitcen insensuyac, gure mortificacionen mirha, Eta gure

obra onen urhea, Ekharriren Citugu beSoetan maria garbiac beçala, guardaturen citugu Çure etxayetaric Josephec beçala, Eta finian hain ongui guardiaturen Eta Consideraturen citugu, non Ezbaitugu seculan gaitciçautçunic deux Eguinen.

Çato beraz JeSus gure Saluaçalea, harçaçu possessione gure bihotcetan, Jen içan cira gure Saluatceco, hala bihotcez desiratcen dugu applicatuyac içan daquizcun Çure sortceco fruituac, aguertu cira gure Justificatceco, igutçu beraz graciac çure ongui Consideratceco, Eta Çure gainian Erreguelatceco, Eguincirenaz gueroz gure idurira, desiratcen dugu halaber gug *(sic)* Ere çuc Erakutxi *(page 13)* darizcuçun berthuten imitacione fidel batez form*(... ...)* çure idurira,

huna Beraz guiristinoac, nic Egun Çuyer Erra*(... ...)*çuyena, artçainac beren tropac quitaturic bethlehem*(...)* ciren beçala gu ere bekhatutic berthuterat passatu behar *(...)* Eta bethiere igan perfeccionetic perfeccionera, merechi*(...)* amorecatic ceruco bethlehem eder hartan sartcea, han ikh*(...)* dugu JeSuchristo gure Salbaçalea Ez Egun bethlehemeco *(...)* animale natçuz Compainiatuya nigarrez dagon beçala *(...)* Compainian Ceruco gloria handian cein desiratcen baiter*(...)*yet aitaren Eta Semearen &. amen .

## *VIII*

*(Sermon d'Epiphanie, sans titre, cahier relié de fil brun; même filigrane que précédent)*

Ubi est qui natus est rex Judeorum vidimus
Enim Stellam Eius in oriente uenimus cum muneribus
adorare Eum mathœi capite. secundo.

Erragucuie non sorthu den Çuien Erreguia ikhussidugu
haren jçarra orientian, Eta preSentequin jjten guira
haren adoratcera hitz hoc iracurtcen dira Egungo
Euengelioan S.t Matheoren bigarren capituluyan.

Justu cen guiristino fidelac, uirginaren ganic bethlehemen Sorthu cen haurra manifestatuja jçan çadin guciez, bay eta halaber ceruco Eta lurreco creatura guciec adoradeçaten beren Jeinco beren creaçale Eta beren Erredemptore beçala, lehenic ainguerujec creaturaric noblenec beçala bere Sumissioniac <u>Errendatu ceraricoten bozcarioric handienian cantatcen çutelaric</u>, gloria in Excelsis deo Et in terra pax hominibus bonæ voluntatis, biz Egungo Egun handian gloriaric handiena Jeincoarentçat cerujan, baquia halaber borondate oneco guiçonentçat lurrian.

Bi nacione Suerte ciren munduyan, biac abrahamenganic jjten cirenac, lehenac juduyac, Eta bigarrenac gentilac, lehenac abrahamen eta Sararen haurrac, bigarrenac cetura

abrahamen bigarren Emaztiarenganic heldu cirenac, abrahamen lehen haurrer artçainer Jeincoac igorricerayen aingurubat *(sic)* aduertitcera promessa cen beçala Sorthu cela bethlehemen heien saluaçalia, natus est uobis hodie Saluator, Eta hara Joanic adoratu jçan çuten. bigarrenian Jeincoac igorri cerayen gentiler jçar Ederbat aduertitcera hec ere Jjn citela beren Erreguiaren ikhustera, Eta haren adoratcera, Eta hirur Erregue magoac Egun heldu dira bethlehemera beren Jeincotçat Eta beren nagussitçat hango haurraren Eçagutcera, Et uenimus cum muneribus adorare Eum. hirur deputatu Eder hejen preSsunetan ceruiac, lurrac *(page 2)* guiçonec, sauantec, ignorantec, ttipiec, handiec, pobrec Eta aberaxec beren Errespetu adoracioneric handienac Egun bethlehemen JeSus haurrari Errendatcen derarizcote, bada Egun guciec handizqui alegueratceco dugu, cereneta Egun lehenic ukhanbaitugu Eguiazco Jeincoaren Eçagutça dugun beraz laburqui considera Egungo Solemnitate handia, ondoan guero applicacioniaren Eguiteco gucjen probotchutaco - Espiritu Seindujari galdatu ondoan arguiac ararteco Emanic uirgina sacratuia Erraiten deracogularic aingueruyarequin

aue maria.

Egungo misterioaren gainian lehenbiciric ~~Jqu~~ Jaquin beharden gauça da Egun bethlemera *(sic)* jjten diren deputatujac nongoac ciren. bigarrenian cer Jendetaric ciren, Eta cenbat ciren, lekhuiaz denaz becenbatian orienteco ciren, cer Jendetaric?, magoac, Cenbat?, hirur, opinione probalenian melchior, caspar, Eta baltasar hirur Erregue balaanen successorac.

Bada Eguerri *(sic)* gauan Jesus haurra bethlehemen sorthu cen becen Sarrj içar berribat beren herrian aguertu çayen, Eta nola içarretan aditcen ciren guiçon sauant batçu baitciren, haren consideratcen Jarri jçan ciren, Eta beren burhassoen propheciez orhoituric conprenituçuten sorthu cela mundura Jin beharcen Erregue hura, Eta hola deliberatu içan çuten ~~bel~~ berehala behar çutela uisitatu, Eçagutu Eta adoratu, hartacotçat ~~pesereo~~ persaco Costumaren arauera beren Erreinujac, beren familiac eta Eguiteco guciac quitaturic bideco penez Eta difficultatez Estonatu gabe. norat çohacin Era cer arriuaturen citçayen segurtancharic gabe, çoinec bere presentac harturic abiatcen dira jçar Eder hura aitcinian dutela, haren arguiac halaco guissaz mobitucituien, halaco guissaz bihotcian barna sarthu citçayen, Eta hain idea handia beren (*en marge:* S.t leon) Erreguiaz Eman içan cerayen non Eçagutu baitçuten heien Eguinbidia cela, batere beranthu gabe, denboraric galdu gabe haren cherkhatcia, badohaci beraz beren piyaye handian gauaz Eta Egunaz, Empressame *(page 3)* mendu handienian, oihuz daude bethiere bere baithan, ubi est qui natus est rex Judeorum non othe da bada Erregue handi hura, harenganat hurbilago Eta hejen placera handiago.

bainan Jerusalemen diraya bay han galtcendute beren jçarra gordetcen Çaye, bainan animudute bethiere Eztute Curaya galtcen halere eta hango ikharac, trubliac eta nahasmendurac ikhussiric badohaci aitcina hirian barna, miatcen dute ezcela han heien erreguia, Eta portalez campora direneco causitcen dute beren guida, aguertcen çaye beren jçarra ceinec guidatcen baititu Beren Erreguiaren Etchera bethlehemeco Establiara Eta han baratcen dira.

hura cen hura fede handia, dio S.t bernartec, haur bat nigarrez dagona, bi pressuna baicin bere conpainian eztujena, bi animaleren artian hain sumissione handirequin beren Jeincotçat Eçagutcendute, Jaquin cerujac Eta lurrac Ecin contenideçaquetela Jeincoa, halere establia hartan miseriaz bethericaco haur hura Eguiazco Jeincotçat adoratcen dute, ~~hauda hau~~ hura cen hura fede handia berriz ere, ez çutena beren baithan Erraiteco, balin haur hau Erregue bada nonda hunen palacioa, non da hunen tronuja, non da hunen cortia Eta conpainia, hain guiçon Sauantec nola adoradeçaqueten estatu hartan, nahi duçuieya nic Erran

ah ceren ceruco arguiaz arguituiac baitciren, Establia hura parabissu batentçat hartu çuten, ceruco inspiracionec eztute galdatcen deliberacioneric ez conseiluric, arraçoina fediari sumetituric, beren khoronac burutic khenduric, Eta~~ ahu~~ ahuspez Jarriric adoratcen dute - Eta Erreguina Sabacoac lehenago Salomoni beçala beren preSentac Eguiten urhez insensuz Eta mirhaz; urhia Erregue cela marca, insensuia, Jeinco cela Eta mirha guiçon cela; apertis thesauris suis obtulerunt Ei aurum thus Et myrrham.

______hauda hau companía Seinduia, guiristino fidelac, amabenedicatuia alde batetic, Jesus haurra bercetic, Erregue magoac handic, Joseph Justuja hemendic beta berciari beha, ah norc conpreni deçaque orduco hango alegrancia, nolaco placera amabenedicatuiarendaco ikhusten çujenian bere seme diuinoa Erregue handi heiez Eçagutuia Errespetatuia *(page 4)* ohoratuia eta Eguiazco Jeinco beçala adoratuia, norc oraino Exprima deçaque hirur Erregue heiec uisita hartan Erreçebitu çuten axeguina amorioz bata verciari beha guciac su diuinoz bethe ciren Eta beren protestacioniac Eguin ondoan bethiere fidel içaiteco, ~~Eta han intressen~~ instant guciaz haren laudorioen publicatceco, Eta lekhu orotan haren intresen Sostengatceco lokhartu ciren dio textu sacratuia *(sic)*. huna beraz Egungo hirur Erregueren gainian Escritura seinduiac Emaiten deraucun Eçagutca, bainan nola Jondone pauloc dioen beçala gure instruccionetaco Eta gure arimen saluamendutaco hoc guciac Eguin baitira, quæcumque scripta sunt ad nostram doctrinam scripta sunt, ditçagun laburqui Eguin gure applicacioniac eta gure Erreflexione seriosac

Erregue Magoec hirur gauça Eder Eguin cituzten, jçarra aguertu Çayen becen sarrj Jeincoaren boça seguitu Eta obeditu çuten, uidimus Enim Stellam eius in oriente. (*en marge:* hoc signum regis magni est eamus, et inquiramus eum) bigarrenian JeSus haurrari preSentac Eraman çiotçaten, Et uenimus cum muneribus adorare Eum, Eta hirurgarrenian Jesus ikussi Eta ondoan berce bidebatetaric beren herrirat Joan ciren, per aliam uiam reuersi Sunt in regionem Suam. - hirur pundu hotan guiristino guciec beharditugu imitatu Eta seguitu.

Erregue hejec denboraric galdu gabe, berehala ceruco inspiracione seinduja seguitu çuten, Jesusen cherkha Joan ciren, bada cenbat aldiz Jeincoac harengana bihur guitela ezguitu aduertitcen, ceruiac jçar anhitz igorten deraucu, dio S.t leonec, bainan eztitugu seguitcen Jeincoaren deac Eta comitac, abendoan gariçoman Eta berce Egun particularetan Eguiten diren Exhortacioniac Eta predicujac içarbatçu dira Jeincoagana Conuertiguitela oihuz daurizcunac, bainan gorrarena Eguiten derayegu, Jeincoac beregana deithatcenguitu batian

gure ainguru onez, bercian predicariez, batian gaztiguz Eta mehatchuz, bercian halaber lausenguz Eta inspiracione seinduz, norc khonda ditçaque Jeincoac igorten derarizcun jçarrac, bainan seguitcen othe ditugu Erregue magoac, despexistis omne consilium meum
*(page 5: nombreuses ratures et lignes intercalées)*
Et increpationes neglexistis

Bigarrenian magoec offritu cituzten jesusi presentac ~~batec~~ eta lehenic urhia, beraz guc ere ~~causitu badugu Jesus Eguerri hotan~~ Eguerri hotan iesus causitu dugun ondoan offri deçogun urhia Erran nahida amorioa eta caritatia, urhiac amorioa Errepresentatcen du, urhiac nehor aberaxtendu bicitce ~~naturalian~~ temporalian, amorioac halaber aberaxten guitu bicitce ~~Surnaturalian~~ Espiritualian, urhia da metale gucietan den preciatuiena, bay eta amorioa kharitatia berthute gucietan den ederrena. urhiac Edertcenditu çura burdina Eta gauça guciac, baieta amorioac ere gure berthute guciac, Eta hala offrideçagun Jesusi Eguerri ondoan gure urhia amorioz bethericaco bihotz bana ~~bihotz amorioz bethebat~~, Suadeo tibi Emere a me aurum ignitum.

Bigarrenian ~~offrideçagun~~ Erregue magoec offricioten Jesusi insensuia, insensuiac cer Errepresentatcen du, othoitça, hargatic legue çaharrian goizetan insensuia offritcen cioeten sacrificioetan, bada guc ere goizetan offri~~deçogun~~ behardiogu Jeincoari insensuia Eguerri ondoan Erran nahida ~~Eguinditçogun goizcetic~~ guc ere fidelqui goizetan gure othoitzac eguin behar diotçagula, mane oratio mea proueniet te, St chrisostomoren seindimendiuan bere othoitzac goizetan Eguiten dituienac fundamentu bat Emaiten deraye Egun gucico accioner, oraino hurada moyena Jeincoarenganic abundosquiago ceruco mannaren gracia seinduiaren ardiexteco.

hirurgarrenian ~~offrideçagun myrra~~ Erregue magoec offritu cioten iesusi mirrha *(sic)*, myrrhac mortificacionia Errepresentatcendu, beraz Eguerri ondoan Jesusez arguituiac ican Eta ondoan offritu behar diogu gure mirrha Erran nahi da ~~mortifica ditçagun~~ gure passione gaixtoac mortificatu behar ditugula, othoitzac ohiltzen ditu gure passioniac, bayeta mortificacioniac othoitzari Emaiten hegalac, mortificacioniac Sendotu behardítu gure inuidia, ambicione, urgulu, auaricia libertinqueria guciac, offrideçogun magoequin Jessussi present Eder hau Eta Erregue magoec beçala bercebide barribatçutan gaindi Joanen guira gure Eguiazco herrirat cerurat, Eta balin, nahibaduçuie Jaqui *(sic)* heia Eguerrietan Jesus aurkhitu duçuienetz magoec beçala ikhussaçuie heia bide berrira Ciretenetz bicitce berribat hartuduçuienetz.

Balin Erregue magoac Jjn ciren bidiaz bihurtu balira beren herrira *(page 6)* ~~hilen çuten Jesu christo herodesequin~~ herodesequin batian persecutaturen çuten Jesuchristo gure Saluaçalia, balin guiristino hec ere bide çaharretan badaude Eguerri ondoan, beren Costuma habituda gaixtoetan Eta bekhaturaco occasione hetan, ~~deboizqueria hetan~~ cer Eguinendute? ~~magoac~~ magoen partituia utciren Eta herodes imitaturen, Jesuchristo ~~hilen Eta massacraturen~~ persecutaturen, renunciate mihi ut et Ego ueniens adorem Eum.

St. bonauenturac Emaiten deraucun Conseiluia da, balin Causitu nahi badugu Jesuchristo Erregue magoec beçala, heiec cherkhatu çuten desircunde Emprestamendu Su Zelo garberarequin Jesusen ondoan Joan guitela moyen hartaz gure coffessionne, communione, othoitça deuocionezco hetan causituren dugula, Eta Causituduquegun ondoan Egun guciaz gure presentac offriditçogula Erregue mago heiec beçala ~~gure Espirituiac borondatiac Eta amorioz bethericaco bihotzac presenta ditçoguola~~, offrideçogula gure urhia, insensuia, Eta myrrha, Erran nahida gure amorioa Eta othoitza ona, eta gure othoitzequin myrrha bekhatuien gaineco tristizia, dolu urriqui handia, Eta balin bide berri hoc praticatcen baditugu Eguerri ondoan arriuaturen guirela Egun batez JeSusen herrira, cerura cein desiratcen baiterautçuiet aitaren eta Semiaren Eta Espiritu seinduiaren jcenian amen

halabiz

*(ce qui suit d'une écriture plus grande, moins fine et un peu différente:)*

balin auaricios harc quitatu badu onthassunetaco affeccione handieguihura, balin gorputzeco placeretara Emanac cirenec bere placerer Eta desonhestqueria heier Errenunciatu badute, balin lokhairi gormant handi heiec quitatu badituzte ostatu hec Eta joco hec, balin ohoin heiec quitatu badituzte berceren onthassunaren ukhaiteco desirac, Eta Errendatu oranocoan ebaxiac eta gaizqui bilduiac, balin mendecari harc utci badu bere guiristino lagunaren alderaco hudioa, Eta esseyatcen hari ongui Eguitera, balin medisent murmurari hec lenguaiaz khambiatu badira, Eta maithatcen beren guiristino Lagunen ohoria berena becen onxa marcadate *(page 7)* bide berrira direla, Eta Jesus causitu dutela Erregue magoec becen onxa

## *IX*

*(Sermon de la tentation au désert et du jeûne de carême: voir aussi le n° II. Cahier relié de fil blanc. Ecriture petite, penchée à droite, fine et régulière, avec paragraphes sans alinéas, néanmoins semblable à celle des textes précédents, avec quelques particularités graphiques. Le papier, dont le coin droit au bas est abîmé, comporte en filigrane, sur deux lignes, ce qui semble être la marque du fabricant: LAVAVRE - II FALCA.. Les pages sont numérotées au manuscrit de la 4e. à la 8e.)*

*(page 1)*

+

ductus est jesus in desertum ut tentaretur á diabolo; Et Cum jejunasset quadraginta diebus Et noctibus, postea Esuriit. mathœi. Cap 4°.

+

gure Salvaçalia içan da désertura guidatuia, içaiteco debruias tentatuia Eta berrogoi gau Egun barurtu ondoan, içan da gossias attaCatuia. da Errana San mathœoren 4. Capituluian.

+

Esdeja gauÇa Estonagarria, g. ikhustia Egun jainco Salvaçale bat Satan gaixtoas tentauia, berrogoi gau Egun jeus jan Edan gabe barurCentuiela Eta finian gossia Soffritcen duiela!

Estu lehen bathajoa Errecebitcen, Estu lehen aita Eternalac bere SemetÇat declaratcen, non Estuien ispiritu Sainduiac desertura guidatCen, han içaiteco Satan gaixtoas tentatuia Eta bekhatu Eguitera accometatuia, bekhatu eguiteco Capable içan balis beçala, han berrogoi gau Egunetaco barur baten Eguiteco, - innocent bat penitentia Eguitera obligatuia bailis beçala; han gosse Samin baten SoffritCeco, biCitCeco munduco janharien beharra bailu beçala, bera den denboran aingueruien Eta berCe Ceruco dohaxuien janhari preciatuia. Certara beraz behar du hara? Certaco permititCen Et *(sic)* Eguiten ditu hauc guciac? Nahi duÇueja Explica dieçadaÇiyedan berehala misterioa? San agustinec dio hauc guciac Egun arribatCen deraiscun tentationen Contra gure animatCeco Eta CurajestatCeco. <u>ut ad Superandus tentationes mediator Esset non Solum per adjutorium, Sed Etiam per Congressum.</u>

Tentatuia nahi du içan, guri Erakhustera Emaiteco tentatuiac içaitetic Esguitaqueiela Espaca *(sic)* mundu huntan, guiçonaren bicia lurraren gainian gerla bici Eta gudu Continual bat delacoan. barurtu nahi içan du, guri Erakhustera Emaiteco, ~~declaracen~~ tentationen garhaitCeCo Esdela moyan hobiagoric barura baino. Finian gossia soffritu nahi içan du, Satan gaixtoaren obligatCeCo jitera haren TentaCera, Ceren Eta ikhusten baitÇuen barur Çangonian *(sic)* ECin aussarta Çaitequejela haren ganat hurbilCera, beldurres hura Eta Eguiasco jaincoaren semia *(...)* gauça Segurrada estela hurbilduco Ere, balin gossia *(.......)* Esbalin balu berac tiratu beregana. horra Cerden *(.......)* *(page 2)* San ambrosioc gure SalvaÇaliaren gossia Satan gaixtoari haren tentarasteco frauda Edo tromperia seindu bat iÇan dela *(sic)*. <u>fames domini pia fraus est.</u> ikhusten Çujela Exai infernal harc jujatcen Çuiela berrogoi gau Egunen barurcia guiÇoner impossible CitÇajena Eta hala gossiari Summetitus bere ganat hurbil araCi çujela berce okhassionetan beçala hartan ere haren gainian victorios içaiteCotÇat?

gosse senditcCen dujeneco hurbilCenÇaCo beraz gure SalvaÇaliari Satan gaixto hura Eta ustes adam Eta Eva beçala bekhatutan ErorataCiCo dujela pressentatCen deraisco bi harri, Erraiten dioelaric balin jaincoaren semia baCira Conuerti ÇatÇu harri hauc oguitara Eta guero Kassatuko duÇu Çure gossia Eta Contentatuco Çure appetituia: bainan trompatuia guelditCen da. habil hortic Satan gaixtoa, dioxo gure Salvaçaliac, Esdeçajala tenta heure jaun Soberanoa Eta jaquin Eçac guiçona esdela ogui choiles bicitcen, bainan bai jaincoaren ahotic atheratCen diren hitxes. <u>non in Solo pane vivit homo sed in omni verbo quod proCedet de ore dei.</u>

horra, g f, Sujet Ederra Çuien EntretenitCeco; bainan usten tut berce guCiac Çuier baruras mintÇatCeco Eta Çuier huntan behar den estimuaren har arasteco: hala beras sendiaraci nahi deraitÇuiet neure lehen pphonduian *(sic)* ongui Eguina den baruraren Effetuiac Eta bigarrenian hala hala beruraren ongui Eguiteco neCessario diren Conditioniac

<u>ave maria</u>

Barura bere naturas hain gauça ExCellenta da, non jaincoa bera baita hunen EstablitÇalia denbora gucietan bai innoCentiasCo, bai moissessen Legueco, bai legue berrico estatuian. 1°

innocentiasco Estatuian: Ecic jaincoac creatu Çuienian lehen guiçona, Emanagatic Ere bicitCeCo necessario Cituien gaucetaric jateco permissionia, manatuÇuien biciaren fruitutic barur Çadila; Eta non hartaric jaten Çuien, EriotCia iruric ahal Ceçaquejela. acceperat adam à deo legem non gustandi de arbore agnitionis boni Et mali, moriturus Si gustasset. nondic agueri baita, San ambrosioc ongui Cioen beçala, barura munduiaren Creatione beretic ussajatu dela *(...)*mus usus mundi à jejunio Cœpit.
*(...)*moissessen leguian orobat ordenatuia Eta pratiCatuia içan *(page 3)* da barura; ECic ~~ikhusten dugu~~: Ecic ikhusten dugu abstinentiari Eta barurari hobequiago CostumatCiagatic, beiratCen Cirela Cikhuinac deitCen Citusten haragui batÇujetaric jatetic. ademptis q(ui)busdam vetati immundis quó facilius jejunia tolleraret homo perpetua in q(ui)busdam abstinentiâ usus. legue berrian Ere gure Salvaçaliaren imitatCeco Eta Sobrietatioaren ExerçatCeCo, EliÇac jaincoaren inspirationes hautatu ditu Egun batÇu Eta partiCularqui gariçumaco Egunac, Ceinetan obligatuiac baiquira barurcera ExCusa legitimoric Estugun guciac bekhatu mortalen penan. urrun beras hemendic heretico batÇujequin gariçuma guiçonec forjatuja dela Erraiten dutenac. jaincoaren beraren authoritatez Establituia içan Da, tertulien savantac ongui Erran duien beçala. quod quadragessimman jejunamus non Est humana inventio: authoritas Est divina
applica guiten beras baruras beharden Estimuiaren jÇaitera Eta Considera ditÇagun haren Effetu miragarriac, Ceinac baitira prinCipalqui gure Exajen gainian gure victorios atherarastia, gure ispirituien jaincoaganat alcharastia Eta finian Salvamenduiaren guri SugurtatCia *(sic)*. hirur Effetu handi Eneganic Explicatione Eta Çujenganic attentione galdatCen dutenac.
guiçonaren Exajac hirur dira, munduja, debruia eta haraguia, Eta guiçonac baruras garhaitCen Eta benÇutCentu hauc guciac
1° munduja guiçonaren Exai Crudela esda deus berceric baicic Ere bekhatoren Eta jende biciatuien Congregationia, Ceina batian doctrina falsuiac Eguines bercian Exemplu gaixtoac Emanes Eta finian trufac Eta arraileriac Eguines EnxejatCen baita jende ppherestuien gaistotCera Eta bekhatutan Erorastera. jan deçagun, Edan deçagun, liberti guiten, passioniac ContentaiÇagun: huna mundujac pressuna bati Eguiten deraiscon Comitac Eta dudaric gabe naturari Eta naturaren SenSuier placer Eguiten diotenac. bainan Salvatu nahi duien pressunac ErreCurs içaiten duja barurera, -
menespretCiatCen du gomit hauc guCiac, Eta baruraren moyanes garhaitcen ditu munduiaren tentatione guciac. lekhuho hanitx berceren artetic judiht alguna *(sic)*. holoferna Erreguiac banquet handi Eguiten *(...)*, hunequilan bekhatu Eguiteco intentionetan bainan judiht aitxinetic barurCen da Eta Erregue Cikhuina assia Eta hordi *(...)* denboran picatCen dio lepphoa, harCen alxoan buruja Eta *(...)* Erretiratcen batere ÇaurtCera utxi gabe bere garbitassuna. *(...)* *(page)* 4
munduia bentÇutuja da.

debruias denas becen batian: hunec estu berce offiCioric gure tentatCias baicic: Es Etare berce plaCeric gu bekhatutan ErorarаCiric bere saretan gure harrapatCia baicic. Eta Eguiasqui gure tentatCia eta bekhatutan Eroraraci nahi içaitia Esçaut miraculu, ikhusten dudanian jainco Salvaçale baten tentatCen Eta bekatu Eguitera haren accometatCen ...
bainan huna Cerc Eguiten duien Ene Consolamenduja Eta Cerc Eguin behar dujen guiça berian Çujena. hunec Cer nahi tentatione presentaturic Ere, Cer nahi maneras bekhaturat accometaturic Ere, asqui dugu barurcea, Eta baruras bentÇuCo dugu Exai Crudel hau bere amarru Eta finessia guciequila.
*(en marge)* St. amb. dit *(sic)* Satanec
ikhusten dujenian guiçon bat assia, bortixten dela Eta EnxejatCen Egundaino baino guehiago haren tentaCera; bainan SenditCen duja barur dela, Exai gaixto hau flaccatcen dela Eta ihessi joaiten, ikhussiric progotchuric Estuyela. temulentum aggreditur diabolus, ubi autem jejunantem viderit, fugit. agueri da beras barura debruiaren partida bortixa dela, Eta haren garhaitCeco harmaric bortixena eta moyanic hoberena dela iraCurcen dugu Saint marc Evangelistac Eguin Emenjalio *(?sic)* batetan gure Salvaçaliac posseditu batetaric Cassatu Çujela Egun bates aspaldi handi hartan Çagon dœmonioa Eta apostoluiec, bere effort guciac Eguinagatic Ere, neholeseco *(sic)* maneran ECin Cassatu Çutena apostoluiec galdatu Ciotenian nolas EsÇuqueten hejec Eguin gauÇa hura, arrapostuia içan Çutela baruras Eta orationias baicic EsÇaitequejela Cassa dœmonio Suerte hura. hoc genus dœmonium non potest Exire, nisi oratione Et jejunio. hunen gainian San agustinec Eguiten du Erreflexione bat Eta dio admiratione handirequila barurac apostoluier berce merechimendu guciec baina *(sic)* debruiaren garhaitCeco Eta CassatCeco berthute guehiago dujela, ECic hejec Ecin Eguin dutena, barurac Eguiten dujela. videte quantu Sit jejuniorum virtus, ut id falere jejunia valeant quod apostoli nequiverant. beras gauça segurra da barurac debruiaren gainian victorios atherarasten guitujela.
Hirurgarren Exai da haraguia Edo hobequiago Erran deÇadan ConCupisCentia *(...)* baita gure Sensuier plaCer Eguiten derajeten gauCetaraCo desir Eta *(...)*atione bortixa. mundujas bekhatura accometatuiac içan guiten *(...)* baguira, asqui dugu hari ihes Eguitia bainan EsdeÇaquegu *(page)* 5 Eguin gauçabera haraguiaren Edo ConCupisCentiaren Errespetura bat badera huntas bethi Ere bekhatura accometatuia da, beguiac gauça Curiossen ikhustera, beharriac Soinu Ederren Eta deussetaco CerbitÇatCen Estiren Elhe arraillenten aditCera, ahoa Es choilqui biCitCeco necessario diren, bainan oraino gorphutxa inCommodatCen baicic Estuten janhari Edarien harCera, gophutxa placer desonesten harCera, appetituia ohore, onthassunen içaitera. horra Cerdela pleinitCen den apostoluia beria *(sic)*, Erraiten dujenian bere menbroetan SenditCen dujela legue bat haren ispirituco leguiari Contrario dena. Sentio in menbris meis legem repugnatem legi mentis meæ
Cerc orduian victorios atheratCeCo guitu Exai gaixto Eta bortix hunen gainian?
Cerc beras barurac baicic.

Gormandiçac gure baithan phix arasten tu ~~gure baithan~~ bekhaturaco affectioniac, bai Etare bortixten gure passioniac; barurac hala hala mortifiCatCen gure Sensuiac, bai gure ganic urrun igorCen bekhatu Eguiteco guthicia guciac. nondic uste duÇuje, g, jin direla Sodoma Eta gomorra bi hiri handietaCo desordre guCiac? adi ÇaÇuje mintÇatCen Ezechiel propheta Eta harc Erraren *(sic)* derautÇuje gormandiçatic jin direla. iniquitas Sodomœ Soror tuæ Saturitas panis Et abundantia. beras Segurda asse hejen plaÇan, barur Eguin balute EsCirela Erori diren desordretan Erorico, es Etare jainCoac Cerutic Su bat igorric *(sic)*, Erriac içan diren beçala, Erriac içanen.

nois Etare beras baitCiratequeste *(sic)* passiones attaCatuiac Eta haraguias bekhatura accometatuiac, barurera ErreCurs içaneÇaÇuje. harc Censatuco ditu Çuien haraguiac Eta haren tentatione gucien gainian victorios Errendatuco Çuien arimac. nehorc Estu Eguia hunen effetuia hebequiago senditu, nola Erregue prophetac. nois Etare EÇagutu baitÇuien bere ispirituia Errebelatuia Eta bere haraguia nagussi Errendatuia, barur Eguiten hassi Cen Eta moyan hartas haraguia espirituiaren leguer Sumetiaraci Çuien. genua mea infirmata Sunt a jejunio Et Caro mea immulata Est propter oleum. beras Eguia handia barurac Es choilqui munduiaren Eta debruiaren; bainan oraino haraguiaren gainian victorios atherarastenguituiela *(...)* hojen guCien garhaitCeCo harmaric puchantena dela ... *(...)*aren bigarren Effetuia da gure ispirituien jaincoaga*(... ...)*tCia? *(page)* 6

Munduco janhariac Eta Edariac, nahiz diren guiçonaren biCiarasteCo ~~nacessario~~ necessario diren gauÇac, harCenbadira Cantitate Soberanioan pphiÇatCen dute guiçonaren gorphuxa Eta ilhunCen haren ispirituia, halaco guiçan non orduian Esbaita Cappable bere EguiteCoer hox Emaiteco Eta are gutiago bere ispirituiaren jaincoaren ganat alchatCeco. beude appart Eguia hunen pphorogantÇatan Ekhar ahal guinitÇaquejen passaje guCiac, Eta mintÇa bite hemen Cassuian guerthatu direnac: Eguia aithortu nahi badute, Erranen derauCute Sobera jan Eta Edan dutenetan bere gorphuxac Errevolvituiac, bere Estumacac desarranjatuiac Eta bere ispirituiac troublatuiac Senditu ditustela. nondic uste duÇuje ordian, g, heldu direla horiec guCiac? huna non dic heldu diren. janhari, edari Soberanioac jarcen dira EstumaCquian; hejen bapphoriac igaiten dira burura Eta hejec buruja hartus gueros, bekhatuia Salvu gorphuxa berce gaucen eguiteco inSuffiCient Errenda, Eta jaincoaganic ispirituia urrundujada. Ikhusten duÇuje beras Estela arraÇoin gabe mintÇo San bernard Savanta, Erraiten dujenian arnotic abstinentia Eguin nahi dujela, Ceren Eta arnoac idireten baita luxuria Eta luxuriac ilhunCen Eta ixutCen guiçonaren ispirituia, SuSanna garbia Corrompitu nahi iÇan Çuten bi juje Çaharretan Exempluia ikhusten dugun beÇala: abstinebo a vino, quia in vino luxuria.

haraguietaric Ere gauÇa bera Eguin nahi dujela, beldurres Eta haraguiles hasten *(=hazten)* dujenian bere haragui bicia, Entreteni ditÇan biCioac, Ceinec, gaihendus gueros, ruinatCen baitute gorphuxa Eta jaincoaganic urruntarasten ispirituia. abstinebo a Carnibus ne dum nimis nutriunt Carnem Simul Et Carnis nutriant vitia.

Bainan barurac arintCen du Eta libro usten gorphutxa Eta horra Certaco dioen Eliçac barura arimaren becen ongui gorphutxaren onetan Establituia dela. quod animabus Corporibusque Sanandis Salubriter institutum Est.
barurac pruntCen, ErnatCen Eta jainCoaganat alcharastendu ispirituia Eta horra Cerdela Causa diren Eliçaco doctor han*(...)* barura orationioaren hagala beÇala dela. nehorc Esdu dud*(...)* orationioac Estujela izpirituia jaincoaganat alchar*(... ...)*ta estu Ceren duda barurac Estuyela gauÇa bera Eguiten *(... ...)* San bernartec ongui dioen beÇala, bi berthute *(...) (page 7)* junto baitira, non orationiac Emaiten baitu barurCeCo indarra Eta barurac jardexten othoitx Eguiteco gratia. oratio virtutem impetrat jejunandi Et jejunium gratiam promeretur orandi.
horra beras baruraren bigarren Effetuia, ispirituiaren jaincoaganat alcharastia eta huna hirurgarrena, Salvamenduiaren guri SegurtatCia.
*(en marge le chiffre:)* 3
adam lehen guiçonaren desobedientiac Eta jaincoac defendatuCioen fruitutic jatiac Eguin içan haren eta gure malurra: Ecic barurtu balis fruitu hartaric Escen Seculan mundura Erioa Eta bethiere urus Eta dohaxu içanen Cen guiçona: Erran ahal deÇaquet beras aussarqui tertulien Savantarequila adamec bere gormandiças bere Eta bere ondoco gucien Salvamenduja Saldu dujela. Salutem gula vendidit.
Adam berriac, gure SalvaÇaliac barurtus Eta bere buruja SacrifiCatus Eguin içandu gure Erospena Eta Salvamenduja, halaco guiçon non idequi Eta Çabaldu baiteraicu adamen bekhatuiac cerratu CeraisCun Ceruco borthac.
adimenduia jines gueros Eguiten ditugun bakhatu mortalec CerratCen deraisCute Egundaino beçala ceruco bortha hec berac Eta merechiarasten jaincoaren hira. Certas ordian idecaras bortha hec! Certas applaCearas jaincoaren hira? hartaCotÇat moyanic hoberena barura da. Eguia hunen hobequiago SenditCeCotÇat goacin niniveco populuia baithara Eta hartan idirenen dugu Exemplubat asqui Ederra. jaincoac Ecin guehiago Soffritus harc Eguiten Ceraiscon afrontuiac, jonas prophetari Emaiten dio ordria joan sadin populu hari prediCatCera Eta Erraitera berrogoi Egun hartan barna guCiac galduiac iÇanen Cirela bere hiriarequila. adhuc quadraginta dies, Et ninive Subvertitur. hori aditu dujeneco Erregueren ordria guiçonac Emastequiac, Çamariac, idiac Eta berce abere guciac jeus jan Eta jeus Edan gabe Egon ditela, Eta jaincoaren Coleraren applaCearasteco penitentia Eguin deÇatela. Escen guehiago behar, barur horrec khanbiarasten du jaincoaren Erresolutionia, Eta Salvuric usten niniveco populuia. hoc decretum de jejunio. decretum divinum Effringenda ninive revocavit hil ondoan baruraren moyanes Çabalduiac idireten Ceruco borthac, Eta prestic Ceruian harentçat hango loria. nondic agueri baita *(...)*alore baiti *(sic)* berari barurac SegurtatCen dioela Salvamenduja, nahi dut, g, EsduÇujen bekhaturic Es ukhanic Ere, Salvatcecots *(...)* Cirete: Ecic nehor Esdaiteque Salva gratiaric gabe E*(... ...)*s gueros gratiaren Erroa, radix gra.. ut amb. SalvatCeco barura necessa *(...) (page)* 8 nehor ezdaiteque Salva Cenbait ovra *(sic)* on

Eguin gabe, eta obra on guCien ama denas gueros barura, SalvatCeco necessario den gauÇa da. horra beras Cer dela Causa dioen San chrisologoc barurac Ceruiac idequitCen ditujela Eta barurCen dena jaincoa gana dohala, jejunium nobis aperet Cœlum jejunium nos intromittit ad deum. horra Cerdela Causa dioen San ambrosioc barura pressuna baten Cerurat Joan arasteCo biatico on bat dela
*(en marge:)* les martirs s'en sont servis
jejunium Est bonum itineris viaticum. Ikhusten duÇuje beras ongui Eguina den baruraren Effectuiac miragarriac direla barurac atherarasten guituienas gueros gure Exajen gainian victorios, barurac alcharasten ditujenas gueros jaincoarenganat gure ispirituiac Eta finian barurac idequitCen deraiCunas gueros bekhatuiac Cerratu deraiscun ceruco borthac Eta ardiexarasten hango loria. deÇagun beras orai ikhus Cein diren baruraren ongui Eguiteco necessario diren Conditioniac

2ª. pars

Barura Çuien artian praticatuia da: bainan barur ongui Eguina beldur nis arraro dela. Sicut Cito videbitis ~~Barurac ongui Eguina içaitecots~~
barura ongui Eguitecots Eta haren Effetu miragarrien ardiexteCots, behar tugu Eguin hirur gauça 1° beiratu Eliçac ErrepaSSen nombriaren, ErrepaSSen orenen, jaharien *(sic)* Calitatiaren Eta quantitatiaren Errespetura marCatCen deraiscun Erreguelac.. 2° bekhatu mortaletic particularqui beiratu. Eta 3° finian Cenbait berthute pratiCatu.
1° lehenbicico Condidionias denas becen batian, jaquin behar duÇuje Eliçac bere hatxarrenian EsCerajela permititCen bere haurrer barur Egunetan Eguitia Errepas choil bat baicic Eta hura arraxaldian igusquia appalCen hassi Cen orduian: bainan nola bere haurren alderat amodios Eta Compassiones bethia den ama on bat baita, Consideraturic naturaleça flaccatu dela, jin içan da Errepassen nombriaren Eta orenen khambiatCera, - permititCen duielaric Eguerditan Edo Eguerdi hurbilian baaSCaitia Eta arraxian Collatione arin baten Eguitia, Estelaric Collatione hartan jaten affari on baten laurdena Eta guehienas herena baino guehiago jaten *(sic)*.
Bethiere haren manus barurCera obligatuiac direner Deffendiatu de*(...)* tan haraguiaren jatia bekhatu mortalen penan; bai Etar Coll*(... ...)* arrolCiac, arrainac, marlussac Eta hunelaCo jaqui Sendoac *(... ...)*timoric Estutener bekhatu benialen penan *(page 9)*
Edanaren Errespetura, munduiac badaqui San thomassen Errana, Edanac Estujela hauxten barura Eta partiCularqui necessitates Edo Cenbait arraçoin honestes quantitate Soberanioric gabe Edaten den denboran: bainan beiratuco nis Erraitetic Estutela bekhaturic Eguiten barur Egunetan ostatuetan Sar Eta han berce Egun libroetan becen aussarqui, bahar bada assiartian Edaten arCen direnec, Ceren Eta es hauxiric Ere guissa hartas barura, bederen bederen *(sic)* ÇaurCen baitute berce berthute bat, Ceina baita temperantia, Sobretia, denbora orotan Eta partiCularqui barur Egunetan arthosqui beiratu behar liÇatequeena horra abis bat Çuençat

merkhatu Egunetan, barur Egunac içanagatic, Eliçac baino hobequi ostatuiac bissitaCentuÇujenac.

2° bigarren Conditionia baruraren ongui Eguiteco bekhatutic Eta partiCularqui mortaletic beiratCia.
theologo guciac accord dira pphondu hunen gainian, bekhatu mortalac gal arasten ditujela pressuna batec aitxinian Eguin dituien obren merechimenduiac, Eta obrac hilac Eta Es merechimenduric Es EreCompenSaric içanen Estutenac direla bekhatu mortaletan Eguiten diren barur Eta berce obra guCiac. opera mortua.
barur quitÇuje beras guiristino bekhatoriac nahi baduÇuje oguian Eta urian gariçumac Eta berce Egunac, bekhatu mortaletan Ciretelaric Eguiten badituÇuje, jaincoac EsterautÇuje hetan khonduric Etchuquico *(sic)*, es hec direla Causa ErrecompenSaric Emanen. Çuien arimac hilac, Çuiec Eguiten dituÇuien obrac, bere baithan onac içanagatic, hilac. opera mortua.
Cerbada jauna, Erranen deraut behar bada, Cenbait bekhatorec, bekhatu mortaletan niçalacoan Egon niça baruric Eguin Gabe! Eta Cer phorogotchu dut barurCia es merechimenduric, Es ErreconpenSaric içaiteCots?
bai bekhatoria Egon Cite barurtu gabe, nahi baduÇu Egon bethi debruiarequin jossia, Eliçaren desobendientian Eta jainCoaren hira handiaren aspian: bainan nahi baduÇu Exai infernal haren *(...)* athera, obeditu Eliça Eta ardiexi jainCoaren graCia, barura*(...)*
*(page 10)*:
Ecic barura da hortaCotÇat moyanic hoberena, niniveco jendien Exempluiac erakhusten derautÇun beçala. jainco hejen Contra Samur handi denac igorCen deraje jonas bere propheta Erraitera berrogoi Egunic barnian guCiac bere hiriarequin destrutujac Eta fundituajac içanen Cirela. guCiac berehala barurCen dira Eta baruraren mojanes applaCearasten dute jaincoaren Colera, bai Etare ardiexten haren gratia.
punitCen Eta funditCen ditu Contrariosqui, Ceren Estiren barurcen, Sodomaco Eta gomorraco habitantac, Ecic segurda hec Ere barurtu balira, EspatuCo *(sic)* cirela. ipsa Sodoma Et gomorrha EvaSiSSent Si jejunaSSent. Es beras barurtu gabe Egon Çu Ere bekhatoria bekhatu mortaletan CirelaCoan Eta merechimenduric Eta ErreCompenSaric EstuqueÇulaCoan. progotchu handia içanen da ÇuretÇat baruraren mojanes Estatu triste Eta damnagarri hortaric atheratcia, Eta jaincoac Çure contra duien Colera applaCearaciric haren gratian Eta amodioan SarCia.

3° finian barura ongui EguiteCots Eta haren Effetuiac ardiexteCots, behartugu juntatu barurari Cenbat berthute Eta partiCularqui limosna, guiristino lagunaren alderaco amodioa, Eta gure SenSuien mortificacionia.

barura bera gauça ona da, g, bainan Esbada berthuties lagunduia, gorphux arimaric Estuien baten pare da: hartaCotÇat diot 1.° Eguin ahal deÇaquetenec barurari limosna juntatu behar deracotela. Eliçac barurCera obligatCen guituienian, nahi du ordinarioan Eguiten ditugun Errepas hetaric Esparnia deçagun Cerbait gauça, içan deçagun amorecatic Cerbait limosnaren Eguiteco Commoditatia. nahi duÇujeja beras, g, Çuien barurac içan diten beharden beçalaCo Effetuiac, EmeÇuie jende probier goicetaco Edo arraxetaco Errepassetan EsparniatCen duÇuyen gauça hetarican Cerbait, orduian içanen da, San chrisostomoc ongui dioen beçala, Çuien barura bortixa Eta victoriosoa. <u>tunc jejunium viget, tunc triumphat, CunduCe misericordia pugnat</u>.

Esda asqui limosna, behar da oraino pratiCatu ongui barurCeCots Caritatia, Erran nahi dut, guiristino lagunaren alderaco amodioa.

gure Salvaçaliaren beraren manuia da, g f, maitha deçagun gure lagun proximoa gure buruiac beçala. diliges proximum tuum *(page 11)* <u>Sicut te ipsum</u>. Eta dio norc Ere Erraiten baitu jaincoa maite dujela, bere guiristino laguna hastio dujen denboran, hura gueÇurti bat.

apostoluiec piçaturic bere nagussi divinoaren hitxac Eta manamenduiac dio SalvatCeCots jesu christoren leguia Complitu behar dugula, Eta haren leguia EsteÇaquegula Compli, non Estugun Elkhar maithatCen Eta batÇuiec berCier Cargac EkharCen. <u>alter alteruis onera portate Et Sic adimplebitis legem christi</u>.

berthute hau pratiCatuja deja ordian Çuien artian Eliçac manatu barurac Eguiten tuÇujela dioÇuien guiristinoac? Eguia aithor nahi baduçuje, estuÇuje Erranen Essets EstuÇujela berthute haur pratiCatCen, Elgar Ecin Soffritus jarri Cirela Eta batÇuiec bercien Cargac Ekharri behar bidian, elgar lagundugabe Eta batÇujec bercençat Compassioneric içan gabe bici Ciretela. bai, g, bai oraiCo denboran Caritatia hila da . pena Cinuquete barur Egunetan haragui iletan Çuien horxen landatCia Eta hetaric jatia; bainan EstuÇuje batere penaric Es Escrupularic Çujen lagun proximoaren ohoriaren gaisqui ErabiltCias Eta Çuien horx Eta mihi poCoindatuien haren haragui bician landatCias Eta haren aussiquitCias. Esdira beras Çuien barurac ongui Eguinac Eta EsçaquetÇuje guiça hortan barurtus ardiex baruraren Effetu miragarriac: Ecic hortacotÇat behar luquete içan Caritatias Compainiatuiac

3° *(sic)* finian ongui barurCeCots gure barurer juntatu behar Çaje SenSuien mortificationia.

Ceruco Erressumac biolentia SoffritCen du Eta norc Ere bere buruier Eguiten baitute biolentia, Erran nahida norc Ere haren irabasteco Cerbait Soffritcen baitu Eta bere SenSujac morticatcen baititu, hainac hango loria ardiexico du: hala beras ongui barurtu Eta loria hura ardiexi nahi baduÇuje, mortifiCa ÇaitÇuje Çuien beguiac plaCer Eguiten derajen objet hetaric Eta beira behatCe desonest hetaric, mortifica Çuien beharriac Eta beira medisent gaixto hejen discurssen aditCetic. mortifica Çuien ahoac gostu guehien aurkhuitcen *(sic)* duten janhari *(...)*baitetaric. Labursqui Erran deçadan barurcen Cirete*(...)* soffri ÇaÇuje Cenbait mortificatione berCe denboretan Ere *(...)* *(page 12)* guehiago: Ecic barura gure mortificarasteco Establitua *(sic)* da.

Es Erran guiça hortaCo barurec gorphutxac ruinatCen, ossagarria galCen Eta bicia laburcen dutela: Ecic dio Eliçac berac barurac arimen becen gorphutxen onetan Establituiac direla. Solemme jejunium quod animabus corporibusque Sanandi Salubriter institutum Est.
Esta gaix Eguia hunen ComprenitCia: Ecic guc jaten ditugun janhariec Eta Edaten tugun Edariec, içan bite aurkhui ahal ditaquejen hoberenac, bethiere badute Cenbait Calitate maligno, gure dispoSitioner Contrario direnac, Eta asco aldis hetaric jiten Çaiscu Eritassunac: bainan barurac dessipatCen ditu gure gorphuxeco humoriac, bai Etare SendatCen EritaSSunac. San athaNasioc ongui dioen beçala Jejunium distillationes Corporis ExSiccat Et morbos Sanat. horraCerdela Causa Erranen derautÇuien miriCu on guCiec, ikhusten baduÇuje barurac pressuna bat EritCen dujela, ikhuSSico duÇujena bona cherac, Sobera janac Eta Edanac berrogoi Eta hamar EritCen Eta hilCen Ere tujela.
Huna beras, g f, huna gariÇuma Seinduia barur Eguiteco denbora hautatuia. barur Citeste denbora preciatu huntan Seguitcen tuÇujelaric Eliçac ErrepaSSen nombriaren, orenen, janharien Calitatiaren Errespetura marcatcen deraitÇuien Erreglac, beiratCen Ciretelaric bekhatutic Eta partiCularqui mortaletic, pratiCatCen duÇujelaric finian berthutian limosna, guiristino lagunaren alderaco amodioa Eta SenSuien mortificationia. moyan hortas ongui Eguinen dituÇuje Çuien barurac, garhaituCo Çuien Exaiac, bai Etare içanen mundu huntan jaincoaren graCian Eta berCian haren loria Seinduian.

Halabis

## *XI*

*(Fragment sur l'éducation morale des enfants: au recto et verso du premier volet d'une feuille volante pliée, sans trace de reliure. En filigrane la marque suivante sur deux lignes: I FARGUES*
*NADARRE)*

*(……)*

*(page 1)*

instructionia, Correctionia Eta Exemplu ona, horra Cer de*(...)* Çor aita, amec bere haurrer spiritualaren Errespetura

1° instructionia. aita ama batÇuc içan behar dute bere haurren predicariac, Ceren eta bailira tropa ttipitto hartaco arçainac, apostoluiac ongui dioen beçala corinthiaco jender isquiriatu lehen lettraren hamassei garren Capitulujan

*(en marge:)* prov. 29°.

instrui ÇaÇu tenores Çure haurra, dio Çuhurrac, Edan aras EÇoÇu devotionia Esniarequilan Eta Çure Çaharcian hura içanen da Çure Consolationia.

obligatione hau hain Çaut importantia handicoa, non jaincoac berac huntas orhoitarasten baitCitujen hanitx aldis judujac. Etchuc ÇaÇu Ene leguia bihotCian isquiriatuja, passa bedi

bihotCetic Espainetarat, amorecatic eta Çujen harreri *(sic)* ican dadin Çujetan Explicatuja. Et narrabis Ea filiis tuis
isquiritura Sainduco avertimendu horiec guCiac Estira berCetaco, aita, amac; - baicic Ere Çujer aditCera Emaiteco Çujen haurrac instruitu behar tuÇujela jaincoaren beldurrian hejen biciarasteco: balin onxa instruitCen baituÇuje, bere gastetaSSunac appartaraCic *(sic)* Ere bide chuchenetic, Segurda Çaharcian bederen orhoituco direla, aita amec hau Erakhuxi Cerautaten.
2° CorrigitCea
Esta mundujan Estaturic gastetaSSunac becen bat Corrigimendu behar dujenic. batetic bere gastetaSSunac, berCetic bere paSSionec, bercetic mundutiarrec guCier gomitatCen dute ceruCo bidetic appartatCen et amunduco passatiempotan pharte harcera.. Ceren Eguin leçaque holaco gaste batec, Esbalu norbait Brida Etchucleçoquéenic Eta behin barreatCen bada, Corrimendujac *(sic)* Eman EslitÇoqueenic
aita amac Çujec Cirete hortarat obligatujac. non EstuÇujen hori Eguiten esdituÇuje maite Çujen haurrac; ECic, ongui dioen beçala Cuhurrac, CorrigitCen Estujenac hastio du bere haurra Eta gastigatCen dujenac hala hala Erakhustera Emaiten du maite dujela. qui parCit virga odit filium Suum, qui autem diligit illum instanter Erudit.
San agustinec bere gastetaSSuneco desordretatic pharte bat aurthiquitcen Çujen haren aitac haren CorrigitCeco Çujen negligentiaren gainerat
Ene aitac Cassu guti Eguiten Çaien berce gauca gucies, balin guiçon abil içaiten EnxejatCen banintCen - içan nindadin Cikhuin Edo garbi, Sincero Edo gueÇurti, umil Edo Superbios EsCeren batere penetan Emaiten. Non Satagebat Eta nic ordujan berceric Ez nahi.
horra Cer arribatCen den orai Ere mundujan. haur batÇu onxa trabaillatCen badira, content hejen aita amac, hec ibiliagatic Ere nahi duten lekhujetan. nahi duten pressunequilan: bainan malur holaco aita amenÇat. obligatujac Eta herxiqui obligatujac dira non dabilÇan, norequin dabilÇan Eta nola dabilÇan artha EtchuquitCera Eta gasqui *(sic)* maneatCen badira CorrigitCera. *(page 2)*
3° Exemplu onaren Emaitera.
aita amec bere haurrer Eman behar duten Exemplu ona ConsistitCen da Ez hitx Ez actione gaistoes hejen ScandalizatCeco occaSionen ez Emaitian Eta hortara hain dira obligatujac, non gorphutÇa formatCen delaCoan ispirituja baino lehen, aditCen ditusten hitxec Eta ikhusten ditusten actionec hejen baithan impressione guehiago Eguiten baitute, Ecin Ez hejer Emaiten Çaisten instructione guCiec. miraCulu bat liçateque, dio San agustinec idiretia haur berthutos bat aita ama biciatujen artian. grande miraculum, misericordiam fecit filia parricida.
aita ama batÇuc imitatu behar dute arranoa, Ceinac erakhusten baiteraje bere umer hegaldatCen airia gora, bere ondotic hegaldarasten ditujela, Segurtatujac içaiten direlaric hejen haurrec instructione guehiago harcen dutela hejen Exemplu onetic Ecin ez hejen Erran guCietaric. magis Eum doceri exemplis quam verbis.

nahuÇujeja aditu, aita, ama familietacoac Cer isquiriatu Cioen St jeromoc bere alaba nola gobernatu behar Çujen galdeguiten Cioen EmaCume bati arraçoin duÇu Ene haurra artha handi içaiteco Çure allabaz *(sic)*; Curé eta haren Salvamendujac galdeguiten du hori, apparax *(sic)* araçu biCioa inspira ahal deÇaCoten Compainia guCietaric, apparaxaÇu okhasione gaisto guCietaric Eta partiCularqui beirautÇu ikhus Esteçan Ez Çure baithan Ez Curé EzpoSian *(sic)* harc Eguiten balu bekhatu liçatequeen gauça hetaric. nihil in te Et in patre Suo videat quod Si fecerit peccet.
Pere debauché qui par vos debauches Enseignés a votre fils etc. Cessés
Mere inquiette qui par vos Emportements etc. Cessés
Et Souvenés vous que vous que vous *(sic)* Etes obligés dinstruire des parolles Et Exemples les Enfants quil a plu a dieu vous donner pour arriver avec Eux a la gloire Eternelle amen

M

*

*Le dernier texte de cette série, de peu postérieur sans doute aux précédents, qui n'est plus un sermon proprement dit, mais un texte de controverse politico-religieuse anti-révolutionnaire, d'une écriture et d'une orthographe assez différentes des précédents, a été publié et commenté dans l'article suivant publié au* Bulletin du Musée basque n° 132, 2e semestre 1991, p. 105-128, *auquel on pourra se reporter: "Un texte basque inédit contre la Constitution civile du clergé et le serment de fidélité "à la nation, à la loi et au roi" (décret du 26 novembre 1790)".*

Jean-Baptiste ORPUSTAN
Janvier 2005